# Goienkaria

2006ko otsailaren 24a > Egubakoitza > VI. urtea > 233. zenbakia > Doan banatzekoa

www.goiena.net

"Hegazti gripea ez da Euskadira helduko, Afrikatik datozen hegaztiak ez dira hemendik pasatzen"



**Julio Etxebarria**
Albaitaria > 9

**G2a** **Bioarkitektura indarra hartzen ari da gurean** > 43

**DEBAGOIENA**
**Euskararen erabilera bikoiztu egin da Fagorreko langileen artean** > 4

**DEBAGOIENA**
**Amnistiaren aldeko mugimenduak salatu egin du presoen egoera** > 5

**KIROLA**
**Mondraren eta Aloña liderraren arteko partidua zapatuan** > 40

**DEBAGOIENA** > ETXEBIZITZA

# Lurzoruaren Legeak ibarrari lagunduko dion itxaropena

**PROIEKTUA** Lurzoruaren Legearen proiektua adostu dute Etxebizitza Sailak eta PSE-EEk, eta ekainean onartuko dute

**BABESEKO ETXEAK** Eremu berrietako etxeetatik %75 babesekoak izango dira, hainbat errenta mailarendako

**DEBAGOIENDARRAK** Ibarreko hainbat adituk itxaropentsu begiratzen diote proiektuari, baina kontu handiz ere > 2-3

**DEBAGOIENA** > KULTURA

## Iñigo Alberdi, Euskadiko Orkestrako zuzendari

Bergararraren izendapena ofizial egingo da laster > 05

## Urdelarderok egin zien atzo ongietorria Aratusteei

Eskoriatzako neska-mutikoek Urdelardero ospatu zuten atzo. Zirian sagar, txorizo eta donuts bana sartuta, hamaiketako ederra egin zuten, kalean gora eta kalean behera jardun ostean. Hala, Eguen Gizen egunak eta Urdelarderok eman die hasiera aurtengo Aratusteei, eta asteburuan segituko du jaiak. Ekitaldi piloa antolatu dituzte ibarreko herri guztietan eta martitzenera arte mozorrotuta ibiliko gara han eta hemen. Nabarmentzekoa da Artetxabaletan domekan izango den giroa. Hura bihurtuko da, egun batez, gure Rio.



**UMEAK NAGUSI** Eskoriatzako neska-mutikoak herriko plazan elkartu ziren eguen goizean zirian jarritakoa jateko, kalean gora eta behera ibili ostean. XABIER URTZELAI

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 02-07
**Elkarrizketa** > 09
**Iritzia** > 10-11
**Gutunak** > 12
**Herriak** > 15-39
**Kirola** > 40-41
**Kultura** > 45
**Sailkatuak** > 46
**Eskelak** > 47
**Denbora-pasa** > 48
**Gazteak** > 50
**Komunikazioa** > 51
**Telebista-Irratia** > 52
**Non-zer** > 54-55

MEMESA
INDUSTRIA HORNIDURAK
ARRASATE TEL.: 943 712 425 FAXA: 943 712 298
ARETXABALETA TEL.: 943 712 411 FAXA: 943 712 004
OÑATE TEL.: 943 718 080 FAXA: 943 718 045
SEIN grupo•taldea
Euskadiko erreferente nagusia industria hornidura

IPARRAGIRRE SAGARDOTEGIA
Kalitatezko janari eta sagardoa!
Ohitura arte bihurtzen dugu Iparragirre sagardotegian
Osiñaga auzoa / Hernani 943 55 03 28
Eguaztenetik zapatura gauez zabalik, zapatu eguerdietan ere bai

**ETXEBIZITZA** > LURZORUAREN LEGE PROIEKTUA ADOSTU DUTE GASTEIZEN

# Lurzoruaren Legearen zain, soluzio baten itxaropenarekin

**BABESTUEI BULTZADA**
Agintzen da gune berrietan egiten diren etxeen %75 babesekoa izatea, eta errenta altuagoei horiek erosteko aukera ematen die

**ALDE ONAK ETA TXARRAK**
Ibarrekoek diote legea onartu orduko aldatu egingo dela, baina begi onez ikusten dute, nahiz eta alde batzuekin kritiko izan



ERAIKITZEN Arrasaten, Zerrajeran, 476 etxebizitza eraikitzen ari dira. Horietatik 200 gut

**LEIRE KORTABARRIA** > DEBAGOIENA

Lurzoruaren Lege proiektuaren gaineko komenioa sinatu dute Javier Madrazok, Etxebizitza sailburuak, eta PSE-EEk joan den eguaztenean. Hala, badirudi EAEk laster izango duela bere lehenengo Lurzoruaren Legea. Ekainean onartuko da, EAJ, EA, EB eta PSE-EEren botoekin, gutxienez.

Debagoienean, arloko adituei galdetuta, ikusten da oraindik ezjakintasun handia dagoela, edo komentariorik ez dutela egin nahi, bereziki eraikuntza enpresek eta sustatzaileek (promotoreek); informatuta daudenek itxarotea gomendatzen dute, legea onartu orduko aldaketa asko izan ditzakeela diote-eta; kontuan hartuta, gainera, bi hilabeteko negoziazioak behar izan direla oraingo akordioa lortzeko.

GOIENKARIAk galdetutako gehienek itxaropena dute lege berriarekin, baina kontuz hartzen dute eta haren alde batzuk kritikatzen dituzte.

**Legea ekainean onartuko dute, eta berehala jarriko da indarrean, baina onartu arte, aldatu egin daiteke**

**Udalak burujabeago izango dira, eta horrek prozesua laburtu eta etxeak merkatuko ditu**

**HIRU LAURDENAK, BABESEKOAK**

Lege proiektuaren alderdi garrantzitsuenetako bat da etxebizitza babestuari bultzada handia ematen diola, eta orain arte etxebizitza babestuaren errenta mugaren gainetik baina etxebizitza librearen azpitik geratzen direnendako aukera berriak sortzen dituela, tasatutako etxebizitzaren eta udal babeseko etxebizitzaren figuren bidez. Aurrerantzean, urbanizatutako eremu berrietan, etxebizitzen %75 babesekoak izango dira. %55 babestutako etxebizitzak eta etxebizitza sozialak, alokairukoak, izango dira; %20, etxebizitza tasatuak, eta udalak horien erdiak udal babeseko erregimenean egin ahal izango ditu. Oraingo araudiak ezartzen duen etxebizitza babestuen gehiengo portzentajea %60 da 7.000 biztanletik gorako herrietan; hortik beherakoak ez daude behartuta.

Udalek zeresan handiagoa izango dute, beste erakunde batzuen zain egon gabe. Hala, etxebizitzak egiteko prozesua bizkortu egingo da.

**ERRENTA ERTAINEI AUKERA**

Etxebizitza mota berriak errenta maila ertainendako, horixe hartzen dute aintzat Debagoieneko aditu gehienek. Honela dio Ignazio Lakuntzak, Arrasateko alkateak: "Etxebizitza tasatuak juridikoki finkatzen dira, eta hori oso garrantzitsua da, orain arte bi mutur daudelako: etxe babestua eta librea. Baina jende gehiena erdian geratzen da".

Alderdi hori bera azpimarratzen du Ander Rodriguez Arrasateko Ezker Batuko kideak bere alderdiak proposatutako legearen gainean: "Aukera gutxi dituztenei aukera horiek ematen dizkie. Lege aurrerakoia da, babestutako etxeak izango direlako gehienak, eta gazteek alokatzeko aukera gehiago izango dutelako".

**HANKAMOTZ**

Jose Mari Segovia Aretxabaletako Hirigintza teknikariak dioenez, "etxebizitza tasatua hankamotz geratzen da: ez dira nahikoa egingo dagoen beharra asetzeko". Aditu horrek, aldiz, ondo ikusten du udalen parte-hartze handiagoa: "Etxebizitzak egiteko planteamenduak, gestioek… oso luze jotzen dute, eta horrek etxebizitza garestitu egiten du. Irabazten den denbora ondo irabazita egongo da".

Gai horren beste aldea azpimarratzen du Valen Moñux udal aparejadoreak: "Legeak intentzio onak ditu, baina ez dakit helburua beteko duen; izan ere, babestutako etxebizitza asko egiteak etxebizitza librea garestitzea ekarriko du". Gogoratu behar da orain gutxi, Arrasaten, etxebizitza libreko metro koadroarengatik 6.000 euro ordaindu direla.

Arabako eta Bizkaiko patronalek kritika horixe bera egin diote legeari. Gipuzkoako patronalak, berriz, ez du komentariorik egin nahi izan; Debagoienean

ZUTARRI S.L. - ERAIKUNTZA ENPRESA
Bulegoa: Zerkaosteta 17, behea - 20500 Arrasate - Gipuzkoa Tel.: 943 79 67 78 / Faxa: 943 77 10 09 / zutarri@infonegocio.com
15 urtez zuekin lanean kalitate eta konfiantza osoz



xienez babes ofizialekoak izango dira. XABI URTZELAI

galdetutako enpresek ere ez dute berba egin nahi, eta beste batzuek legeaz "ezertxo ere ez" dakitela erantzun dute.

Etxebizitzen portzentajeak ez dira behin betikoak. Eraikuntza-enpresek etxebizitza libre gehiago aurreikustea eskatzen dute; bestetik, PSEk emendakinak aurkeztuko ditu, segurenik etxebizitza tasatuen gainean.

**"EZIN DA GEHIAGO GARESTITU"**

Lege proiektuarekin iritzi kritikoak badaude. Horrelakoa adierazi digu Jesus Markaide etxebizitza-agenteak: "Legeak eragin dezala espero dut; prezioak ezingo dira gehiago igo, absurduaren mugan daudelako orain. Lurzorua ez da beste inon baino garestiagoa, baina daukagun legediak garestitzen du. Frantzian edo Alemanian, Estatuak urbanizatzen du; hemen, promotoreek". Gaineratzen duenez, "Lurzoruaren Legea dute Estatuko beste erkidego batzuek, eta han ez ditu arazo larrienak konpondu ere. Valentziakoak agente urbanizatzailea du, eta legea errekurrituta dago". Etxebizitzaren alorrak "interes asko" mugitzen ditueñez, legea horien arabera onartuko dela aurreikusten du.

Legea onartu arte, ezer ez da behin betikoa; eta hau hain lege polemikoa izanda, are gutxiago. Hortaz, itxaron beharra dagoela esaten dute adituek, eta oraindik aldaketa asko gerta daitezkeela.

## Egiten edo aurreikusita daudenak

| HERRIA | ETXEBIZITZAK | BABESTUAK | FINKAT. PREZIOKOAK |
|---|---|---|---|
| ANTZUOLA | 56 | 0 | 0 |
| ARAMAIO | 70 | 44 | 0 |
| ARETXABALETA | 679 | 120 | 185 |
| ARRASATE | 2.144 | 811 | 112 |
| BERGARA | 1.300 | 244 | 48 |
| ELGETA | 142 | 20 | 18 |
| ESKORIATZA | 293 | 0 | 30 |
| LEINTZ GATZAGA | 0 | 0 | 0 |
| OÑATI | 1.183 | 324 | 27 |
| **GUZTIRA** | **5.867** | **1.563** | **420** |

### ESANAK

**"Etxebizitza tasatuak finkatzen dira, eta hori oso garrantzitsua da, orain arte bi mutur zeudelako: etxe babestua eta librea"**

Ignazio Lakuntza > Arrasateko alkatea

**"Lege aurrerakoia da, etxebizitza babestuak izango direlako gehiengoa, eta gazteek alokatu ahal izango dutelako"**

Ander Rodriguez > Ezker Batua-Berdeak

**"Udalek malgutasun handiagoa izatea oso ona da, prozesua oso luzea delako eta horrek etxea garestitzen duelako"**

Jose M. Segovia > Hirigintza teknikaria

**"Intentzio onak ditu legeak, baina etxe babestua bultzatzeak etxebizitza librea asko garestitzea ekarriko du"**

Valen Moñux > Udal aparejadorea

**"Prezioak ezingo dira gehiago igo, oraintxe bertan absurduaren mugan gaudelako. Legediak garestitzen du etxebizitza"**

Jesus Markaide > Etxebizitza-agentea

**"Legeak prezio igoera motel dezake, batez ere bigarren eskukoena. Baina hemengo arazoa da lurzorurik ez dagoela"**

Luis Laskurain > Suradesa

### LEGEA BI HITZETAN

**> BABESTUEI BULTZADA**
Eremu berrietako etxebizitzen %75 babestuak izango dira. Etxebizitza tasatua eta udal babeseko etxea sortzen dira.

**> ERRENTA MAILA ETA PREZIOA**
Honakoak dira: babestutako etxebizitzarako, 9.000-33.100 euro (gordinak), eta prezioa, 117.700 euro (80 m2); tasaturako, 43.000 euro arte, eta 170.700 euro; udal babesekorako, hortik gora, eta 200.000 euro.

**> UDALAK, BURUJABEAGO**
200.000 biztanletik gorako udalek Egitamu Orokorrak onartu ahal izango dituzte. 3.000 biztanletik gorakoek Plan Partzialak berretsi ahal izango dituzte. Horrek prozesua laburtu egingo du.

**> AGENTE URBANIZATZAILEA**
Irudi berria da. Udalak eremu baten gestioa lehiaketara aterako du eta agenteak garatu egingo du, urbanizatzeko gertu utzi arte.

**> LEGEA EZARTZEKO UNEA**
Onartu eta berehala jarriko da indarrean lege berria.

### di-da batean

Leire Kortabarria

## Bizkortzea eta hurbiltzea, klabeak

Etxebizitza arautzen duten legeei errealitateak aurre hartu die. Hala, garbi dago babestutako etxebizitzak, daukan errenta maila mugarekin, ez diola Debagoieneko gizarteari erantzuten. Horregatik, gaur eguneko erantzunak ematen dituen proposamen bat ere ez dago soberan.

Hala ere, etxebizitza egiteko prozesua oso konplexua da, eta legetik ihes egiten duten interes asko dago. Zenbat eta prozesu luzeagoa, orduan eta garestitzeko arrisku handiagoa. Hori bizkortzea, herritarrarengana hurbiltzea eta, beraz, gardentzea, hori espero dut lege on batetik, eta horixe eskatzen diot lege berri honi.

Chevrolet harrigarriagoa da. Km 0 direla ez baduzu sinesten, begiratu prezioa.



Lacetti 1.4 SE
Km.0 - 11.700 €
Nubira 1.6 SE
Km.0 - 11.700 €
Giauto 902 345 225
Otaola Etorbidea, 27 · EIBAR · Tel.: 943 70 08 41
Karobi Industrialdea z/g · OLABERRIA · Tel. 943 88 51 50
www.chevrolet.es
clientes@giauto.es
Chevrolet gehiago da.
CHEVROLET
Kontsumo mistoa (l/100). CO2 emisioak (g/km). Nubira gama: 7.1.-8.8/178-210 Lacetti gama: 7.1-8.8/171-210




**SINADURA EKITALDIA** Fagor Etxetresna Elektrikoetan sinatu zuten 2006-2008 eperako elkarlan hitzarmena Fagorreko eta Emuneko ordezkariek. AMAGOIA LASAGABASTER

**EUSKARA** > FAGORREN ETA EMUN-EN ARTEKO HITZARMENA

# Euskararen zabalkunde eta prestigioaren aldeko hitzarmena berretsi dute

Fagor Taldeak eta Emun Kooperatibak hiru urteotarako hitzarmena sinatu zuten atzo, eguena; fabrikan euskaraz lan egiteko eskubidea bermatu gura dute

**UBANE MADERA** > ARRASATE

1998an aurreneko aldiz sinatu zuten hitzarmena berretsi egin zuten atzo Fagor Taldeko eta Emun Kooperatibako ordezkariek. Hitzarmen horren helburua zen Fagorreko kooperatibetan euskararen erabilera planifikatzea eta ezartzea.

Zortzi urte pasatu dira ordutik hona, eta emaitza oso positiboak lortu dituztela jakinarazi zuten bi aldeek atzoko ekitaldian.

Hala, Fagor Kooperatiba Elkarteko presidenteak, Javier Gantxegik, datu oso esanguratsuak eman zituen: Fagorren euskara zabaltzeko egitasmoa abiarazi zutenean, langileen %17k erabiltzen zuten euskara; 2005eko azken datuen arabera, berriz, %36ko erabilera lortu dute.

**KOOPERATIBA GUZTIAK**

Bestalde, Fagor Taldeko lehendakariordeak, Juan Jose Antsoategik, euskara planek halako arrakasta izateko baldintzak hiru zirela nabarmendu zuen: bazkideen konpromisoa, kooperatiben konpromisoa, eta planen planifikazio metodologikoa eta dinamizazioa. Azpimarratu zuen, baita ere, taldeko kooperatiba guztiak sartu direla euskara planetan.

Oro har, oso balorazio positiboa egin zuen Antsoategik: "Euskarak prestigioa lortu du, ez da polemikarik sortu eta adostasunak bilatu eta lortu egin dira. Egiazta dezakegu orain arte euskarak ez duela gure artean orain duen adinako zabalkunde eta prestigiorik izan".

Emunen ekarpena garrantzitsua dela ere esan zuen.

Bukatzeko, Dani Larreak egin zuen berba Emun Kooperatibaren izenean, eta besteak beste, nabarmendu zuen hitzarmen hauei esker, bai Fagor zein Emun erreferente izatea lortu dutela.

**KULTURA**

## Alberdi, Euskadiko orkestrako zuzendari

Martitzen goizean egingo du jakinarazpen ofiziala Eusko Jaurlaritzak

**UBANE MADERA** > BERGARA

GOIENKARIAk jakin ahal izan duenez, Iñigo Alberdi soraluzetarra izango da Euskadiko Orkestra Sinfonikoko (ESO) zuzendari orokor berria. Beti ere, ezustekorik ezean. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren izenean, Miren Azkarate sailburuak datorren martitzenean jakinaraziko du ofizialki izendapena hori, Gobernu Kontseiluan.

Soraluzekoa izan arren, Iñigo Alberdi Bergaran bizi da azken urteotan eta Oñatin egiten du lan, banketxe batean. Edozelan ere, musikarekin lotutako ibilbide luzea dauka.

German Ormazabal tolosarraren lekua hartuko du ESOko zuzendari orokor moduan. Hala, ehun lagundik gorako enpresaren gidaritza Alberdiren eskuetan izango da, martitzena ezkero.



Iñigo Alberdi. GOIENKARIA

LASAGABASTER
LASAGABASTER
www.lasagabaster.com
Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

**PRESOAK** > ESKUBIDEEN URRAKETA

# Preso politikoen eskubideak urratzen segitzen dutela salatu du Askatasunak

## Agirrek, Errastik, Iparragirrek eta Parotek bizi duten egoera "muturrekoa" dela adierazi dute

## Etxeratek egubakoitz iluntzean egingo dituen elkarretaratzeetan parte hartzeko dei egin dute

**GOIENKARIA** > ESKORIATZA

Euskal preso politikoen eskubideak behin eta berriz urratzen dituztela salatu du astean amnistiaren aldeko mugimenduak. Eskoriatzako kultura etxean egin zuten salaketa ibarreko presoen lagunek eta senideek, eta Debagoieneko hainbat presoren egoera "muturrekoa" dela azaldu zuten.

**IBARREKOAK EGOERA LARRIAN**

Euskal presoen egoera aztertzean, ibarreko hainbat presok bizi duten egoera gogoratu gura izan zuten Eskoriatzako kultura etxean bildutako lagunek. Adibidez: Zuhaitz Errasti preso aretxabaletarrak hilabete baino gehiago darama mitarden Poitiers-eko espetxean, garbitasun greban, gainera. Marixol Iparragirre eskoriatzarrak, berriz, gose greba mugagabea hasi zuen duela hiru aste. Unai Paroti "asmatutako" delitu berriak egotziz hasi zuten ibilbidearkin jarraitu dutela salatu zuten, eta Aramaioko Jon Agirreri askatasuna ukatu diote, gaixo dagoen arren.

Ibarretik kanpoko beste preso batzuek bizi dutena ere azpimarratu du Askatasunak, Frantziako zein Espainiako espetxeetan.

**"GERRAKO ESPETXE POLITIKA"**

Askatasunak esan du "gerra estrategian oinarritutako espetxe politika" indarrean dagoela oraindik. Horren adibideak Frantzian zein Espainian ikusten direla dio, hala nola: gaixo dauden presoekin duten jarrera, euro-aginduaren aplikazioa, mitarden dauden presoak, hainbat espetxetan presoek funtzionarioengandik jaso dituzten tratu txarrak, delitu berriak egoztea, urruntze aginduak eta bahidurak. Horrekin batera, Frantziaren papera ez dela kolaborazio soila dio Askatasunak, baizik eta inplikazio zuzena.

Askatasunak dio presoen izaera onartzea, estatus politikoa aitortzea, ezinbestekoa dela Euskal Herrian eszenatoki demokratikoa eraikitzeko, gatazkaren ondorio direlako presoak.

**ELKARRETARATZEKO DEIA**

Presoen estatus politikoa orain onartzeko eskatzeko, manifestazioak egin zituzten atzo, eguena, Euskal Herriko hainbat herritan, tartean Arrasaten. Gaur, egubakoitza, Etxerat elkarteak hileroko elkarretaratzea egingo du herriko plazetan 19:30ean, eta bertan parte hartzeko dei egin dute Askatasunak eta Etxeratek.

## Espainiako gerra zer izan zen ikustera etorri dira Europatik Elgetara

Gernika Gogoratuz taldeak gonbidatuta, Europako 15 lagun izan ziren astelehenean Elgetan, Espainiako gerra zer izan zen eta nola bizi izan zuten ikusten. Bitor Garai elgetarrak bertatik bertara azaldu zien bere aita nola hil zuten etxe ondoan, Antsutegi baserrian, eta beste sei lagunekin batera non lurperatu zuten erakutsi zien, Arantzadiko Francisco Etxeberria auzitegiko medikuak lagunduta. Horrenbeste urtean gordetako isiltasunak harritu zituen gehien nazioarteko gonbidatuak.



OIHANA ELORTZA



IXTEN DUGU berritze-lanak direla-eta

Hobetzeko ari gara lanean, IRUDI BERRIA, DENDA BERRIA eta KIROL GEHIAGO zuri eskaintzeko.
Denda ITXITA egongo da Otsailaren 26tik, BERRITZE LANAK DIRELA-ETA.

BERRIREKITZEA MARTXOAK 29an izango da. Bezeroaren Arretarako Telefona erabil dezakezu:
902 102 362 (10etatik 22etara).

Garbera Merkataritza Zentroan (Donosti), Urbil Merkataritza Zentroan (Usurbil) eta Boulevard Merkataritza Zentroan (Gasteiz) dugun FORUM dendetan kasu egingo dizuegu.

www.forumsport.es

SPORTLAND Arrasate

SPORTLAND FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

**OÑATI** > ALKATE BERRIA

# Lehen aldiz emakume bat dute alkate Oñatin: Lourdes Idoiaga

Lourdes Idoiaga: "Elkarrizketan eta tolerantzian sinesten dut nik, eta alkate bezala ere jarrera horrekin jarraituko dut Ereittenekoekin"

Ereitten: "Oñatiko ezker abertzalekook eskua luzatuta jarraitzen dugu, baldin eta EAJ-EAk arduratsu jokatzen badu"

**AINTZANE IRIZAR** > OÑATI

Andoni Gartziak kargua utziko zuela iragarri zuenetik, Lourdes Idoiagaren izena ozen entzun genuen han eta hemen. Baziru-dien hura izango zela alkate berria, eta halaxe izango da. Atzo, eguena, egindako osoko bilkuran horixe erabaki zuten.

Lagun Aroko EPSVko langilea da Lourdes orain dela 33 urtetik; osasun zerbitzuen eta pentsioen saileko arduraduna da. 55 urte ditu, ezkonduta dago eta bi semealabaren ama da.

**POLITIKAN BERRIA**

Politika mundua nahiko berria da Lourdesendako. Hauteskundeetara aurkeztu den lehendabiziko agintaldia da oraingoa. Hala ere, aurreko agintaldian ere alkate kargurako aurkezteko proposamena egin zion EAJ alderdiak. "Profesionalki, egoera kritikoan nengoen orduan eta ezezkoa eman nion proposamenari", azaldu digu Lourdesek. "2007ko hauteskundeetarako ere proposamen horixe neukan esku artean, eta aukera aztertzen ari nintzen", gehitu digu. Azkenean, baina, erabakia azkarrago hartu behar izan du.

Euskararen, kulturaren eta hezkuntzaren mundua politikarena baino hobeto ezagutzen du Lourdesek: "Oñatiko euskararen, euskal kulturaren eta hezkuntzaren munduan gaztetatik lan egin izan dut: Oinatz kultura elkarteko sortzaileetako bat izan nintzen, baita elkarteko presidentea ere; Txantxiku ikastolako lehendakaria hainbat ekitalditan; Partaide elkartean ibilitakoa ere banaiz". Pozik gaineratu digu honakoa: "GOITB eta GOIENKARIA Oñatin sartzeko prozesuan ere parte hartu nuen".

**ARDURA HANDIA**

"Ardura handiarekin eta larritasun eta urduritasun puntu batekin" hartu du kargu berria Lourdesek. Udaleko egoeraren gainean galdetuta, Ereittenekiko harremanaren gainean zera adierazi digu: "Elkarrizketan eta batez ere tolerantzian sinesten dut nik, eta datorren astetik aurrera Ereittenekoekin jarrera hori izaten jarraituko dut".

**EREITTENEN KRITIKAK**

Udalaren egoeraren gainean eta alkate aldaketaren gainean, idatzi bat helarazi digu Ereitten plataformak. Lourdesen kargua hartzearen gainean, hona hemen idatzian diotena: "Lehen aldiz Franco hil zenetik, Oñatiko herriak espainiar lege batek proposatutako alkatea izango du".

Hala ere, mezu positiboa ere luzatzen dute: "Ezker abertzaletik eskua luzatuta jarraitzen dugu, baldin eta arduratsu jokatzen baduzue".



LAGUN ARON Lagun Aro EPSVko langilea da Lourdes, eta bere lanarekin jarraituko du. GOIENKARIA

## kontsumoa



Martxoaren 15ean da Kontsumitzailearen Eguna. GOIENKARIA

### Kontsumitzailearen Eguna dela eta, lehiaketa antolatu du Jaurlaritzak

**AINTZANE IRIZAR** > BERGARA

Martxoaren 15ean Kontsumitzailearen Nazioarteko Eguna da; hori dela eta, Eusko Jaurlaritzako Kontsumo eta Industria Segurtasunerako Zuzendaritzak lehiaketa bat antolatu du eta oraingo astean bertan jarri du martxan.

EAEn gehien saltzen diren egunkarietan kontsumoaren gaineko denbora-pasak jartzen dituzte. Bi lagunek asteburua landetxe baten pasatzeko zortzi sari zozketatuko dituzte. Martxoaren 21ean jakinaraziko dituzte irabazleen izenak, egunkari guztietan. Martxoaren 13ko asterako beste hainbat ekitaldi ere antolatzen dihardute.

### Botika batzuk legez kanpokotzat jo ditu Osasun Ministerioak

Melendez biokimikoaren Factor I eta Factor II izeneko botikak merkatutik kentzeko agindua eman du Botika eta osasun produktuen Espainiako Agentziak. Obesitatearen, tentsio altuaren eta artrosiaren aurkako botikak dira horiek.

### Janarien etiketen gaineko informazioa Interneten

Janari gaietan Kontsumitzaileak Informatzeko Estatuko Partzuergoak argitara eman berri du janarien etiketen gaineko informazioa jasotzen duen orria. Honako webgunean aurkitu dezakegu informazio hori: *www.ocu.org*.



## gure artekoak

**LORE-LAN** > Hamahiru urte daramatzate Jokinek eta Iñakik Lore-Lan enpresarekin; aretxabaletarra eta arrasatearra diren arren, Oñatin kokatu dezakegu enpresa, hantxe dute-eta bai biltegia, baita lan gehiena ere.

Jokin Bengoa

# "Lorategiak txukun edukitzea bizi-kalitatearekin lotzen da"

AINTZANE IRIZAR > OÑATI

**Langile batzuk Ulmaren gune berrian lorategiak atontzen aurkitu ditugu; beste batzuk, berriz, Oñatiko kaleetan zuhaitzak inausten; era guztietako zerbitzuak eskaintzen dituzte Lore-Lan enpresakoek.**


Jokin Oñatin, inausitako adarrez inguratuta. A.I.

**Oñatin, batez ere, lan egiten duzue. Ze bezero mota dituzue?**

Batetik, Oñatiko Udalarendako lan egiten dugu; horretan dugu lan handiena. Enpresen lorategiak zaintzen ere jarduten dugu, eta azkenik, partikularrendako ere lan egiten dugu.

**Zelako zerbitzuak eskaintzen dituzue?**

Lorezaintzarekin lotutako zerbitzu guztiak eskaintzen ditugu: mantentze-lanak egiten ditugu; baita lorategiak diseinatu eta proiektuak egin ere.

**Hamahiru urte daramazue dagoeneko, baina zelakoak izan ziren hasierak?**

Mikelek, Iñakik eta hirurok sortu genuen enpresa, 1993an. Arrasateko Lanbide Eskolan hasi zen guztia. Lorezaintzaren gaineko ikasketetan jardun genuen elkarrekin eta praktikak Oñatiko Udalarendako egin genituen. Harreman hori izan eta gero, Oñatiko Udalarendako lanean jarraitu genuen, eta esan bezala, 1993an sortu genuen enpresa.

**Zailak izan ziren hasierak?**

Zerbait berria eskaintzen genuen, eta ez zen hain gogorra izan; garai hartan ez zegoen lorezaintza enpresa askorik.

**Geroago eta garrantzi handiagoa ematen zaie lorategiei.**

Bai; inguruak txukun eta dotore edukitzea bizi-kalitatearekin lotzen da gaur egun. Itxurari, estetikari garrantzi handia ematen zaio gaur egun.

FITXA TEKNIKOA

**> HASIERAK**
Arrasateko Lanbide Eskolatik sortu zuten Lore-Lan enpresa, 1993. urtean.

**> ZERBITZUAK**
Mantentze-lanak, lorategien diseinuak eta proiektuak egiten dituzte.

**> LANGILEAK**
Zortzi bat langile ditu enpresak urte osoan; udaberri inguruko lanetarako, bizpahiru langile berri hartzen dituzte.

## etxeko leihotik


**Julen Iriondo** > GOITBko albistegietako arduraduna

# Ezin "patotan" geratu

Bostetan "patotan"; zortzietan "patotan". Hitzorduak egiteko ohiko tokia Oñatin: "patoak". Eta hara gure patua! Eurengan jarriak ditugu aspaldian gure begiak: "Eztula egin du hark", "besteari mukia dario", eta "zer dago hori, lo edo hilda?". Gripea, orainaldikoa toki batzuetan, etorkizun hurbileko arazoa omen guretzat.

Gu ahateei begira, eta haiek guri so, autobusari itxaroten diogun bitartean (bertan dago geltokia). Eta esango dute euren golkorako: "Gajoak horiek, orduak egiten dituzte zain". Ez da gutxiagorako: goizero, Oñatitik Arrasatera lanera joateko, kantuak dioen bezala, "40 minutu" eta "milaka taupada", malaletxearen malaletxez; urtea amaitzerako akabatu behar omen zituzten Roneo inguruan bidea bikoizteko lanak. Atzeratu egin dira, hilabete, bi, hiru? Iaz, Mundumira jaialdia zela-eta, geurean izan genituen Ben Johnson eta Abebe Bikila (atleten izenak eman zizkieten proba moduan jarri zituzten maiztasun handiko autobusei). Bikila eta Johnson behin izan ziren, baina ez dira itzuli; Gatzagan ere jarri dute hainbatek hainbatetan eskatutako autobusa; taxibusa omen. Barrebusa, deituko lukete gatzagarrek. Baina negargura eman. Ez daude gustura.

Baina guk jarraitu dezagun ahateei begira! Egongo da aurrerantzean hitzorduak Santa Marinan egingo dituenik ere, badaezpada. Arrain-gripe hotsak entzuten hasi arte!

**"Abebe Bikila eta Ben Johnson behin izan ziren geurean, baina ez dira itzuli"**

**> Behi eroekin ez genion haragia jateari utzi, baina ordutik hona oso kontuan hartzen dugu jatorria. Oilaskoarekin berdin, aurrerantzean gertukoa.**

**> Laugarren hiriburua erkidegoan Debagoienak behar duela entzun dugu berriro zenbait politikariren ahotik. Horretarako bada zer hobetu; garraioa, adibidez.**

## begi-bistan




**Jolasparkea ez zapaldu (Oñati)**
**2006/02/21**

**Argazkia:** Leire Kortabarria.
**Testua:** L. Kortabarria eta Aintzane Irizar.

Gure umetako jolasparkean zapalgailu hau ikusita, izutu egin gara; pena eman digu pentsatzeak ziburuak kenduko dituztela, baina ez. Jolasparkea ez dute kenduko, aparkalekuak egin arren.

**Har ezazu parte:**
Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera:
goienkaria@goiena.com

## izen propioak


**Rikardo Azkargorta**
PINTOREA

Martitzena ezkero ikusgai daude Rikardo Azkargorta pintore bergararraren lanak Gasteizen. Felisa Navarro erakustokian jarri du erakusketa eta zabalik egongo da martxoaren 16ra arte. 18 margolan daude, guztira. Cercas Bajas kalean dago erakustokia.


**Joxe Arantzabal**
BLOGARIA

Joxe Arantzabalen *Medikuak esan dit minbizia dudala* liburuaren lehen edizioa agortu egin da. Eguaztenean, hilak 22, bete zen urtebete liburua aurkeztu zuela Joxek. Egun hartan bertan jarri zuen abian bere bloga ere, *goiena.net*-eko lehena: *Faroa*.


**Karlos Urbieta**
FRANTZISKOTARRA

Urrezko ezteiak ospatuko ditu Karlos Urbieta frantziskotarrak. 1956ko otsailaren 25ean abadetu zen Karlos. Zarauztarra da eta Arrasateko Frantziskotarren Komentuan bizi da. Hantxe ospatuko du urteurrena, bihar, zapatua, meza batekin, 08:30ean.


Ziorla Autoak
PEUGEOT
Zabaldu berria
Salmenta eta tailer zerbitzua
Musakola auzoa 21 (Roneo ondoan) ARRASATE
Tel: 943 77 01 44


Estreinatu mugikorra
musu-truk:
0€*
Gainera, Motorola bakoitzarekin, argazki-album paregabe hau jasoko duzu
opari
Samsung E350
Motorola V360
Motorola V3
* Euskaltel Hautaketa edo Euskaltel Leihoa bezeroentzako PSPa, betiere 15/03/06 baino lehen kontratatzen badute ondoren ordaintzeko etxeko zerbitzua, 6 €-ko hileko kontsumo minimoarekin, eta 18 hilabetez irauteko konpromisoa hartzen badute. Muga: Terminal eta album bakoitzeko 100 ale.
ROUTER COMUNICACIONES, S.L
Errebal, 15
Eibar
943 700 369
Maalako Errebala, 8
Arrasate
943 712 781
Euskaltel
-en Banatzaile Ofiziala

Debagoienean hiru albaitarik kontrolatzen dituzte dauden 600 ustiapenak. Ganaduarekin egiten dute lan gehienbat, baina animalia guztiak zaintzen dituzte. Labelerako diren oilaskoak ere, adibidez, eurek eramaten dituzte Zegamako hiltegira. Animaliak oso kontrolatuta daudela ziurtatu digu Juliok; bi urtean behin, buru guztiei egiten diete odol analisiak.

**Julio Etxeberria** > Albaitaria

# "Kontsumitzaileendako ez du inolako arriskurik hegazti gripe horrek, ziur"

OIHANA ELORTZA > BERGARA

**Hegazti gripea influentza bat dela esan digu Julio Etxeberriak, hegaztien birus bat. Animalia bakoitzak bere birusak dituela dio; eta gizaki gripea ere influentza ei da.**

**Nola pasatzen dio hegazti batek besteari gripea?**

Biriken bitartez harrapatzen dute, arnasketaren bidez. Behin gorputz barrura sartuta, simaurrean ere egoten dira birusaren arrastoak. Hiltzen direnean, bi gauza analizatzen dira: simaurra eta hegaztiaren barrua, zintzurhestetik hodia sartuta.

**Beste animalia bati pasa diezaioke?**

Birmoldaketa genetiko handiak gertatzen badira, bai, kontaktu handia baldin badute animaliek.

**Eta gizakiari?**

Gripe horrek badu ezaugarri hori: gizakiengana irits daitekeela, kasu jakin eta arraro batzuetan bada ere.

**Hegaztia manipulatuta?**

Ez. Bi ezaugarri gertatu behar dira batera gizakiak hegazti gripea harrapatzeko: batetik, toki berean elkarrekin bizi izatea animalia kopuru handia eta pertsonak. Asian gaixotu diren gehienak, adibidez, umeak edo gazteak izan dira. Garbitasun eskasa dute eta umeetan oso normala da eskuak ahora eramatera. Hori askotan errepikatzen bada, azkenean gorputzera sartzen da. Ezinezkoa da Lehen Munduko gizaki heldu bati hori gertatzea.

Bestalde, albaitariok eta espezialistok gara kutsatzeko arriskuan gaudenok. Gu askotan egoten gara milaka animalia dauden abeletxeetan. Eta gurekin batera, ekoizlea.

**Eta hemengo baserritarra ere arriskuan dago?**

Ez, ez. Hemengo oiloak ez dira baserritarrarekin bizi. Normalean kanpoan egoten dira.

**Nola atzeman dezake ekoizleak gaitza heldu dela?**

Gaixotu ahalaz bat hiltzen dira hegaztiak; guztiak, gainera. Ez da hiltzen gaur bat eta hiru egun barru beste bat. Ahateei, kosta egiten zaie gaixotzea, baina beste batzuei gaitza pasatzeko gai dira gero. Beste hegaztiak, aldiz, harrapatu eta berehala hiltzen dira, kolpera.



O.E.

NEURRIAK

**"Baserritarrek ez dute neurri berezirik hartu behar momentuz, geuk abisatuko diegu bestela"**

LABELA

**"Hemengo oilaskoak jan ezean, Labela arriskuan egongo da eta kalitatea galduko dugu betiko"**

AFRIKA

**"Afrikak behar du laguntza; hemen ez, baina han kalte handiak egin ditzake gripeak"**

**Argi dago gaitza hona ere helduko dela, ezta?**

Helduko da, bai. Padura handietara helduko da: Guadiana, Duero eta Ebroko paduretara, besteak beste. Euskadi libratu egingo da, ziurrenik. Afrikatik datozen hegaztiak ez dira hemendik pasatzen, beste bide bat hartzen dute, eta ez dut uste gaitz horrek asko ukituko gaituenik.

**Ze arrisku ekarriko ditu eta norendako?**

Kontsumitzaileendako arriskurik ez, oilaskoak zein arrautzak jateko, ziur; ekoizleendako, arreta egoera eta albaitari, teknikari eta espezialistendako, lan handia. Egunero hiltzen dira hegaztiak elkarri mokoka ibili direlako, alanbrearekin trabatu direlako edo makalak direlako, eta lan eskerga ekarriko digu horrek.

**Ze neurri hartu behar ditu hemengo baserritarrak?**

Momentuz, ez du neurri berezirik hartu behar. Gaitza datorrenean emango ditugu aholkuak: hegaztiak barrura sartzeko denboraldi baten, adibidez. Urkuluko ahate batek positiboa ematen badu, ordea, neurriak bestelakoak izango lirateke. Adibidez: kilometro barruan dauden hegaztiak, hil; hiru kilometro barruan daudenak barruan gorde eta kontrolpean izan eta hamar kilometro barrukoak, barruan sartu kontrolik gabe.

**Ehiza debekatuko duten beldur dira ehiztariak.**

Datorren udan, adibidez, epidemia Europan izaten bada, agian debekatuko dute, baina bestela ez dut uste.

**Zer gerta dakiguke hegazti gripea duen oilasko bat jaten badugu?**

Ezer ez. Hildako oilaskoa labean sartzen baduzu, birusa hil egiten da 60-70 gradura. Baina hori gertatzea ezinezkoa da, elikagaien kontrolak oso zorrotzak dira eta. Horrek ez nau kezkatzen. Arazoa ez da hegaztia, arriskua da Afrikara joatea. Jende asko hiltzen da han egunero eta ez dakizu gosez edo gaixorik den, hori ez du inork kontrolatzen.

**Zer da gerta daitekeen okerrena?**

Pertsona batek harrapatzea gizakiaren gripea eta hegaztiarena biak batera. Birusak biderkatu egiten dira barruan eta okerrena izango litzateke bi birus horiek batera hirugarren bat sortzea, hegaztiak hiltzeko eta pertsonak kutsatzeko ahalmena duen birusa. Horri diote beldur. Horri aurre egiteko, kontrolak behar dira. Laguntza handien Afrikak behar du. Europan hori gertatzea ezinezkoa da, baina Afrikan eztanda egin dezake, neurririk hartzen ez bada.

**Hemengo animaliak ondo kontrolatuta daude?**

Oso kontrolatuta daude. Betidanik hartu dira neurriak kalitatea eta segurtasuna bermatzeko. Espainiako albaitariak, gainera, Europako onenak ei gara. Hala ere, jendeak hemengo hegaztiak kontsumitzeari uzten badio, ekoizleek oilaskoak hazteari utziko diote eta Zegamako Label hiltegia itxi egingo dute. Eta Labela galtzen badugu, akabo. Kontrolatuko dute haragia, baina kalitatea galduko dugu betiko.



zabalik

**Mikel Lezamiz**

# Mundua okertzen ote dabil? Ez, ez, ez

Pobreek dena daukate aurka. Saharar herrialdeei janari eta ondasun denak (eskasak benetan ere) urak eraman dizkie. Asiatik Europarantz datorren hegaztien gaixotasunak pobreei eragiten die gehienbat. Mexikar ikatz meatzari pila bat lurpean daude bizirik irteteko aukera gutxirekin. Filipinetako lurrikarak herri xume bateko milaka hildako eta desagertu sortu ditu.

Eta han eta hemen sortzen diren istripu edo arazo nagusiek jende xumea kolpatzen dute orokorki. Oso gutxitan izaten da jende aberatsak etxeetan kalteak izan dituztela edo ez dakit zein lurrikarak edo uholdek eraman dituela. Ezbeharrak, ezbehar larrienak, beti maila berekoei gertatzen zaizkie.

**"Ezbeharrak beti maila berekoei gertatzen zaizkie"**

**"Mugimendu sozialak adi daude edozein astakeria politiko, ekonomiko edo ekologikori aurre egiteko"**

Hala ere, nik etorkizuna ez nuke ilunegi ikusiko. Egia da mundu honetan gero eta pobre gehiago dagoela eta gutxi batzuen eskuetan dagoela aberastasun gehiena. Baina gizartea aldatzen ari da eta hobeto prestatzen ari da eta etorriko da aldaketa. Bestela ikusi Hego Amerikan gertatzen ari den aldaketa soziopolitikoa.

Lan egin behar dugu eta konbentzituta borrokatu mundu hau hobetu ahal dugula eta gizartearen eraldaketa bat sortu gizarte justu, berdintsuagoa eta solidarioa lortuz. Gizarte zibila duela urte batzuk baino prestuago dago orain eta mugimendu sozialak sare bat bezala antolatzen ari dira elkartuago eta adi edozein astakeria politiko, ekonomiko edo ekologikori aurre egiteko.

Eta gero eta zailago izango dute betiko jauntxoek beraiek nahi dutena egitea munduko edozein aldetan.

**Goienkaria**

**Argiraratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
**Lehendakaria** Estepan Plazaola **Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Sailetako arduradunak** Ubane Madera (Herriak), Edu Mendibil (G2a), Iñaki Iturbe (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Leire Kortabarria, Aintzane Irizar, Irati Agirreazaldegi **Oinarrizko diseinua** Goio Arana **Maketazioa** Alex Azkarate **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Natali Martinez, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Itxaso Berezibar **Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**
**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxatila • Tel.: 943 25 05 01 • Faxa: 943 25 05 13
Posta-e: goienkaria@goiena.com

**ORDEZKARITZAK**
**ARRASATE** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasate@goiena.com
**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93
Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.935 ale • **Difusioa:** 17.680 ale.

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK

Eusko Jaurlaritza · Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo kolboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

herritarrak galdezka

## ARETXABALETAKO IGERILEKUAK

**Aihoa Aranburu aretxabaletarrak zera galdetzen du: Aretxabaletan, kirol etxe berri bat egin edo dagoena berritzeko proiektua dago, eta honen berri GOIENKARIAk eman zuen orain dela aste batzuk. Dena den, kanpoko igerilekurik egongo den argitzea nahi nuke.**

Aretxabaletako kirol teknikariak, Asier Mujikak zera erantzun digu: "Urte guztian erabili ahal izateko igerilekuak egin gura dira, uda partean eguzkia hartzeko gunera sarrera izango dutenak. Urte guztian erabili ahal izateko esaten dugunean, zera ulertzen da: neguan itxita egon beharko direla, eta udan kanpoko itxura eman beharko zaiela. Zela? Proiektua egingo duten arkitektoen eskuetan geratzen da hori: sabaia zabalduz edo alboko hormak zabalduz... Bai espazioa, bai giza baliabideak aprobetxatzeko erabaki da hala egitea; izan ere, udan 2 edo 3 hilabete bakarrik erabil daitezke kanpoko igerilekuak eta orduan ere, hainbat egunetan edo momentutan eguraldiak ez du laguntzen".

## AP-1 AUTOBIDEA

**Irakurle batek galdetzen du: zenbat sarrera edo irteera izango ditu AP-1 autobideak Arrasaten?**

AP-1 autobideko egitasmoan jasota dagoenaren arabera, bakarra izango du, oraingoa; hau da, dagoeneko zabalik dagoena: Epelekoa. Arrasaten ez da beste loturarik izango autobiderako. Eskoriatzan izango da hurrengoa. Hortaz, gure ibarrean, honako sarrera-irteera hauek izango ditu AP-1 autobideak: Bergara Iparraldekoa (Ondartzakoa), Bergara hegoaldekoa (Ipiñarrikoa), Epelekoa eta Eskoriatzakoa, Apotzaga inguruan.

**Galdera egiteko:**
Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaligu-zu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagiokionarekin. Galdera egiteko bideak:
- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxez: 943 25 05 01
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

## ASTE SANTUA

**Urtetik urtera Aste Santua ospatzeko data aldatu egiten dela-eta, irakurle batek galdetu digu zela edo zerk zehazten duen oporraldi sasoi hori noiz izango den.**

Arrasaten bizi diren Aita Frantziskotarrengana jo dugu horren erantzun bila. Hango buru Aita Carlos Urbietak azaldu digu guztia. Hark esplikatu digu judutarren egutegiak zehazten duela Pazkoa noiz tokatzen den, eta han dagoela ipinita Pazkoa izango dela Nisanen 14an. Nisan da judutarren hilabete bat. Judutarrak Egiptotik atera zireneko hilabetea, hain zuzen ere. Judutarren historia nazionala hilabete horretan hasi zen. Hala, judutarren egutegiari begira egon barik egun hori gurera ekartzeko ilargiaz baliatzen dira. Hain justu ere, ilargi betea dagoenean, hurrengo domekan Pazko Domeka ospatzen dute.

marrazkiz

**Alex Ugalde**




# Luistxo Fernandez, euskaltzain

**Joxe Arantzabal**
www.goiena.net/blogak/faroa

Behin Atxaga onartuta euskaltzain gisa, nire ustez hurrengo euskaltzaina, Patxi Altuna ordezkatuko duena, Luistxo Fernandez izan beharko litzateke. Ados bazaude, utzi erantzun bat mezu honetan.

Euskaltzaindia odol berria sartu guran dabil akademian bertan, filologiatik harago lan egiten duen jendea. Andres Urrutiak adierazi duenez, idazleak, itzultzaileak, kazetariak eta irakasleak, besteak beste, sartu behar dira Euskaltzaindian, edo horrela ulertu diot nik, behintzat.

Euskaltzaindiak behar du errebultsibo bat, lagunduko diona egokitzen ezagueraren gizartera, paperaren morrontza utzi eta sareari zukurik handiena aterako diona, euskaldun guztiok balia gaitezen euskal akademiaren lanaz, eta uste dut Luistxo Fernandez izan daitekeela, beste batzuekin batera, errebultsibo hori.

# Egile eskubideen kontrako alderdi politikoa Suedian

**Imanol Soriano**
www.goiena.net/blogak/klikbikoitza

Suediako hainbat internautak alderdi politiko berria sortu dute. Egile eskubideek eragindako debekuez nazkatuta alderdi pirata sortzea erabaki dute. Piratpartiet du izena eta datorren irailean

plazara

**Gero eta gertuago ei dagoen bake prozesuarekin zerikusia duten aktore nagusiek, ETAk eta Madrilgo Gobernuak, urratsak eman eta darabilten kartak agerian uzteko une dela dio Ezker Batuko ordezkariak. Prozesua lehenbailehen abiarazteararen beharraz ere badihardu; izan ere, hurrengo urteak hauteskunde urteak izango dira eta horrek prozesu guztia *kutsa* dezake.**

Ander Rodriguez *

# Kartak agerian uzteko ordua heldu da

Kezka eta zalantza, baina aldi berean itxaropena sortzen digun egoera berezian gaude azken hilabeteotan herritarrak eta politikoak. Eta egoera berezi horren arrazoia ez da larritasun ekonomikotik aterako gaituen Gabonetako Loteriaren zozketaren atarian gaudela, baizik eta sortu diren aukerak, hain justu ere Zapateroren gobernuak eta Batasunak sortu dituzten itxaropenak, bake prozesuarekiko. Izan ere, bi aldeek diote prozesua blindaturik dagoela eta berandu baino lehen lortuko dugula hainbeste espero dugun eszenatoki berria, bakea eta normaltasun politikoa lortzeko irteera pistan jarriko gaituena.

Hala ere, sarritan, esanak eta eginak ez datoz bat. Alde batetik, ETAk segitzen du mehatxu eta estortsio kanpainarekin. Bestetik, Madrilgo Gobernuak Terrorismoaren Aurkako Itunari, Alderdien Legeari eta kartzeletako politikari eusten die. Eta, hori gutxi balitz, horri guztiari gehitu behar zaio ETAko presoak zigor guztiak oso-osorik betetzera behartzen dituen sententzia, zeinaren ondorioz Kode Penalak ezartzen duen gehiengo zigorra, 30 urtekoa, bete beharko duten presoek.

Hortaz, itxaropenerako elementuak badirudi badaudela, baina horiek zuzenean inplikatuek bakarrik ezagutuko dituzte. Bitartean, herritarrak etorriko denaren zain gaude: bi aldeak (ETA eta Gobernua) jokatzen diharduten mus partida bitxiko —zuzenean inplikatuek bakarrik ezagutzen dituzte arauak— kartak noiz erakutsiko dituzten zain.



MIKEL ARROIABE

Bi aktoreak jokoa noiz iragarriko duten eskatzen dihardu aspaldian Ezker Batua Berdeak. Eta joko horren berri herritarrek izatea gustatuko litzaiguke, ziur egon gaitezen dena ondo doala. Horretarako, urrats garrantzitsua izango litzateke ETAk bortxakeria modu orori uko egitea eta PSOEren gobernuak bertan behera uztea Alderdien Legea eta espetxe politika aldatzea, presoak euren etxeetara gerturatuz eta egungo legea betez, hedabideen presioari erantzuteko *ad hoc* egindako lege erreformak bultzatu edo erraztu beharrean.

Azpimarratu gura dut aurrerapausoak lehenbailehen egitea premiazkoa dela, ze behin bake prozesua abiatuta, alderdi politikoon txanda iritsiko da eta geure ardura izango da lanean hastea elkarrizketa mahaia sortzeko; elkarbizitza eredu berria eztabaidatu eta adostuko duen elkarrizketa mahai erabakitzailea sortzeko. Baina, hau guztia urtea amaitu baino lehen egin behar da, ondorengo urteak, 2009ra arte, hauteskundeak *kutsatuta* egongo dira-eta.

**"Hortaz, itxaropenerako elementuak badirudi badaudela, baina horiek zuzenean inplikatuek bakarrik ezagutuko dituzte"**

**"Elkarrizketa mahaiak blindatu beharko ditu gai batzuk, hala nola, euskal gizarteak bere etorkizuna erabakitzeko daukan eskubidea"**

Ezker Batuaren iritziz, gainera, elkarrizketa mahaiak blindatu beharko ditu gai batzuk, hala nola, euskal gizarteak bere etorkizuna erabakitzeko daukan eskubidea, horixe baita euskal gatazka konpontzeko korapilo garrantzitsuena.

Egunotan entzun eta irakurri ahal izan dugu zertan datzan PSE-EEk planteatzen duen erabaki politikoa eta ikusi dugu dagoeneko mugak jarri dizkiola balizko alderdien mahai horri. Sozialistek diote bultzatu behar direla adostasun zabalak, abertzale direnen eta ez direnen arteko zeharkako adostasunak, eta ukatu nahi ditu erabateko gehiengoz lortutako adostasunak. Gure ikuspuntutik, ordea, mahaia lehenbailehen abiatu beharra dago, aurreiritzi eta aurrebaldintza barik, denon artean adostuz funtzionamendu arauak.

Baina, bide horretan aurrera egiteko beharrezkoa da lehenbizi aktore nagusiek, ETAk eta Gobernuak, hordagoak ahaztu eta kartak agerian uztea.

* Ezker Batua Berdeak taldeko bozeramailea Arrasateko Udalean

zer deritzozu?

www.goiena.net

## Bakea gertuago ikusten duzu?

| | |
|---|---|
| BAI | %57,2 |
| EZ | %42,8 |

**> AURKARIAK HURBILTZEN**
Gertuago bai; gertu? Ez dakit ba! Aurkariek keinuak egin dituzte eta badirudi hurbiltzen ari direla, baina honek luze joko du.
**Marijo**

**> EZ NAIZ OSO BAIKOR**
Zapaterok gorriak pasatu ditu Espainian Kataluniako estatutuaren gaiarekin eta zalantzak ditut ur handiagotan sartzeko gogorik izango ote duen. Sartzekotan oso garbi ikusi beharko du.
**Etor**

**> BAI, ETA-K NAHI DU**
Bai, gertuago dago, eta batez ere ETAk eta MLNVk bakea nahi dutelako, ez zaielako beste irtenbiderik geratzen.
**Koldo**

**> UGT-LAB**
Bakea gertuago ikusten dut. Badaude arrazoiak horretarako: UGTren eta LABen arteko hurbilketa, Lopez hainbestetan *Gara*-n elkarrizketatua izana...
**Itziar M.**

**DATORREN ASTEKO GALDERA:**
**Alaves, Athletic eta Reala bigarren mailan?**

Eman zure iritzia **www.goiena.net** atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzun interesgarrienak.

blog-top

Suedian egingo diren hauteskundeetan aurkeztuko da.

Alderdiaren web gunean esan dutenez hauteskunde kanpainan gai bakarra jorratuko dute. jabego intelektualaren abolizioa eta Interneten irabazteko asmorik gabeko artxiboen elkartrukea despenalizatzeko eskatuko du alderdi politiko berriak.

Iraileko hauteskundeetan 225.000 boto (botoen %4a) inguru lortu nahi dituzte parlamentuan eserleku bat lortzeko. Babes handia lortu dute dagoeneko. Suediako legeak hauteskundeetan parte hartzeko gutxienez 1.500 sinadura lortzea eskatzen baitu eta dagoeneko 5.000 eskuratu dituzte.

## 'Mihiluze'

**Eneko Bidegain**
www.goiena.net/blogak/barraraino

Lehendik ere ezaguna nuen Kike Amonarrizek eta Asisko Urmenetak daramaten lana, besteak beste Euskararen lardaskatzeko manerak emanaldiarekin. Orain *Mihiluze* telebista saioa eskaintzen digute ETBn. Jendeak euskaraz mintzatzera bultzatzeko iniziatiba ezin hobea iruditzen zait. (...)

Ikastoletatik ateratzen diren ikasleentzat euskara eskolako hizkuntza (beraz aspergarria) baldin bada, ez baditu baliabideak ematen karrikan mintzatzeko (joan den larunbatean, UEUren jardunaldi batzuetan, Joxerra Gartziak Uztaritzen erran zuen bezala), ez da harritu behar gazteak ez badira euskaraz mintzo.

*Mihiluze*-k, eta besteak beste Asiskok eta Kikek egiten duten lanak oro har, anitz lagun dezake euskara tresna erabilgarri bihurtzen. Eta zorionak eman nahi dizkiet. Wazemank ere lan interesgarria egiten ari da alor horretan, eta, nahiz eta gipuzkera ukan ardatz eta alde horretatik pixka bat mugatua izan, lapurtar gisa ere anitz gustatzen zaidan saioa da. Ez da dudarik horiek ez direla aski izanen, hori bezalako iniziatiba gehiago behar dela. Euskal Telebistak, lehenik, bere bikoizketetan edo produkzio propioetan baluke Alkain, Asisko eta Kikeren aholkuen eta piperraren beharra. Eta ikastolek ere badute zer egin, euskara akademikoaz aparte, karrikako euskara ere irakasten...

koplak

AEDko bertso-eskola

## Aratusteak

Badatozela aratusteak
horra mozorro zerrenda
berez garena gorde nahiean
gehiago nabarmentzen da.

Aurten interes politikoak
karikaturataz datoz
legeak hatzamar horituez
makroepaiketak zirkoz.

Ta beste batzuk, nola motza den
koplatarako tokia
urte osoan mozorrotzeko
daukazue aitzakia.

# Biharko garaipena

**Marijo Altube** (eta Ereitten herri ekimeneko beste hiru hautetsi)
Oñati

Bi urte eta bederatzi hilabete pasa dira gure herrian apartheid egoera gauzatu zela; Ereitten Herri Ekimenak ia 1.600 bozka jaso zituela, 1.600 oñatiarri zegozkienak; baina Madriletik inposaturiko Alderdien Legearen ondorioz, bozka hauek legez kanporatu zituzten eta zegozkion lau hautetsien aulkiak inolako lotsarik gabe bi alderdi politikoen artean banatu zituzten; beraz, denbora hau daramatzagu Ereitteneko lau hautetsiok gure oinarrizko eskubideak egunero eta 24 ordutan zehar ukatuak.

Baina, hau gutxi iruditzen omen zitzaien Oñatiko PNV-EA koalizioko kideei eta apartheid egoerari beste buelta eman diote, jazarpena haratago eramanez: Andoni Gartzia alkateak bere dimisioa aurkeztu ondoren; ordezkoa, alkatesa berria orain arte Alderdien Legearen aplikazioaren ondorioz oñatiarroi inposatu diguten Lurdes Idoiaga —14. postuan zegoena honoko koalizioko zerrendan— zinegotzia onartu zuten otsailaren 23ko Osoko Bilkuran (Tejeroren estatu kolpea betetzen den 25. urteurrenaren egun berean). Lehen aldiz Franco hil zenetik, Oñatiko herriak espainiar lege batek inposaturiko alkatesa bat izango du; herriak bere botoekin aukeratu ez duen lehen alkatesa izango du. Honela erantzuten diozue Ereittenetik hainbat Osoko Bilkuratan mahaian jarritako proposamenari.

Merezi du Oñatiko herriak bere burua independentetzat jo, Ereittenen botoak bereganatu eta PNV-EA koalizioaren interesak defendatuko dituen alkatesa izatea? Inposaketen menpean gure bizimodua garatzea? Inposaturiko alkatesa batek gu ordezkatzea edonon eta edonoren aurrean? Inposaturiko alkatesa baten pean dagoen gobernu batek gure diruen kudeaketa burutzea? Inposaturiko alkatesa bat izan genuela aitortu behar izatea gure ondorengo belaunaldiei? Ez.

Eta oraindik eurak dira etengabe beraien aurkako jazarpena salatzen ari direnak. Gaiztoak eta erasotzaileak, berriz, ezker abertzaleko kideok. Zein erraza den mota horretako akusazioak publiko egitea. Jazarpenari buruz hitz egiten dute, baina benetan jazarpena jasaten duena herria bera da, herriak bozkatu duena ez dutelako alderdi hauek errespetatzen. Jazarpenaren biktimak kargu instituzionala lapurtuta dugunok gara.

Denboraz zabiltzate egoera larri hau ekiditeko. Arduraz jokatzea eskatzen dizuegu. Sarritan ez dakit ametsa den edo errealitate baten menpean bizi naizen. Baina, zoritxarrez, esnatzen naizenean eta hankak lurrean jartzen ditudanean errealitate gordinaren aurrean gaudela konturatzen naiz, denon artean aurre egin beharra diogun errealitatearen aurrean. Eta noski egingo diogula aurre; baina lasaitasunez, betidanik eta oso garden erakutsi izan ditugun fitxekin jokatuz. Nahiz eraso berri hau jaso PNV-EA koalizioaren aldetik, ezker abertzaletik eskua luzatuta jarraitzen dugu; baldin eta arduratsu jokatzen baduzue.

Beraz, honoko proposamen hau luzatzea nahi dugu: amaitu dira aitzakiak, frogatu da posible dela legearen bidetik ere apartheida gainditzea. Azkoitian 182.2 artikuluaren aplikazioa eman da (Oñatin ere bai; baina PPren aldetik), hori da bidea eta edonon egin daiteke, borondatea baldin badago.

Logikoa da XXI. mendean, modernitatearen mendean demokraziak (antzinako hitz zoragarri honek, bere esanahi garbienean aplikatuz) horrelako erasoak jasotzea? Nola demokratizatuko ditugu gure instituzioak kolore bateko agintariak izanik? (Gure Udaletxean 17 hautetsietatik 14 dira PNV-EAren koaliziokoak).

Apartheidak arduradun zuzenak ditu, egoera bere horretan mantentzen dutenak. Horregatik egin behar da apartheida gainditzeko ahalegina. Adierazi, amaitzeko, denok garela beharrezkoak egoera ez demokratikoa gainditu nahi badugu. Une politiko oso garrantzitsua bizitzen ari gara, aldaketa politikoaren unea. Apartheida gainditzen bada, prozesu politikoa bultzatuko dugu; apartheida mantentzen bada prozesuarekiko zama izango da. Ezin diogu atea itxi 25 urteotan gertatu ez den aukera historikoari. Denok jarri behar dugu gure hazitxoa. Gu prest gaude honoko urratsa emateko.

# Kolokan, 55 lanpostu

**Felix Hernandez** (Aralarko kidea) > Arrasate

Gaur egun ekonomia neoliberalista batean murgilduta gaudenez, lantegi batek bere ateak ixten dituenean ez gara batere harritzen. Kanpoan gertatzen diren bitartean, urrin gelditzen zaigu.

Azken aste hauetan zurrumurru bat zabaldu da: Arrasateko Gamei enpresak ateak itxiko dituela. Azkenean, Fagor Arrasate Kooperatiba elkarteak zurrumurruak baztertu eta errealitatera ekarri gaitu.

Gamei enpresa azkenaldi honetan oso gaizki dabil eta atea itxi aurretik Fagor Arrasate Kooperatiba Elkartearengana jo du laguntza eske. Bien arteko elkarrizketaren ondorioz irtenbide bat topatu dute; bai gehiengo akziodunekin, bai langileekin. Langileen lanpostuak mantentzea egoera honetan txalotzekoa da. Denok zati bat galdu behar dugu akordio batera heltzeko, denok?

Gizaki egoista hutsa gara eta hala demostratu dute akzioen %3,5 dituzten jabeek, hauek ez dute galdu nahi akzioen %3,5; egoera triste honetatik etekinak ateratzea nahi dute eta erosketa prozedura eta langileen lanpostuak arriskuan jartzen ari dira. Bost axola 55 langile kaleratu edo ez.

Hau denuntziatu nahi dut. 55 langileen lan egiteko duten eskubidea aldarrikatzen dut. Akziodun txiki hauei erantzukizuna eskatzen diegu, lanpostuak mantentzeko. Arrasatek ezin du jasan 55 lanpostu galtzea. Gora, Arrasateko langileak.

# Eskolak euskaldundu egin behar du

**Rebeca Rodrigo Marco eta Miriam Eizagirre Pujol**
Debagoiena

Gara bi neska, 19 urtekoak, bata donostiarra eta bestea Portugaletekoa. Mondragon Unibertsitatean ezagutu dugu elkar, eta nahiz eta bi zonalde linguistiko ezberdinetatik etorri, bada batzen gaituen errealitate bat.

Gure herriko hezkuntza sistemak (Donostian zein Portugaleten) ez gaitu euskaldundu. Biok D ereduan ikasi dugun arren, gaur da eguna unibertsitateko irakasleak euskaltegira joateko gomendioa eman diguna. Beraz, gurasoak bere garaian egindako inbertsioa, kultural zein ekonomikoa, eredu politika kaxkarrean eduki du galbidea.

Argi gelditu da ereduen politika honek ez dituela ikasleak euskalduntzen, gure kasua adibide garbia. Horregatik bat egiten dugu *Bai eskolak euskalduntzeari* kanpainarekin.

Guk sinatu egingo dugu kanpaina honen alde eta zuek ere sinatu dezazuen animatzen zaituztegu.

# 23F+3 ekimena

**Jose Antonio Zangitu**
Aretxabaleta

2005eko azaroan, hainbat koadrila elkartu ginen karnabal egunerako hainbat hobekuntza egiteko asmoarekin: herri bazkaria, lokala(k), beste irizpide batzuk zehaztu sari banaketarako… Hasiera batean, hiru koadrilak osatutako bilerak ziren, baina koadrilak interesatzen joan ziren heinean kopuru hori handitzen joan zen.

Argi eta garbi esan beharra daukagu sekula ez dugula inposatzea nahi izan aurkeztutako proposamena (esaten dugun hau kultura zinegotziak eta kultura teknikariak berretsiko dutelakoan gaude), ezta hain gustuko ditugun Atxabaltako karnabalen gainean mahai-inguru bat martxan jartzea ere. Gure asmoak apalagoak izan dira: udalaren laguntzarekin aurkeztutako proposamenak aurrera eramatea.

Hasiera batean, interes handia zutela zirudien eta gauzak horrela, azaroaren 19an biltzeko aukera izan genuen. Bilera horretan proposamenak puntuz puntu azaldu genizkien eta elkarlanerako prest geundela argi utzi genien. Erantzutekotan geratu ziren eta asteetan ez genuen erantzunik jaso: ez genuen erantzunik jaso urtarrilera arte.

Egoerak horrela eskatuta alkate, kultura zinegotzi eta teknikariarekin hitzordua eskatu genuen. Hasierako arrosa bidea arantzez josi zen: trabak bakarrik jartzen zituzten. Beraien hitzetan, ez genuen "iniziatibarik" eta gure proposamenak "eskaera hutsak" ziren. Bileratik dezepzioarekin, tristurarekin, kezkarekin eta haserrearekin irten ginen gure proposamenak gutxietsi zituztelako. Proposamen horiek 400 sinaduraz babestuta egoteari ez zieten inolako garrantzirik eman.

Azken batean, gure proposamen guztietatik herri bazkaria antolatzea lortu genuen. Berau antolatzea oso ondo ikusten dugu eta bide horretatik jarraitzeko eskatzen diegu; baina era berean, beraien inplikazioa, gogoa, nahia, ilusioa eta interesa azaltzea ere ez litzatekeela soberan egongo irizten dugu.

# Auzo Lagunen txantajeari erantzunez

**Elsa Sanchez** (LAB zerbitzuak)
Debagoiena

Aita Menni ospitaleko sukaldearen kudeaketa Arrasateko Auzo Lagun kooperatibaren esku dago 2002. urtea geroztik. Langileontzat, hala ere, ez dira urte lasaiak izan kooperatibak mandoa hartu duenetik. 2004ko apirilean enpresak langileei egutegian erabateko aldaketa bat egiten die: errekuperagarriak ez diren jaiegunak lan eginez gero, ordura arte urteetan izan zuten lan egindako egun bakoitzarengatik egun eta erdiko konpentsazioa galduz. Auzo Lagunek nahiz eta bi urtetan zehar langileek eskubidez zuten konpentsazio era hori onartu, 2004ko apirilean, bat-batean, eskubide hori ez onartzearen jarrera erakusten du. Langileek, zenbaitzuek 13 urteetan izandako eskubidea bat-batean besterik gabe urratua ikusten dute.

Enpresako zuzendaritzarekin hitz egin eta iritziz aldatzen ez zutela ikusirik, gaia Preco-ra eramaten da arbitro batek gatazka honen inguruan erabakia hartu dezan. 2004ko azaroan Laudo batek langileei ordura arte zuten eskubidea hartutako eskubide gisa onartzen die. Auzo Lagunek, ordea, eta giza baliabideetako departamentu-buru Xabier Azanzak bereziki ez du Precok emandako laudoa onartzen, ez du aintzakotzat hartzen, sikiera; guk, ordea, gehiegikerian oinarri duen jarreraren aurka eta gure eskubideen defentsan gaia epaitegietan sartzen dugu. Bi erreklamazio bideratu ditugu, biak irabazi, bietan langileen eskubideen aldeko ebazpena izan dugu.

Honen aurrean, enpresak gutun batekin erantzuten du: martxoaren 13tik aurrera justifikatu gabeko aldaketa bat emango dela egutegian, gure iritziz zeharo kaltegarria dena orain arteko funtzionamenduarekin konparatuz. Hori gutxi balitz, Auzo Lagunek eta Xabier Azanzak txantajea erabiltzearen hautua egiten dute, eta enpresak oso berea den harrotasunez, langileei beraien lehenagoko egutegiarekin jarraitzearen truke, beraien eskubideei uko egitea eskatzen die, legeak eta epaitegiek zer dioten aintzakotzat hartu gabe.

Hau ikusirik, langileen eskubideak txantajea erabiliz ukatzen duen enpresa eredua sortu al dugu kooperatibetan?; hau al da kooperatibismoaren ezaugarri?

**IRAKURLEAREN GUTUNAK** Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Telefonoa:
943 25 05 01
Faxa
Faxa:
943 25 05 13
Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com


PRESTA ZAITEZ
UDAKO OPORRETARAKO!
Martxoaren 31 baino lehenago
bidaia erreserbatuz gero...
KARIBEA - IA '2x1'
Bavaro hondartza, Punta Cana, Puerto Plata, Cancun,
Maia Erribera, Varadero, Esmeralda hondartza...
ITSAS BIDAIAK - %50erainoko deskontua
Mediterraneoa, Adriatikoa eta Greziako Uharteak, Karibea...
Martxoaren 16 baino lehenago
bidaia erreserbatuz gero...
KOSTA - %20rainoko deskontua
KANARIAR UHARTEAK ETA TUNISIA
%10erainoko deskontua
Eta Aste Santurako ere...
EUROPA ETA UHARTEAK
martxoak 18a baino lehenago
bidaia erreserbatuz gero...
Deskontu bereziak
Zure konfiantza saritu nahi dugu!
Postal bat bidaltzen badiguzu, urte amaieran egingo
dugun zozketan parte hartzeko aukera izango duzu:
bainuetxe baten aste bukaera zoragarria!
BIDAIA HANDIETAN ESPEZIALISTAK GARA
Costa Rica, Argentina, Australia, Zeelanda Berria...
Arrasate Bidaiak
CIE 2214
BIDAIA - AGENTZIA ELKARTUA
marsans
viajes
Kontzeziño kalea 12 - ARRASATE
Tel.: 943 71 25 30 Faxa: 943 79 74 45
E-posta: d4051@marsans.es

BOLU SUKALDEAK



AENOR
AENOR
Empresa Erregistratua

2000 eguneko garantia. Aurrekontua konpromiso gabe.

Bolu 22 -behea . Bergara . Telefonoa eta faxa: 943 76 27 02

ELKAR
ELEKTRAGINTZA

ZURE ZERBITZURA!!

Mota guztietako instalazioak




943 76 00 00
Koldo Eleizalde, 8.
BERGARA

# Herriak

**Arrasate** > 18-23 **Bergara** >24-29 **Aretxabaleta** > 31-33 **Eskoriatza** > 34-35
**Antzuola** > 36 **Aramaio** > 37 **Elgeta** > 38 **Leintz Gatzaga** > 39




**> ARRASATE**
Gameiko langileek arrasatearren elkartasuna eskatu dute **> 19**



**> BERGARA**
Mittal Steelek Arcelorren zein zati hartuko duen kezka dute **> 24**



**> ANTZUOLA**
Karmen Irizar askatuko dute, bost urte preso egon ostean **> 36**



**> ARAMAIO**
Aita Mennirako egokitutako garraio barik segitzen dute **> 38**




**ERAGILEAK** Debagoieneko eragile sozialak elkartu ziren astelehenean Arrasateko San Frantzisko Xabier Ikastolan, *Eskolak Euskaldundu* kanpaina bultzatzeko. U.M.

**DEBAGOIENA** > HEZKUNTZA EUSKALDUNTZEKO KANPAINA

# D eredua nagusi den arren, eskolak euskalduntzeko beharra ikusten dute

**SINADURA BILKETA**
100.000 sinadura batu gura dituzte, hizkuntza politika euskaldunagoa eskatzeko

**HITZORDUAK**
Herri guztietan sinatu ahal da martxoaren 18an, apirilaren 8an eta maiatzaren 6an

**UBANE MADERA** > DEBAGOIENA

Irakaskuntzan hizkuntza politika berria ezar dezaten eskatzeko kanpaina abiarazi dute Euskal Herrian. *Eskolak Euskaldundu* da kanpaina horren izena eta 100.000 sinadura batu gura dituzte. Otsailetik maiatzera bitartean ibiliko dira sinadura bilketan, eskualdez eskualde. Eta Debagoienean ere halaxe egingo dute, la jakinarazi zuten astelehenean, Arrasateko Ferixalekuan egindako prentsaurrekoan.

Halaber, jakinarazi zuten herri bakoitzean eratu dela talde eragilea kanpaina bideratzeko. Eta badituztela sinadurak batzeko zenbait hitzordu zehaztuta ibarreko herri guztietan: martxoaren 18an, apirilaren 8an eta maiatzaren 6an, hain zuzen.

100.000 sinadurak batzea lortzen badute, horiek EAEko, Nafarroako eta Frantziako zenbait erakunderi aurkeztuko dizkietela esan zuten, gaur egungo hizkuntza politikan aldaketak egin ditzaten eskatzeko.

**ASKOK AZTERKETA GAINDITU EZ**

Prentsaurrekoan datu kezkagarriak eman zituzten. Esaterako, esan zuten hiru ikasletik bi ez dela eskolan euskalduntzen. Eta D ereduko ikasleetatik %32k ez luketela euskararen ezagutza neurtzen duen azterketa gaindituko. Halaber, salatu zuten euskal ikasleen eskubideak urratu egiten direla, bi modutan: "Batetik, ikasleen gehiengo zabalari euskara ezagutzeko eskubidea ukatzen zaio; eta bestetik, Euskal Herriko hainbat eremutan (Nafarroan eta Iparraldean, bereziki) euskaraz ikasteko aukera bera ukatzen zaie". Aditzera eman zuten gero eta nabarmenagoa dela hizkuntza politika aldatzeko beharra. Horren harira, 2007rako hizkuntza politika berria ezartzea eskatzen dute, bestela "ez delako lortuko belaunaldi berriak euskalduntzea".

Kanpaina hori babesten dute, besteak beste: Kontseiluak, Topaguneak, Ikak, EHEk, AEK-k, Euskal Konfederazioak eta UEUk.

## Eustat-en arabera, EAEko haur hezkuntzan, hamar ikasletik seik D eredua aukeratu zuen

Eustat-ek 2004-05 ikasturtearen gainean emandako datuen arabera, "oinarrizko irakaskuntzako ikasle gehienek D eredua aukeratu zuten; %26k A eredua aukeratu zuten eta %23k B eredua". Datu zehatzagoak ere eman dituzte: aurreneko mailetan D eredua da nagusi. Baina batxilergoan, hamar ikasletik bostek ikasketak espainolez egitea erabakitzen du. Lanbide heziketari begiratuta, berriz, A eredua aukeratzen dute ikasleen %83k eta ikasleen %15ek bakarrik aukeratzen dute D eredua. Azken urteotako ibilbideari begiratuta, A ereduak maila guztietako matrikulazioetan ikasleak galdu ditu eta D eredua maila guztietan finkatu da. EAEko lurralde historikoen artean, berriz, Gipuzkoan dago D eredua hedatuen (%67); Bizkaian %47k aukeratzen dute eta Araban A eredua dago beste bien aurretik.

# zerbitzuak

## GUARDIAKO FARMAZIAK

### ARRASATE

| | | | |
|---|---|---|---|
| Astelehena, 27 | Español | Araba 14 | 943 79 18 65 |
| Martitzena, 28 | Ruiz | Maala 31 | 943 79 14 09 |
| Eguaztena, 1 | Zabala | Zarugalde 42-44 | 943 77 16 30 |
| Eguena, 2 | Azkoaga | Ferrerias 1 | 943 79 15 15 |
| Egubakoitza, 3 | Azkoaga | Iturriotz 17 | 943 79 79 99 |
| Zapatua, 4 | Corcuera | Maisu Aranbarri | 943 79 22 26 |
| Domeka, 5 | Irizar | Erguin 11 | 943 79 12 39 |

### BERGARA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Astelehena, 27 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Martitzena, 28 | Estella | Matxiategi 5 | 943 76 19 63 |
| Eguaztena, 1 | Mozos | Iparragirre 2 | 943 76 12 15 |
| Eguena, 2 | Camacho | Oxirondo 4 | 943 76 11 74 |
| Egubakoitza, 3 | Zabala | Barrenkale 25 | 943 76 16 87 |
| Zapatua, 4 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |
| Domeka, 5 | Guallar | San Antonio 5 | 943 76 11 05 |

### OÑATI

| | | | |
|---|---|---|---|
| Astelehena, 27 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Martitzena, 28 | Juldain | Kale Barria 6 | 943 78 11 28 |
| Eguaztena, 1 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Eguena, 2 | Anduaga | San Lorentzo 3 | 943 78 21 16 |
| Egubakoitza, 3 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Zapatua, 4 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |
| Domeka, 5 | Barrenetxea | Kale Zaharra 1 | 943 78 01 22 |

### ARETXABALETA

| | | | |
|---|---|---|---|
| Astelehena, 27 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Martitzena, 28 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguaztena, 1 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Eguena, 2 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Egubakoitza, 3 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Zapatua, 4 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |
| Domeka, 5 | Juan Fraile | Herriko Plaza 10 | 943 79 21 99 |

## TELEFONO JAKINGARRIAK

**((112))**
**SOS DEIAK**

### OSASUNA ETA LARRIALDIAK

Osakidetza (Larrialdia)....943 46 11 11
DYA ( Antzuola)....943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi)....943 76 55 76
Suhiltzaileak....943 78 28 00
Ertzaintza....943 53 47 20
Osasun etxeak
- Arrasateko ospitala....943 03 53 00
- Antzuola....943 76 62 23
- Aramaio....945 44 53 40
- Aretxabaleta....943 71 19 59
- Bergara....943 03 54 00
- Elgeta....943 78 90 27
- Eskoriatza....943 71 44 52
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 03 54 30

Udaltzaingoak
- Antzuola....943 76 62 46
- Arrasate....943 79 14 39
- Aretxabaleta....943 71 18 63
- Bergara....943 77 91 06
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

### GARRAIOAK

PESA....902 10 12 10
Taxiak
- Arrasate....943 79 12 22
- Aramaio....945 44 50 33
- Aretxabaleta....943 77 12 64
- Bergara....943 79 12 22
- Eskoriatza....943 71 40 59
- Oñati....943 78 03 65

### DEBAGOIENA

Mankomunitatea....943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga)....943 78 15 12
Nekazaritza ganbera....943 76 10 15
Zerga Bulegoa....943 76 58 63
Hondakindegi alternatiboak
- Arrasate....943 77 11 43
- Bergara....945 76 44 42
- Oñati....943 78 36 67

Kiroldegiak....
- Aramaio....945 44 53 35
- Arrasate....943 77 16 77
- Aretxabaleta....943 71 26 28
- Bergara....943 76 56 41
- Elgeta....943 76 82 84
- Eskoriatza....943 71 53 28
- Oñati....943 71 63 75

Kultura Etxeak
- Antzuola....943 76 60 65
- Aramaio....945 44 53 74
- Arrasate....943 77 01 05
- Aretxabaleta....943 71 10 27
- Bergara....943 77 91 58
- Eskoriatza....943 71 46 88
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 03 53

Udalak
- Antzuola....943 76 62 46
- Aramaio....945 44 50 16
- Arrasate....943 79 09 00
- Aretxabaleta....943 71 18 62
- Bergara....943 77 91 00
- Elgeta....943 76 80 22
- Eskoriatza....943 71 44 07
- Leintz Gatzaga....943 71 47 46
- Oñati....943 78 04 11

## URBANOAK

### ARRASATE

**Gorostizatik Eroskira (2 Linea )**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (2 Linea )**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35. IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obrero, Obenerreka, Makatzena, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**Gorostizatik Eroskira (1 Linea )**
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30. IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makatzena, Obenerreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea )**
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05. IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

### BERGARA

**San Lorentzo/San Juandik irteerak**
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00, 16:40, 17:20, 18:00, 19:00, 19:40 eta 20:20. Geralekuak: S. Juan (Torunsa), Amillaga (Manso), S. Lorentzo (Soraluzen), Matxiategi (Mizpildi okindegia), Zurradero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet), Labegaraieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

**Labegaraieta/Olabarrenetik irteerak**
07:20 , 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:50 (Olatik), 14:25 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:35, 18:25, 19:20, 20:00 eta 20:30. Geralekuak: Labegaraieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Mugertza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

### ARAMAIOKO AUTOBUSA

| Arrasate | Aramaio | Gasteiz |
|---|---|---|
| 07:00 | 07:15 | 08:00 |
| 10:00 | 10:15** | |
| 11:00 | 11:15 | |
| 12:00 | 12:15** | 13:00 |
| 15:15 | 15:30 | 16:15 |
| 17:20 | 17:35 | |
| 18:30 | 18:45** | 19:30 |
| 19:00 | 19:15 | |
| 21:10 | 21:25** | |
| **Gasteiz** | **Aramaio** | **Arrasate** |
| | 07:50 | 08:05 |
| 08:30 | 09:00 | 09:15 |
| | 10:15 | 10:30 |
| | 11:15 | 11:30 |
| 13:10 | 13:45 | 14:10 |
| 16:20 | 17:00 | 17:20 |
| | 17:35 | 17:50 |
| | 19:15 | 19:30 |
| 19:30 | 20:10 | 20:25 |

Izardun orduak, eskaeraren arabera, auzoetakoendako. Bezperan deitu: 629 54 59 23

# eguraldia

## DEBAGOIENEAN



**Zapatua, 25**
Hotzak berriro ere lekua utziko dio euriari, bereziki, goizean. Oro har, egun grisa izango dugu. Hori bai, tenperaturak igo egingo dira apurtxo bat.



**Domeka, 19**
Lainoak eta euria izango dugu domekan ere bai, batez ere arratsaldean. Gainera, berriro jaitsiko dira tenperaturak, dezente gainera.

## EUSKAL HERRIAN

Eguraldi goibela izango dugu beste behin. Lainoak, euria eta hotza. Horietxek izango dira ezaugarri nagusiak. Zapatuan, tenperaturak apurtxo bat epelduko diren arren, domekan atzera ere hartuko dute beheranzko joera. Oro har, etxean egoteko modukoa.



## TENPERATURAK

**MINIMOA** Astelehena, 20 — **1 ºC**

**MAXIMOA** Egubakoitza, 17 — **16 ºC**

**ASTEKO EURIA** (l/m²) — **69,9 L**

| | Max. | Min. | Euria |
|---|---|---|---|
| Eguaztena, 15 | 15 ºC | 2 ºC | 0,3 l/m² |
| Eguena, 16 | 14 ºC | 12 ºC | 6,8 l/m² |
| Egubakoitza, 17 | 16 ºC | 3 ºC | 3,1 l/m² |
| Zapatua, 18 | 16 ºC | 3 ºC | - l/m² |
| Domeka, 19 | 9 ºC | 9 ºC | 33,4 l/m² |
| Astelehena, 20 | 12 ºC | 1 ºC | 3,1 l/m² |
| Martitzena, 21 | 6 ºC | 5 ºC | 23,2 l/m² |

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak.

## ILARGIA OTSAILEAN



| Ilbehera | Ilberri | Ilgora | Ilbete |
|---|---|---|---|
| 2 | 10 | 17 | 24 |

# oharrak eta deialdiak

LEINTZ GATZAGA
**> Aratuste-zapatuko bazkarirako txartelak**
Biharko, Aratuste-zapatua, bazkaria antolatu du Kultura Sailak, eta txartelak erosteko azken eguna duzue gaur, egubakoitza, Labidea dendan. Helduek 20 euro ordaindu behar dute eta 15 urtetik beherakoek, 10.

OÑATI
**> Gurasoendako sentimendu tailerra**
Sentimendu tailerra antolatu du Udal Prebentzio Sailak 2-6 urte bitartekoen gurasoendako, Jone Beitialarrangoitia psikoterapeutaren eskutik. Ikastaroa doan da eta martxoaren 14an eta 21ean egingo da. Argibide gehiagorako, deitu 943 03 77 00 telefonora (Ainhoa).

ESKORIATZA
**> Irudi digitalen tratamenduaren gainean**
Irudi digitalak zelan tratatu irakatsiko dute gaur, egubakoitza, KZgunean, 18:00-20:00. Ikastaroaren bigarren zatia emango dute.

BERGARA, ELGETA
**> Posta elektronikoaz ikasteko aukera**
Posta elektronikoaren bidez komunikatzen irakatsiko dute hilaren 27an, astelehena, Bergarako KZgunean, eta martxoaren 1ean, eguaztena, Elgetakoan, 18:00-20:00.

ARRASATE
**> Internetez lana bilatzearen gainean**
Internet bidez lana bilatzearen gaineko ikastaroa emango dute eguenean, hilak 2, KZgunean, 09:00-11:00. Bestetik, astelehenean, otsailak 27, IT txartelaren azterketa egingo dute, 09:00-11:00.

ANTZUOLA
**> Bertso ikastaroa antolatu du Idolazek**
Bertso ikastaroa emango du Enaitz Alustitzak, Idolazen eskutik. Astean bi ordu izango dira. Martxoaren 1era arte eman daiteke izena, liburutegian eta Mox tabernan.

DEBAGOIENA
**> Baserrian erabilitako plastikoa batuko dute**
Baserrian erabilitako plastikoa batzera pasatuko dira hilaren 28an, martitzena, ohiko lekuetatik. Argibideetarako, deitu 943 76 25 47 telefonora.

OÑATI
**> Bigarren talde bat Pilates ikastaroan**
Pilates gimnasia ikastaroan, bigarren talde bat osatzen ari dira. Dagoeneko zortzi lagunek eman dute izena, eta interesa dutenek ahalik eta lasterren jo behar dute Gazte Informazio Bulegora.

ARETXABALETA
**> Elkartrukea Doneztebeko talde batekin**
Doneztebeko Burrunba taldearekin elkartrukea egin gura du Loramendik. Hori antolatzeko batzarra deitu dute martxoaren 2rako, eguena, udaletxe zaharrean, 19:00etan.

BERGARA
**> Umore-Ona elkartearen batzarra**
Martxoaren 7an, martitzena, egingo du Umore-Ona elkarteak batzar orokorra, Miguel Altuna institutuan, 19:00etan eta 19:30ean.

ARRASATE
**> Senideak zaintzen dituen emakumearen egoeraz berba egingo du Ixabel Otxoa adituak**
Emakumearen Nazioarteko Eguneko ekintzetako bat hitzaldi bat izango da, martxoaren 1ean, udaletxean, 19:00etan. *Zainduak izateko eskubidea; emakumeen intsumisioa* izenburupean, Ixabel Otxoa adituak senideak zaintzen dituzten emakumeen baldintzetaz eta eskubideetaz hausnartuko du.

**943 25 05 01**
**goienkaria@goiena.com**

BERGARA
**> Dendariek EHNA egiteko aukera dute**
Bihar, zapatua, tramitatu ahal izango dute EHNA Irizar jauregian (11:30-14:00).

BERGARA
**> 36an jaiotakoek bazkaria egingo dute**
1936an jaiotakoek Loiolako Kiruri jatetxean bazkalduko dute apirilaren 23an. Izena emateko azken eguna martxoaren 1a, eguaztena, duzue, honako telefonoetan: 943 76 21 99 eta 943 76 15 96.

LEINTZ GATZAGA
**> Sorginak taldeko emakumeen bazkaria**
Emakumeen Nazioarteko Eguna ospatzeko, bazkaria egingo dute Sorginak taldekoek martxoaren 11n. Izenematea Labidea dendan egin behar da.

BERGARA
**> Kinto afaria egingo dute 43an jaiotakoek**
Kinto afaria izango dute 1943an jaiotakoek martxoaren 4an. Izenemate epea martxoaren 1ean itxiko dute. Honako telefonoetara deitu: 943 76 22 90, 943 76 16 13 edo 943 76 53 22.

ARRASATE
**> Norbere burua defendatzen ikastekoa**
Emakumeendako norbere defentsaren ikastaroa antolatu dute Emakume Txokoan. Izenematea, 943 79 41 39 telefonoan.

**kale inkesta**

# Gertu duzu mozorroa? Kanpoan ospatzen dituzu Aratusteak?



**Edurne Martelo**
Ikaslea
Gatzaga

Azken orduan ibiltzen gara koadrilakook gertatzen. Gatzagan ospatuko ditugu. Lehen Eskoriatzara joaten ginen, baina azken urteotan herrian geratzen gara, oso giro ona egoten delako.



**Maria Izaga**
Ikaslea
Aramaio

Azken momentuan prestatu dut mozorroa. *Armiarma* jantziko naiz, eskolakoekin batera. Zapatuan eta martitzenean, bietan ateratzen gara, eta oraingoz, Aramaion geratzen gara.



**Naren Muñoz**
Ikaslea
Elgeta

Eskolan gaur mozorrotuko gara. *Urtaroak* aukeratu dute gai modura eta gure gelakoak *udaberri* mozorrotuko gara. Gainera, dantza bat prestatu dugu plazan egiteko. Aratusteak gustuko ditut.



**Goiuri Azkarateaskasua**
Ikaslea
Antzuola

Ikasgelako neskok *pija* jantziko gara eta mutilak, *behartsu*. Denon artean erabaki genuen eskolan. Hori egingo dugu egubakoitzean. Domekan dantza saioa dugu. Inoiz ez naiz kanpora joan.



**Elene Etxaniz**
Ikaslea
Bergara

Bai, orain dela gutxi prestatu nuen, ez nekien-eta zela jantzi. Azkenean, *troglodita* moduan goaz. Eta orain arte Bergaran geratu izan gara. Martitzenean ere mozorrotuko gara, beste mozorro batekin.

**txaloak eta txistuak**




ASIER ZABARTE

## Seinaleak leku okerrean

Egunotan seinale berriak ipintzen dabiltza Arrasaten. Bada, irakurle batek abisatu digu Gesalibar auzoa iragartzen duen seinalea ez dutela leku egokian ipini, Gesalibar auzoa seinalea ipini duten lekua baino kilometro erdi aurrerago dagoelako, Arrasate aldera.

**bertako berbak**

**Juan Martin Elexpuru**

## "Aundikerixa"

Harrokeria, hantustea.
*-Familixa ori aundikerixan oittuta dago.*



**Marrazkia** > Jon Iraegi

**asteko datua**

# 83

Hezkuntzaren gainean Eustatek kaleratutako azkeneko datuen arabera, lanbide heziketan matrikulatzen diren ikasleen %83k A eredua aukeratzen dute; %15ek bakarrik aukeratzen dute D eredua. 04-05 ikasturteko datuak dira.

**usteak uste**

**Ubane Madera**

## Eskuzabala izan behar da batzuetan

Geroago eta etorkizun zailagoa dugu ekonomiari begiratuta. Globalizazioren eraginez eta hark askotan berarekin dakarren deslokalizazio egoerek eraginda, batez ere.

Horixe da Arcelorren kasua. Bergarako langileak adi daude egin dioten OPA areriotsuarekin zer gertatzen den zaintzen. Hortik aterako den emaitzak baldintzatuko du-eta langileen etorkizuna.

Arrasaten, berriz, Gameiko langileen etorkizuna da zalantzan dagoena. Ez OPA izan dutelako. Berez, krisi larriak jota dago Gamei, zorrekin-eta. Baina Fagor Arrasate gertu dago, zenbait baldintzarekin, hura bereganatzeko. Gameiko bi akziodun txikik, ordea, ez dituzte akzioak sinbolikoki saldu nahi beste akziodunek egin duten moduan, eta horren ondorioz, 55 familiaren etorkizuna arrisku bizian dago une honetan.

Akaso arrazoia izango dute akziodun txikiok jarrera horri eusteko. Ez dakigu. Baina arrazoia izan arren, 55 familiaren etorkizuna jokoan dagoenean, norberaren arrazoiak bigarren planoan utzi beharko genituzke. Eskuzabalak izan. Seguru epe ertain edo luzera lasaiago egingo dutela lo, eta gainera, hortxe izango dute betiko 55 familiaren esker ona.

**5 galdera...**

# Nerea Mendizabal

Debaguneko koordinatzailea
Bergara

**1. *Barre barra-barra*, bakarrizketa barregarrien lehenengo lehiaketa antolatu du Debagunek. Zer da bakarrizketa barregarri bat?**

Bakoitzak ikusiko du zela egin; izan daiteke txiste baten kontakizuna, edo pasadizo batena… Gauza da zerbait kontatzea, barregurazkoa edo atzetik ironia puntua duena. Hori guztia, bi orritan eta kontuan hartuta izango dela jendaurrean egiteko.

**2. Idatzita eta bideoan bidali behar zaizue, interpretazio eta guzti; zer baloratu behar duzue, bada?**

Edukia eta jendaurrean duen presentzia. Akaso bi idatziren artean zalantza pitz daiteke, zein den hoberena. Bada, halakoetan, idatzia aurkezterakoan interpretazio hobea duena aukeratuko dugu. Epaimahaiari dagokionez, hiru lagunek osatuko dute. Oraingoz, Roberto Izagirre (iazko ipuin barregarrien lehiaketaren irabazlea) da kide bakarra.

**3. Lehiaketara aurkeztutako lanekin zer egiteko asmoa duzue?**

Oraingoz, eduki dugu dei bat Antzuolako udaletxetik. Komentatu digute ea lehiaketako irabazleak han aurkezpena-edo egin ahal izango zukeen. Akaso antola dezakegu zerbait, baina irabazlearekin bakarrik ez, akaso finalista guztiekin; bestela, ekitaldia labur geratuko litzateke.

**4. Bakarrizketak modan ipini direla-eta, horra begiratu duzue lehiaketa hau antolatzeko?**

Bai, modan egon dira bakarrizketak (*Club de la Comedia*…), baina denak espainolez; euskaraz ez dago halakorik. Hala, lehiaketarekin ea genero horrek euskaraz bere tokia lortzen duen.

**5. Debagune ibarreko euskara elkarteek osatu zuten 1992an. Zein emaitza eman du bateratze horrek?**

Ondo dago, gehiago ezagutzen dugu elkar eta bakoitzak bestearen lanetik ikas genezake. Bi hilean behin elkartzen gara. Ondo dago batasuna egotea.



**ARRASATE** > EKONOMIA

# Oraingoz etorkizun beltza aurreikusten zaio Gameiri

## Fagorrek eten egin du Gamei eskuratzeko negoziazio prozesua, akziodun txikiak direla-eta

## Akziodun txiki batek, Eduardo Etxebarriak ez du komunikabideetan adierazpenik egin gura

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Laubide plazan ikusi ditugu egunotan Gameiko langileak. Bizi duten egoera latzaren aurrean eta ikusita akziodun txikiekin negoziazio prozesuak ez duela aurrera egiten, egoera kaleratzea eta arrasatearrei elkartasuna eskatzea beste irtenbiderik ez dute ikusi. Idatzia ere plazaratu dute, eta besteak beste, herriko kaleetan ipini dute. Haren bitartez zera salatu dute: "Gutxieneko akziodunekin izandako elkarrizketek ez dute balio izan egunekin larritzen doan ziurtasun eta estutasun egoera desblokeatzeko".

**AKZIOAK 180.000 EUROTAN**

Gameiko iturriek GOIENKARIAri jakinarazi diotenez, akzioen %6,78 duten bi akziodunek (Eduardo Etxebarriak eta Julian Sagastak *Olatxo*-k, Carmen Etxebarriaren izenean) 180.000 euro eskatu dizkiete haien truke. Eta hori ez dute onartzen langileek: "Ez dugu ulertzen zela balora ditzaketen enpresaren aktiboak 2,65 milioi eurotan, enpresa kiebra tekniko egoeran dagoenean; ez dugu ulertzen zela ahalegin daitezkeen 180.000 euro eskuratzen akzioen %6,78ren truke, horrek esan nahi badu enpresa itxi egin beharko dela eta 55 familia etorkizun barik geratuko direla". Zera ere salatu dute: "Desafioa eta probokazioa da enpresaren solbentzia-gabezia egoera ikusita halako gehiegizko zifrak eskatzea".

Kontatu digute langileen asmoa zela akzioak erostea euren ustez arrazoizkoa den zifra baten truke, "gainerako akziodunek ulertzeko eta onartzeko moduko zifra".

**ONDASUNEN BAHITURA**

Horrez guztiaz gainera, enpresaren egoera oso larria dela nabarmendu dute: "Epaileen eskuetan dago eta egun gutxi barru arazoari irtenbideren bat ematen ez bazaio, administratzaileek ondasunen bahitura egingo dute, masa aktiboa ez da-eta nahikoa enpresak dituen zorrak kitatzeko".

**LANGILE GEHIENAK ADOS**

Bestalde, Gameiren etorkizuna blokeatzen dabiltzan bi akziodunen jarrera kritikagarri dela nabarmentzeko, Gameitik kontatu digute zela abenduan batzarra izan zuten langileek Fagorrek Gamei eskuratzeko egindako proposamena bozkatzeko. 46 langilek bozkatu zuten, 43k alde eta hiruk kontra: "Gehiengoak onartu genuen eskaintza. Hori inportantea da, kontuan hartuta 23 lagun aurre-erretiratu egin beharko direla; eta, hala ere, hiruk bakarrik bozkatu zuten kontra".




**KALEAN** Egoeraren larritasuna salatzeko kalera atera dira Gameiko langileak "lanpostuen alde"; agerraldiak egin dituzte Laubiden eta fabrika aurrean. NEREA ZUBIETE

**PSE-EE ERASOTUA**

# Egoitzari eta militante bati egin diete eraso

**U.M.** > ARRASATE

Eguaztenean 21:00ak inguruan gertatu zen erasoa. Musakola auzoan paseatzen zebilela, etxafuegoak jaurti zizkioten PSE-EEko militante bati. Ez zuten zauritu. Gainera, alderdi berak Olarte kalean duen egoitzari ere egin zioten eraso; besteak beste, *Gorriak ikusiko dituzue* dioten pintadak egin zituzten. PSE-EEko idazkari orokor Miguel Buenek gaitzetsi egin du atentatua eta Otegiri dei egin dio gauza bera egiteko.

**EMAKUMEEN EGUNA**

# Datorren astean hasiko dira ekitaldiak

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Emakumearen Nazioarteko Eguna badatorrela-eta, emakumeei zuzendutako zein emakumeen gaineko ekitaldiak antolatu ditu Emakume Txokoak, martxoaren 1ean hasi eta martxoaren 29ra arte.

Esandako moduan, bada, datorren eguaztenean hasiko dira ekitaldiak; EHUko irakasle Isabel Otxoak berbaldia egingo du: *Zainduak izateko eskubidea eta emakumeen intsumisioa*, 19:00etan osoko bilkuren aretoan.

Gero, domekarako *La Calumnia* antzerki saioa iragarri dute, Amaia Udal Antzokian, 19:30ean.

Eta bi aste barru, bestelako ekitaldien artean, martxoaren 8an, Emakumearen Egunean, manifestazioa egingo dute, Seberretik aterata 19:00etan.

Pando Errotuloak
Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70
Argidun kartelak
Ibilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Seinaleak
Lonak
Erliebedun hizkiak

ZUBIZARRETA LANTEGIAK
Gipuzkoa etorbidea 22
ARRASATE
Tel.: 943 79 15 65

ad Ibabe
IBABE GARAJEA
MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa z/g.
Tel.: 943 79 99 61 · ARRASATE



**ZERRAJERA** Udalarekin hitzartutakoaren arabera, La Caixak eraikiko ditu Zerrajera gunean 148 etxebizitza. GOIENKARIA

**ETXEBIZITZAK** > ZERRAJERAKO AUZIA

# Susmo txarrak saiheste aldera, La Caixa gertu da hitzarmena uzteko

Zerrajera gunean etxebizitzak eraikitzeko Udalak eta La Caixak zuten hitzarmena bertan behera uzteko aukera aztertzen dabiltza

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Ezker Batuak eguaztenean iragarri zuen La Caixa erretiratu egingo zela Zerrajerako lurren besterentze zuzenetik. Edo bestela esanda, zera iragarri zuen: "La Caixak ofizialki uko egingo die abenduko osoko bilkuran EAJ-EA-Aralarrek onartutako hitzarmenari eta Zerrajerako lurzoruarekin lotuta dituen eskubideei". Halaber, EBk esan zuen La Caixaren jarrera hori zela "juridikoki segurtasunik eza" sortu delako, EBko zinegotziek hitzarmen horren kontra aurkeztutako helegiteak eraginda.

**ALKATETZAREN ERANTZUNA**

Bada, Inazio Lakuntza alkateak argi utzi digu oraingoz ez dagoela gai horren inguruko erabaki ofizialik: "Gauza guztiak prozesuan daude, eta, gainera, erabakiren bat hartzeko, gai hori osoko bilkuran landu beharko dugu".

Horrez gainera, gogora ekarri digu Udaleko zerbitzu juridikoek diotela La Caixarekin egindako hitzarmena guztiz legezkoa dela. Ondorioz, ez litzateke "juridikoki segurtasunik ezik" izango.

Dena dela, horrekin batera, alkateak onartu du akaso Zerrajeran etxebizitzak eraikitzeko proiektua lehiaketa publikora aterako dutela La Caixari zuzenean esleitu beharrean, baina ez La Caixak atzera egin duelako. Arrazoia bestelakoa da, Lakuntzaren esanetan: "Azkenaldian gai hori denon ahotan dabilelako eta legezkoa den edo ez zalantzan ipini delako. Susmo txar horiek saihesteko esan diogu La Caixari lehiaketa publikoa deitzeko aukera aztertzen gabiltzala, eta La Caixak erantzun digu gertu legokeela bera ere lehiaketa publikoan parte hartzeko".

La Caixak berak konfirmatu egin digu alkateak esandakoa.

Bukatzeko, udal idazkariak salatu du EBk egin duena ez dela legezkoa. Haren esanetan, EBk Udaleko Hirigintza Saileko batzarretik ateratako eta ofiziala ez den informazioa kaleratu du.

**LANPOSTUAK** > IZENA EMATEKO EPEA ZABALIK

# Arreta Bulegorako bost agente behar

Atzo, eguena zabaldu zuten epea izena emateko, martxoaren 14ra arte; Arreta Bulegorako bost langile behar ditu Udalak

**U.M.**> ARRASATE

Informazioa eta izapidetze agentea. Horixe da lanpostu horren izen ofiziala eta halako bost behar ditu Udalak Portaloian izango den Arreta Bulegoa zabaltzen dutenerako (aurreikuspenen arabera, San Juanetarako).

Bost langileak lortzeko lehiaketa publikoa deitu du Udalak eta jakinarazi digutenez, atzo zabaldu zuten lehiaketarako izena emateko epea. Udaletxera jo beharko da horretarako. Edo, bestela, eskabide orria Udalaren webgunean ere eskura daiteke: *arrasate-mondragon.org*.

Baldintzen artean, lanpostura aurkezteko beharrezkoa da eskola graduatua izatea, LHI edo baliokidea.

Lanpostuari dagokionez, betiko izango da.

**EGINBEHARRAK**

Bestelakoen artean, honako lana egin beharko dute bost agente horiek: herritarrei informazioa ematea, haien kexuak eta iradokizunak hartu eta bideratu eta berehala erabakitzekoak diren izapideak egitea.

> UDALA

## Udalak eskaintzen dituen zenbait zerbitzuren gaineko zergak ordaintzeko epea zabaldu dute

Udalak jakinarazi du zabalik dagoela 2006ko lehen seihilekoan zaborrak batzeagatik ordaindu beharreko zerga pagatzeko epea. Borondatezko epea martxoaren 15era arte izango du Udalak zabalik. Behin epe hori bukatutakoan, zerga %20ko gainkarguarekin kobratuko dute.

Horrekin batera, zabalik dago, baita ere, edateko urari eta saneamenduari dagozkien zergak ordaintzeko epea. Kasu honetan, 2005eko laugarren hiruhilekoari dagokion zerga kobratuko du Udalak; martxoaren 15era arteko epea zabaldu dute hemen ere. Zaborrarekin moduan, uraren zergarekin ere, borondatezko epean pagatu ezean, %20ko gainkargua ezarriko dio Udalak erabiltzaileari.

> POLITIKA

## Hiru urteko espetxe-zigorra ezarri diote Igor Letona arrasatearrari ihes egiten saiatzeagatik

Askatasunak jakinarazi duenez, eguaztenean eman zuten jakitera Igor Letona arrasatearrari urtarrilean egin zioten epaiketaren sententzia. Haren arabera, hiru urteko kartzela-zigorra eta estatu frantsesean egoteko debeku definitiboa ezarri dizkio epaileak preso arrasatearrari.

Horren harira, presoen aldeko elkarteak gogora ekarri du Igor Letonak ez zuela epaiketa horretan parte hartu: "Salatu behar dugu Igor epaiketan ez zela egon espetxean egin nahi izan zioten miaketa umiliagarri eta iraingarriari uko egin ondoren, eta hori izan zela arrazoia betan ez egoteko. Hala ere, aurrera egin zuten epaiketarekin".





NAZIOARTEAN Goikobalu hainbat alditan izan da nazioartean. Argazkian, 2004an Erroman egindako argazkia. GOIKOBALU

**MUSIKA** > HERRIKO ABESBATZAK HAINBAT PROIEKTU DITU

# Argentinara joango da Goikobalu urri hasieran

Argentinan euskal etxeen alde bi emanaldi egingo dituzte, eta bidaia horren gastuak txikitzeko laguntzak eskatuko dituzte

**IKER BARANDIARAN**> ARRASATE

Goikobalu abesbatzak batzarreko kideak aldatu ditu. Presidentea Jesus Mari Artze da, presidente ordea Antonio Barriocanal, idazkaria Maider Ruiz eta diruzaina Jose Mari Ganboa.

Aldaketak aldaketa, hasi dira datozen hilabeteetarako planak egiten. Argentinan bigarren aldiz abesteko gonbidapena jaso dute, eta, jakina, baietza eman dute.

Argentinan bizi den Nikasio Uribarren aramaioarrak egin zien gonbidapena eta Cordobako eta Villa Mariako (biak Argentinan) euskal etxeekin harremanetan jarri zituen. Bi emanaldi egingo dituzte, eta Maritxu Kajoiren biharamunetik, urriaren 7a, urriaren 14ra egingo dute bidaia.

**DIRULAGUNTZAK ESKATU**

Gutxienez 20 lagun joango dira Argentinara abestera, baina oraindik ez dute zerrenda itxi. Horrekin lotuta, Jaurlaritzara eta enpresetara joko dute dirulaguntzak eskatzera, egin behar dituzten gastuak murrizteko.

Bi emanaldi horietan euskal kantuak eta Argentinako eta Brasilgo pieza herrikoiak abestuko dituzte.

**KOOPERATIBAREN URTEURRENEAN**

Aurretik, datorren egubakoitzean, martxoaren 4an, Musakolako kiroldegian abestuko dute. Kooperatibaren 50. urteurrena ospatzeko ekitaldian izango dira.

**'AFRIKA': PERKUSIOA ETA KOROAK**

Bestalde, Goikobalu eta Bergarako Orfeoiko lagunek osatzen duten Lausardik *Afrika* ikuskizuna egingo du Arrasaten apirilaren 8an. Donato Goienetxek zuzendutako lan hori perkusioan oinarrituta dago eta abesbatzekin lotutako aurreiritzi asko apurtu ditu, klasikoarekin eta folklorearekin zerikurik ez dauka-eta. Andoainen eta Azpeitian ere egingo dute.

**ARATUSTEAK** > UDALAREN ETA TABERNARIEN EGITARAUA

# Zapatuan hasiko dira Aratusteak

Aspaldian Aratusteak martitzenean ospatu ohi dira, baina aurten zapatuko ospakizuna berreskuratuko dute.

**I.B.**> ARRASATE

Arrasaten aspaldian martitzenean ospatu ohi dira Aratusteak. Zapatuko giroa galtzen joan zen, eta martitzenera arte ez da inor mozorrotzen.

Aurten, berriz, alde zaharreko tabernariek eta Kalagelik zapatuko giroa berpizteko egitaraua antolatu dute: 12:00etan, triki-bertso-txikiteoa egingo dute; 15:00etan, herri bazkaria egingo dute Uarkapen. Horretarako derrigorrezkoa izango da mozorrotuta joatea eta aldez aurretik izena ematea. Arratsaldean, 17:00etan, jokoak izango dira Herriko Plazan; eta 18:00etan, mozorro lehiaketa egingo dute leku berean.

**UDALARENA, MARTITZENEAN**

Udalak ere egitarau berezia antolatu du martitzenerako, eta batez ere umeei zuzenduta dago: Golden Apple Quartet, *Barrebira* ikuskizuna, *Sorgiñak* kale antzerkia, banda eta baletaren *Grease* kalejira, Samasiku txaranga eta sardina-ehorzketa, besteak beste.

> IKUSKIZUNA

### Umeendako 'Barrebira' ikuskizuna Txan magoaren, Elvi sabeliztunaren eta pailazoen eskutik

Martitzenean umeendako ikuskizun borobila eramango du Udaleko Kultura Sailak Amaia Udal Antzokira. 17:00etan izango da, eta sarrera 3 eurotan salduko dute. *Barrebira* izenpean, Txan magoak, Elvi sabeliztunak bere panpinekin eta Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoek esku hartuko dute ikuskizun berean.

Euskal Herrian izen handia dute artista horiek, eta euren ikuskizunen bitartez, gaztetxoenek magiaz, umoreaz eta ezustekoetaz gozatzeko aukera izango dute.

> MUSIKA

### Sorkunen eta Queens of the Stone Age boskotearen omenezko taldearen kontzertua

Gaur, egubakoitza, Sorkun musikariak kontzertua egingo du 3.60 aretoan, 23:00etan. Eta aurretik, luxuzko gonbidatuak izango ditu. Bizkaiko hainbat musikarik Queens of the Stone Age taldeari omenaldia egingo diote. Josh Homme handiaren abestiak eskainiko dituzte. Sorkun oso ezaguna egin da aspaldian. 90eko hamarkada erdialdean Kashbad taldearekin hasi zen abesten eta zeresan handia eman zuen, sasoi hartan neska gutxi igotzen zirelako taula gainera rocka egitera. Gerora, Fermin Muguruzarekin hainbat bira egin ditu eta dagoeneko bakarkako bi lan kaleratu ditu.




AMETS
BENGOA
BOLIÑETE
BRANKA
GURE LEKU
IAMAI
ITZALA
MONTE
PLUS ULTRA
RUMBA
ARRASATEN
GIGORIK ONENA!
ARRASATEKO ARATUSTEAK 2006



Jonathan Perez.

**ATLETISMOA**

## Jonathanek Espainiako Txapelketa du jokoan

"Gorputzaldi onean nago; 5,01 metroko jauzia egin gura dut"

**XABIER URTZELAI**> ARRASATE

Asteburuan jokatuko dute Anoetan pista estaliko Espainiako Txapelketa. Eta hantxe izango da Jonathan Perez pertika-jauzilaria. Arrasatekoa baikor dago, eta badu motiborik, orain dela bi aste egin zuen-eta bost metroko marka. Joan den astean, berriz, 4,90 metroko jauzia egin zuen: "Gorputzaldi oso onean nago, baina joan den astean, adibidez, korrika azkarregi egitearren-edo, jauziko lehenengo pausoa ez nuen behar moduan egiten, larregi sartzen nintzen". Arrasatekoa hori zuzentzen ahalegindu da aste barruan, eta baita pertika berriari eskua hartzen ere.

**LEHIA ESTUA**

Jonathan Perezek zazpigarren postura egin du jauzi: "Orain dela gutxi atleta batek 5,02 metroko jauzia egin berri du, eta horregatik egin dut atzera. Asteburuan nire marka gainditzea izango da helburua, 5,01 metroko jauzia egitea. Garrantzitsua izango da, baita ere, baliogabeko jauzirik ez egitea, horrek ere eragina du-eta sailkapenean. Badakit indarrak pare-parean egongo direla".

**SASKIBALOIA** > MUGARRI ALKESA ARRASATE IGOERA FASEAN

# Consmetalen kontrako ikasgai magistrala errepikatzeko asmoz

Mugarri Alkesak EHU Araba taldearen bisita izango du bihar (18:00). Igoera fasean kontrario zuzenak dira arabarrak; liderrari irabazi ostean, etxekoak motibatuta

**XABIER URTZELAI**> ARRASATE

Mugarri Alkesa Arrasatek joan den astean Consmetalen kantxan emandako ikasgaia errepikatu gura du bihar Iturripen. Orain arte lider sendoa izan denaren kantxan irabazita (88-92), Zurututzak zuzentzen duen taldeak erakutsi du ez duela mugarik, euren esku dagoela igoera faseari etekin bikaina ateratzea, nahiz eta ez den nolanahiko helburua. Hainbat talde daude fase horretarako aukera handiagoarekin sailkatu direnak, baina partiduak joan eta partiduak etorri, Arrasatekoak dira airea galtzen ez duten bakarrak.

Hori bai, joan den astean Consmetali irabazteko entrenatzaile oñatiarrak oso jokalari gutxi erabili zituen, eta luzera begira baliteke horrek ordaina izatea.



ITURRIPE Datozen partiduetan kantxa hori gotorleku bilakatu behar da. GOIENKARIA

Biharko partiduari dagokionez, EHU Araba Arrasatekoak baino postu bat gorago dago, baina partidu bat gehiago jokatuta. Urdanetaren kontra atzeratuta daukan norgehiagoka kontuan izanda, Arrasatek hiru partidu jokatuko ditu jarraian Iturripen. Orain izan behar dute indartsu, zaleen bultzadak lagunduta.

> PILOTA

### Aratusteen barruan pilota jaialdia gaur gauerako Uarkapen

Arrasateko Udalak pilota jaialdia antolatu du gaur gauerako (15 euro). Hala, 22:00etan hasita, pilota atsegin dutenek bi norgehiagoka izango dituzte ikusgai: eskuz binakakoa lehena eta buruz burukoa bigarrena. Lehenengo partiduan, Unanuek eta Errastik Leitzaren eta Rairen kontra jokatuko dute. Agirrek eta Esainek jokatuko dute gero.

> ERRUGBIA

### Igoera faseko oilarretako bat izango da bihar Garagartzan

Zarautzen kontra galduta (30-7), David Jauregiren mutilek bi partidu galdu dituzte jarraian. Eta horri buelta eman guran zelairatuko dira bihar Garagartzan (16:00). Aurrean izango duten kontrarioa, baina, igoera faseko indartsuenetakoa da: Kakarraldo. Eibar eta Kakarraldo dira, momentuz, gorputzaldi onenean daudela erakutsi duten taldeak.

> ESKUBALOIA

### Sailkapenaren azken postuan dagoen Leizaran bisitari

Urolaren kantxan berdinduta, Ford Mugarri Arrasatek bigarren postuan segitzen du.

Asteburuan, berriz, Andoni Arandoren mutilek azken postuan dagoen Leizaran izango dute Iturripen. Horrelako kontrarioak ez dira batere erosoak, beti dago-eta edozer gerta daitekeen sentsazioa. Lasaituz gero gertatzen dira horrelakoak.

**futbitoa zaldibar**

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Irish Pub - Fuxxion | **3-4** |
| Iluntz - Abokajarro | **3-3** |
| HLB 108 - Aurrera Bolie | **2-3** |
| AT Celaya - Txoponbeixek | **6-5** |
| Dribling - THC | **13-0** |
| Saukelu Scream - Tomahawk | **2-3** |
| Lasagabaster - AC Surcos | **5-2** |
| Aurrera Bolie TMT - Abokajarro | **5-3** |
| Pippol - Billy & The Cowboys | **4-3** |
| Iriztu Tab. - Betrayer | **6-7** |

**PARTIDUAK**

| Otsailak 25, zapatua | Epaileak |
|---|---|
| **09:50** Pippol - Txoponbeixek | **AC Surcos** |
| **11:00** Iluntz - AC Surcos | **Pippol** |
| **12:00** Saukelu Scream - Billy & The. | **Iluntz** |
| **13:00** Arrano Taberna - Betrayer | **Saukelu** |
| **16:00** THC - Berdes Bremen | **HLB 108** |
| **17:00** HLB 108 - Fuxxion | **THC** |
| **18:00** Iriztu Taberna - Abokajarro | **Fuxxion** |

| Otsailak 26, domeka | Epaileak |
|---|---|
| **10:50** Lasagabaster - Irish Pub | **Dribling** |
| **12:00** Dribling - Tomahawk | **Irish Pub** |
| **13:00** AT Celaya - Aurrera Bolie | **Tomahawk** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Betrayer | 25 | 10 |
| 2. | Dribling | 25 | 10 |
| 3. | Lasagabaster | 19 | 9 |
| 4. | Pippol | 19 | 10 |
| 5. | AT Celaya | 18 | 10 |
| 6. | Arrano Taberna | 18 | 9 |
| 7. | Iriztu Taberna | 16 | 9 |
| 8. | Saukelu Scream | 16 | 10 |
| 9. | Fuxxion | 16 | 9 |
| 10. | Iluntz | 15 | 10 |
| 11. | Billy & The Cowboys | 15 | 10 |
| 12. | Irish Pub | 15 | 10 |
| 13. | Abokajarro | 14 | 10 |
| 14. | Aurrera Bolie TMT | 12 | 9 |
| 15. | AC Surcos | 12 | 9 |
| 16. | HLB 108 | 12 | 10 |
| 17. | Tomahawk | 9 | 10 |
| 18. | Txoponbeixek | 6 | 10 |
| 19. | Berdes Bremen | 3 | 9 |
| 20. | THC | 0 | 10 |

### Lehia handia zortzigarren postuan sailkatzeko

Zaldibarko Txapelketako lehenengo fasea amaitzeko oraindik asko geratzen da. Bistan dago, baina, lehenengo zortzi taldeen artean sailkatzea ez dela txantxetako kontua izango.

Aurten garaipen bakoitzak hiru puntu balio ditu, eta horrek ezusteak emateko aukera handiagoa ematen du. Kontuan hartu sailkapenaren bosgarren lekuan dagoela AT Celaya; eta hamahirugarren lekuan dagoela Irish Pub taldea. Bada, bi talde horien artean garaipen bateko aldea baino ez dago, hiru puntuko aldea baino ez.

KONTRATAK
IRVROK S.L.
ERAIKUNTZAK
Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

S. CARRASCAL S.L.
Guk egindakoak:
- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak
Erakusketa berria
Ekutio kalea pab. 14-15
Uribarri auzoa 4
Tel. faxa: 943 79 01 82

UGARAN jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

arrasatearrak kanpoan

**Zuriñe Velez de Mendizabal** > Kazetaria
Reno, AEB

# "Kontraste handiak daude Renon: basamortua, eta ondoren elurra"

XABIER URTZELAI > ARRASATE

**Zuriñe joan den urteko abuztuan joan zen Nevadako estatuan dagoen Reno hirira. Ekainera bitartean geratuko da han, ingelesa hobetzen eta Nevadako unibertsitatean dagoen Center for Basque Studies erakunderako lanean.**

AEBetan egin zituen lehenengo asteetan Euskal Herria zuen Zuriñek buruan, baina aspaldi aldatu zen hori: "Ikasi dut etxekoen eta lagunen hutsunea igartzen ibili beharrean hemengoaz gozatzen, nahiz eta hemen, besteak beste, ez dagoen sagardotegirik". Hala ere, euskaldun askorekin elkartu dela aipatu digu Zuriñek: "Bilboko eta Mauleko lagunak ditut, eta jende asko ezagutu dut abizen euskaldunarekin. Hala, kanpotarrak ongietorriak gara Renon; izan ere, hiri nahiko kosmopolita da". Renoren berezitasunen berri eman digu Arrasatekoak:

**"Ikasi dut etxekoen eta lagunen hutsunea igartzen ibili beharrean hemen daukadanaz gozatzen"**


Zuriñe Velez de Mendizabal

"180.000 biztanle ditu Renok, eta nonahi daude Nevada horren famatu egin duten kasinoak. Mendia gustuko duenak hiritik ordubetera paraje ikusgarriak ditu; hemengo mendiak, baina, ez dira Euskal Herrikoak bezalakoak, lehorragoak dira. Kontraste handiko parajeak dira: basamortuan egon zaitezke, eta mendiak elurtuta egon".

Gazteek dituzten ohituren gainean ere, Euskal Herriarekin antzekotasunik ez dago: "Asteburuak lasaiagoak dira hemen. Kalera irtetea nahiko garestia da, eta etxeetan egiten dituzte *party*-ak". Hori bai, bidaiatzeko leku aproposa da: "Auto bat alokatzea ez da horren garestia, eta, adibidez, San Frantzisko hiru ordu eta erdira dago eta Las Vegas zazpi ordura. Dagoeneko izan naiz San Frantziskon; Betagarri eta Berri Txarrak taldeen kontzertura joateko aprobetxatu nuen. Reno baino askoz ere hiri ederragoa da, eta bizitasun handiagoa du".

txutxumutxua

## Amaia antzokia goraino beteta Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoen kontura

**Asteburuan baino gusturago ibili dira Arrasateko neska-mutikoak aste barruan. Izan ere, astelehenean eta martitzenean *Trikitraka Trikiton* saioko bi atal grabatu zituzten Txirrik, Mirrik eta Txiribitonek. Bi egun horietan goraino bete dute Amaia antzokia. Ez pentsa, baina, hiru pailazo horiek bakarrik jardun dutenik, astelehenean Moro katuaren eta Dunbadunba perkusio taldearen laguntza izan zuten-eta. Hala, gaztetxoek lehenengo minututik egin zuten barre Mirriren pailazokeriekin, Txirriri behin eta berriro adarra jotzen ziola ikusita. Martitzenean Marsel magoaren eta Kakusinaren laguntza izan zuten.**


XABIER URTZELAI

bere ustez


Oihan Zubizarreta

## Urbanitak eta konurbanitak

Bilbon bizi den arrasatearra naiz. Eta astekari honen paper-orri berritu hauetan idazterakoan konturatu naiz irakurlegoa aldatu egin dela. Eta oraingoan debagoiendarrei zuzentzeko aukera suertatu zait. A ze zirrara! Eta ez dakit berba labur hauekin zer konta diezaiokedan Bilbo bezalako *urbe* honetatik, Euzkadiren laugarren *konurbazio* izateko bokazioa duen gure eskualdeari.

*Goienaroa*-ren korronte post-modernoak kitzikatu egin nau. Gure eskualdearen norabide abangoardistaren zoramena!

**"Ezen hemen bizitza bestelakoa da, ez dira begiradak modu berean gurutzatzen"**

Ezen hemen bizitza bestelakoa da, ez dira begiradak modu berean gurutzatzen, jendeak ez dio elkarri begiratzen eta abiaduraz ibili behar da inora iristeko, edozer egiteko, metroa hartzeko edo trena ez galtzeko. Hemen kuriosoa da, kalean paseatzea *emepetres*-aren kaskoak jarrita, eta zeruaren urdinari begiratzea, ketutako laino geruzen atzetik zerbait ikusten den egunetan. *Urbanita*-rena egiten igaro daitezke egunak.

Zuek *konurbanita*-k izatearekin baduzue lana. Bilbo metropolitanoa da. Bilbo ez baita Arrasate eta Arrasate ez baita Bilbo.

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Espezialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

MADINA ZURAK
Aroztegia
• Olak
• Aglomeratuak
• Kontratxapatuak
• Tablexa
• Ateak
• Egurrezko leihoak
• Oin-inguruak
• Zangoak
• Aroztegiko osagarriak
Uribarri auzoa B-2 B S3 sektorea
•Tel.: 943 79 13 78 ARRASATE
e-posta: mz@madinazurak.com

ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak
Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

**EKONOMIA** > ARCELORREN ETORKIZUNA

# Mittal Steelek ze zati erosiko duen da Arcelorren kezka

Etorkizuneko jabea nor izango den eta ze lan baldintza izango diren inork ez daki oraindik

Mittal Steelek plan industrialik ez duelako langile asko geldi daitezke langabezian



**NEGOZIAZIOA** Negoziazioen emaitzek zehaztuko dute zein izangoden Arcelorren etorkizuna. ENEKO AZKARATE

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA

Bergarako Arcelorreko langileek urduri jarraitzen dute, enpresaren etorkizuna zein izango den ez dakitelako. Jabier Garitano ELAko ordezkariak esan digun moduan, "Mittal Steelek Arcelor erosteko eskaintza egin duen momentutik dago argi zati bat bereganatuko duela; arazoa da zenbaterainoko zatia erosiko duen".

Garitanoren esanetan, oraindik ezin da jakin ze gertatuko den. "Etorkizuneko jabea zein izango den jakin behar da lehenengo", dio. Jabea bat edo bestea izateak etorkizuna asko alda dezakeela gaineratu du: "Arcelor izaten jarraitzen badu, ezagutzen dugu bere plan industriala eta aukera onenak eskuratzen saiatuko gara; Mittal Steel bada jabea, ordea, lehendabizi ezagutu egin beharko dugu eta gero negoziatu. Lan bikoitza izango dugu". Bigarren aukera horrek ekar ditzakeen arrisku batzuk aurreikusten ditu Garitanok: "Azken lau urteotan 100.000 langiletik 83.000 izatera pasa gara Arcelorren plan industrialarekin eta plan industrialik gabe gauza ziurra da lanpostu gehiago galduko direla".

**INSTITUZIOEN BABESA**

Arcelorren etorkizuna administrazioari eta hainbat erakunderi jakinarazi gura diela esan digu ELAko ordezkariak, eta haien babesa lortu gura dutela. Jaurlaritzak erantzun die kezkatuta dagoela eta ahaleginak egingo dituela egoera zuzentzeko.

Eguaztenean Bruselan bilera izan zuten Arcelorrek lantegiak dituen herrialde guztietako ordezkariek. Iñaki Arregi *Bizkai* bergararra joan zen Euskal Herritik. Sarri egiten dituzte bilera horiek, bai momentuan momentuko arazoez hitz egiteko bai bestelako proiektuak gauzatzeko. Adibidez, 11 milioi euro jaso ditu Europatik Bergarako Arcelorrek inbertsioak egiteko. Mittal Steelek ez du esan inbertsioetarako ze asmo duen.

**NEGOZIATZEN JARRAITU**

Jabier Garitanok esan digu oraindik ez dakitela "filma nola bukatuko den". Hemendik aurrera, negoziazioek aurrera jarraituko dute eta horiek zer ematen duten zain egon beharko dute, etorkizuna nolakoa izan daitekeen antzemateko.

JAKINGARRIA

**> 285 LANGILE**
Bergaran 285 langilek dihardute: Zornotzako, Zumarragako, Arrasateko, Beasaingo eta Bergarako langileak dira

**> ORDEZKARIAK**
Euskal Herriko bi ordezkari ditu Arcelorrek Bruselan, biak ELAkoak dira eta biak Bergarakoak

ZENBAKIA

**11**

11 milioi euroko inbertsioak egingo dituzte aurten eta datorren urtean Arcelorrek Labegaraietan duen lantegian. Produkzioko makina berriak ekarriko dituzte, besteak beste.

> ELKARTASUNA

### Ia 300 lagunek bazkalduko dute Sahararen alde

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoa sortu zela 30 urte dira, eta hori ospatzeko jaia egingo dute zapatuan egun guztian Labegaraietan. Gasteiz, Laudio eta Getxotik etorriko dira sahararrak autobusean. Eta, hain zuzen ere, bazkaltzeko ia 300 lagun elkartuko dira.

> ATXILOKETA

### Lagun bat atxilotu dute, epaitegian droga pasatzeagatik

Ertzaintzak Arrasateko emakume bat atxilotu du Bergaran, bikotekideari droga emateagatik epaitegian. Haxixa eta gramo bat hauts zuri eman ziolako atxilotu zuten. Neskaren bikotekidea diligentzia judizialak egitera ekarri zuten Bergarako epaitegira Martutenetik astelehenean.

> KIROLA

### Kiroldegiko kantxa nagusia itxita dago martitzena arte

Saharako herriaren aldeko jaia muntatzen ari direlako, kiroldegiko kantxa nagusia itxita dago gaurtik, egubakoitza, martitzena arte. Udal Pilotalekuan ere kultur ekintza asko daude datozen egunetan, eta kirol zerbitzuak barkamena eskatu gura die erabiltzaileei, eragozpenengatik.

> HEZKUNTZA

### Gizarte lanetarako elkartea eta Uned elkartu egin dira

Hitzarmena sinatu dute Bergarako Uned zentroak eta Gipuzkoako gizarte lanetarako diplomatuen eta gizarte laguntzaileen elkarte ofizialak. Akordio horri esker, gizarte lanetako eta gizarte laguntzaileetako ikasketak emango dituzte Uned-en.

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi
BERGARA

JAUJA KIROLAK
Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.
Era guztietako lanak | Paper pintatuak
Moketa eta sintasola | Harea zorrotada
Iztuku esponjatua | Iztuku faltsua
Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 62 02 /
666 517 295

**HIRIGINTZA** > GALTZADA-HARRIAK KALEETAN

# San Pedron ere ipiniko dituzte galtzada-harriak

45 egun barru bukatuko dituzte Goenkaleko lanak; kale azpian zeuden galtzada-harriak eskuz landu eta berriro jarriko dituzte errepide gainean



**GALTZADA-HARRIAK** Goenkaleko harritxo zaharrak goiko estazioan daude pilaturik, berriro jartzeko zain. O.E.

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA
Artekalean eta Arruriagan galtzada-harriak jarri zituzten lehen eta Goenkalean duela bi hilabete hasi ziren gauza bera egiten. Hori bukatu ostean, San Pedro kalean eta epaitegi aurreko kalean ere jarriko dituzte. Aurten egin gura dituzte lan horiek, baina aurrekontuak onartu behar dituzte lehenengo, eta, beraz, oraindik ez dakite zehatz noiz hasiko dituzten lan horiek.

**LUR AZPIKO GALTZADA-HARRIAK**
Duela bi hilabete hasi ziren Goenkalen galtzada-harriak ipintzen. San Pedro elizako kantoian ari dira orain lanean, eta 45 egun barru lanak bukatuta izango dituztela uste du Udaleko obretako zuzendariak. Kalearen gainerako zatia galtzada-harriak jartzeko gertu dago. Kalea apurtu, azpiegitura berriak jarri eta berriro bota dute zementua. Etxebizitzek agintzen dute kalearen altuera, eta atarien pareraino bota dute zementua. Horren gainean jarriko dituzte harritxoak.

Galtzada-harriak jartzea lan handia dela esan digu Joseba obretako zuzendariak, "eskuz egiten dutelako". "Lehengo zoru azpian galtzada-harriak zeuden. Kalea zulatu eta altxatu dugunean, azpiko harritxoak banan-banan atera genituen, lanen bukaeran berriro gainean jartzeko", azaldu digu.

**ESKUZ EGINDAKO KALEA**
Artekalean eta Arruriagan egindako lan bera egingo dute Goenkalean ere: "Azpiko harriak aukeratu egingo ditugu banaka. Oso handiak direnak moztu egingo ditugu eta oso lauak ez direnak landu egingo ditugu", dio Josebak. Ez dituzte, baina, guztiak jarriko gero. "Kaleko bi ertzetan eta erdian harri lau handiak jarriko ditugu. Harritxo batzuk soberan geldituko dira eta onenak aprobetxatuko ditugu", zehaztu du obretako zuzendariak. Eskulan handia eskatzen du prozesu horrek, eta proiektu osoaren kostua ere handia da. San Pedro eta epaitegi aurrean galtzada-harriak jartzeko, oraindik onartzeke dauden aurrekontuek horretarako dirua gordetzen duten ikusi behar da lehenengo.

**ERDIGUNEKO GALTZADA**
Erdigunean galtzada-harriak zeudela ikusi dute gasaren eta telefonoaren azpiegiturak egin dituztenean. Toki askotan, ordea, apurtu egin dituzte.

**GIZARTEA** > HEGAZTI GRIPEA

# Analizatzen ari dira errekan hilda aurkitu duten ahatea

Ez dirudi ahatea gripeak jota hil denik, baina Jaurlaritzak Derion duen Neiker enpresara eraman dute analizatzera

**OIHANA ELORTZA** > BERGARA
Deba ibaian aurkitu zuten ahatea hilda astelehenean, Zurradero parean. Herritar batzuk konturatu ziren ahatea hilda zegoela errekan eta Ertzaintzara deitu zuten abisua emateko. Ertzainek horrelako kasuetarako duten protokoloa jarri zuten martxan: Diputazioko basozainei deitu zieten, haiek hartu zuten ahatea ibaitik eta Jaurlaritzak Derion duen Neiker enpresara eraman zuten analisiak egitera.

Udaltzainek ere bertatik bertara jarraitu zuten prozesua. Udaltzain-buruaren esanetan, "errekan dauden ehunka ahateetako bat zen hilda aurkitu dutena. Berez hil dela dirudi, horiek ere hiltzen dira-eta, baina analizatzera eraman dute, hiltzeko arrazoia zein izan den jakiteko". Oraindik ez dituzte analisien emaitzak eman, baina udaltzaina zein Diputazioko langilea ziur daude ez dela hegazti gripeak jota hil ahatea.



**ERREKAN HILDA** Zurradero parean aurkitu zuten ahatea hilda. O.E.

**EHUNKA AHATE HILDA**
Urrian jarri zuen martxan Diputazioak hegazti gripearen protokoloa, edozein hegaztirekin egiten duten protokoloa. Abeltzaintza zerbitzuko langile batek esan digun moduan, "ehunka ahate hiltzen dira astero Gipuzkoan eta orain arteko denek negatiboa eman dute H5N1 analisietan". "Horrelako kontuek alarma zabaldu besterik ez dute egiten", gaineratu digu, "baina hemen ez dago hegazti griperik".

GARRAIOAK
ANDUZU
TRANSPORTES
BERGARA
607 349 043

Grua zerbitzua
Zerbitzu publikoa eta
era guztietako kargak

REMENTERIA
Altzariak
Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan
Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

OGIZUN
koop. elk.
okindegia

Ibargarai 44-46
BERGARA
943 76 45 53
Zubillaga 10
OÑATI
943 78 24 13

Kabutzia
ARRAINDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

**ARATUSTEAK** > UDALAK ETA BEDELKARREK, HAINBAT EKINTZA JAIAK GIROTZEKO

# Herritarrak mozorrotzera bultzatzeko ahalegina Udalaren eta Bedelkarren eskutik

Aratusteak aspaldiko usadioa dira eta jendeak gustuko ditu, baina komeni izaten da giroa bultzatu eta herritarrak mozorrotzera gonbidatzea



**ESKU-HARTZEA** Herritarren esku-hartzea ezinbestekoa da. Argazkian, *Las Txolintxos de Txarrantxa*, iaz. GOIENKARIA

**IKER BARANDIARAN** > BERGARA

Gaurtik, egubakoitza, martitzenera bitartean ekintza ugari egingo dituzte herrian. Udaleko Kultura Sailak antolatu ditu gehienak, eta merkatarien Bedelkar elkarteak ere egin du jai horiek bultzatzeko ahalegina.

Herriko Musika Bandak gaur, egubakoitza, eguerdian Aratusteetako dantzak eta bestelako piezak eskainiko ditu Udal Pilotalekuan. Horrez gain, 2001 Odyssey Orchestrak *Saturday night fever* izeneko ikuskizuna egingo du.

**UME ETA GAZTEENDAKO BATEZ ERE**

Urtero moduan, ume eta gaztetxoek protagonismo handia izango dute: Pirritx eta Porrotx pailazoen ikuskizuna, Arrizuriagan egingo duten *Gazte! Aratusteak* mozorro-askaria, Ane Monna, Oskola eta Karramarroi taldearen *Amama Pantxikaren altxor ezkutua* ikuskizuna eta zapatu gaueko rock kontzertua, besteak beste. Azken horretan, Bergarako Aby-Kem, Elorrioko Lor eta Arrasateko Gose taldeak izango dira San Martin plazan.

**GIROA JARTZEN DUENA SARITU**

Merkatarien Bedelkar elkarteak hamar urtetik gora darama Aratusteak gehien animatzen dituen lagun taldeari saria ematen. Ez dute dotoretasuna ezta orijinaltasuna sarituko, giroa jartzea baizik. Herriko ostalaritzan gastatzeko 160 euro emango dizkiote koadrila horri.

## Aratusteetako egitaraua

**25, zapatua**

16:30: Pirritx eta Porrotx pailazoen *Maite zaitut* ikuskizuna Udal Pilotalekuan.

18:00: Erraldoi, kiliki eta buruhandien kalejira.

19:00: Mozorro kalejira Pasai Txarangarekin San Martin plazan hasita, eta ondoren kale animazioa 22:30ak bitartean.

22:30: Gose, Aby-Kem eta Lor taldeen kontzertua San Martin plazan.

**26, domeka**

18:00: Ane Monna, Oskola eta Karramarroi taldearen *Amama Pantxikaren altxor ezkutua* musika-antzerkia Udal Pilotalekuan.

**28, martitzena**

16:30: Bandaren kalejira.

16:30-19:00: Biduri Sound DJaren emanaldia San Martin Plazan. 19:30ean, su danborrak Deabru Beltzak taldearen perkusio eta su artifizialekin kalejira.

> JAIAK

### Mendekosteetako kontzertuak antolatzeko batzarra

Bergarako Mendekoste jaietan Bideberrin egiten dituzten kontzertuek izen handia dute. Horretarako, urtero herritarrez osatutako lantaldeak ibiltzen dira horiek antolatzen.

Dagoeneko iritsi da aurtengo jaietako kontzertuak antolatzeko ordua, eta Udaleko Kultura Sailetik dei egin dute lan hori hartu gura duten herritarrak batzeko.

Martxoaren 9an, eguena, egingo dute batzarra kultura etxean, 19:00etan. Eta Udaletik gonbidapena egin diete musikazaleei, ikusi gura dituzten taldeen zerrenda eta iradokizunak eraman ditzaten.

> ANTZERKIA

### 'Todos nacemos vascos'-erako sarrerak salgai

Hilaren 31n Glu Glu antzerki taldeak *Todos nacemos vascos* antzezlana egingo du Udal Pilotalekuan. 22:30ean izango da, eta sarrerak dagoeneko salgai daude ohiko lekuetan.

Antzezlan hori ETBko *Vaya semanita* umorezko saioko lantaldeko lagunek egin zuten *Todos nacemos vascos* liburu arrakastatsuan oinarrituta dago.

Honako aktoreek esku hartuko dute: Gurutze Beitia, Gorka Aginagalde, Josean de Miguel eta Galder Perezek, besteak beste. Orain arte egindako ikuskizunetan sarrera guztiak saldu dituzte.

J. Alberto Gorosabel Mendizabal doktorea
COEG
- Odontologia orokorra
- Ahoko zirugia
- Inplanteen zirugia
- Ortodontzia
LAGUN-ARO
AEGON
PADI
HAURREN HORTZAK ZAINTZEKO PROGRAMA
Tel.: 943 76 56 88
Fraiskozuri 5 A, I-D. Bergara

ALTUBE
TAILERRAK S.L
• Estanpaziorako piezak eta tresnak
• Mekanizatzea eta arteztea
Urarte 22 BERGARA 94 posta-kutxa
Tel.: 943 76 22 74
Faxa: 943 76 04 99

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA


Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57
1929az geroztik zure zerbitzura

MIZPILDI

OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

UGARTE
AROZTEGIA-ALTZARIAK
Arotz lanak orokorrean
Horma armairuak
Altzariak • Leihoak • Ateak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea • BERGARA
Tel.: 943 03 46 30
ERAKUSKETA ETA TAILERRA
San Juan 1A • BERGARA
Tel.: 943 76 54 91/ Faxa: 943 76 08 04

# Bedelkarren Gabonetako zozketako irabazleak

## 100 euroko 30 sari

**08.557** Ez da irabazlerik agertu
**62.485** Isabel Vargas
**50.891** Maitane Aranzabal
**63.003** Agustina Herran
**67.734** Silvia Marcó
**14.694** Ignacio Olabarria
**06.747** Esther Romero
**73.642** Luisi Lasa
**27.945** Begoña Etxaniz
**75.183** Ez da irabazlerik agertu

**45.093** Itziar Osorio
**81.338** Ez da irabazlerik agertu
**57.489** Luis Mª Zabala
**51.823** Isabel Sanchez
**47.980** Beatriz Lete
**21.447** Ez da irabazlerik agertu
**84.708** Ez da irabazlerik agertu
**76.620** Jabier Seco
**30.735** Mertxe Lasa
**49.995** Asun Nuñez

**25.511** Jose Mª Alberdi
**34.832** Iñaki Irastorza
**66.413** Ez da irabazlerik agertu
**40.926** Ez da irabazlerik agertu
**17.503** Ez da irabazlerik agertu
**69.599** Ez da irabazlerik agertu
**26.541** Ez da irabazlerik agertu
**10.335** Iñaki Mendibil
**20.085** Margari Etxeberria
**39.018** Ez da irabazlerik agertu

BEDELKAR
BERGARAKO DENDARI, OSTALARI eta ZERBITZUEN ELKARTEA

**Zorionak!**

**Oharra:** Zure zenbakia zerrendan agertzen bada, deitu ezazu **943 76 04 68** telefonora eta utzi erantzungailuan zure izena eta telefonoa.




**ANGIOZARKO HERRI ESKOLA 943 761 619**



JOXEAN IÑARRA

## Shotokan taldeko karatekak neurri politean, Oñatin

Debagoieneko hainbat karate talderekin batera izan ziren Bergarako Shotokan taldekoak Oñatin, Gipuzkoako Txapelketarako sailkatzeko kanporaketa saioan. Bergarakoek neurri polita eman zuten. Hala, kata modalitatean, gerriko zuri eta laranja artean, alebin mailan lehena izan zen Mikel Manso eta bigarrena Dorleta Narbaiza. Eta gerriko berde eta marroi artean, berriz, Haizea Iñarra, Jon Urkia, Jone Agirrezabal eta Josu Alonso sailkatu ziren aurreneko postuetan. Infantil mailan, gerriko laranjan Deian Kerexeta izan zen nabarmenena, eta gerriko berdetik marroira artean Mikel Aginagalde, Iker Moreno, Markel Lopez eta Enero Cruz izan ziren onenak. Kumite modalitatean ere maila polita erakutsi zuten Shotokanekoek.

**ESKUBALOIA** > LEHEN TERRITORIAL MAILA

# Bergarak derbia jokatuko du gaur Oñatiren kontra 19:45ean

Oñatiko Zubikoa kiroldegian neurtuko dituzte indarrak Arrikrutz Oñatiko Kobak taldearen kontra

**X.U.**> BERGARA

Asteburuan Aratusteak ospatuko dituztenez, Oñatiko eta Bergarako taldeek erabaki dute derbia gaur arratsaldera aurreratzea. Hala, 19:45ean hasiko dute ibarreko taldeen arteko zeingehiagoka. Sailkapenari begiratuz gero, bi talde horiek ez dute igoera faserako sailkatzeko aukerarik. Eta, ez dute motiborik beheko postuengatik beldur izateko. Hala, sailkapenaren erdialdean egoteak sor dezakeen erlaxazioa hausteko ondo baino hobeto etorriko zaie bi taldeei gaurko derbia.

Joan den astean oñatiarrek berdindu egin zuten Leizaranen kantxan; Bergarakoei, berriz, indarra eman die Usurbilen kontrako garaipenak. Sailkapenean seigarren postuan dago Arrikrutz Oñatiko Kobak, eta zazpigarrena da Bergara. Mahoneroek gaur irabazten badute, baina, ez dute sailkapenean aurrera egingo, oñatiarrek lau puntuko aldea dute-eta; hori bai, alde hori nabarmen murriztuko litzateke.

Kontuak kontu, hiru partidu baino ez dira geratzen txapelketa amaitzeko, eta ez ahaztu Bergarak igoera faserako sailkatzeko lehian dabilen Arrasateren kantxara joan beharko duela datorren astean. Bi derbi jarraian, horrenbestez.

**GIMNASIA ERRITMIKOA**

Gipuzkoako B mailako kanporaketetan izan ziren Ariznoa taldeko gimnastak. Taldeka, alebin mailan Antzuolako Herri Ikastolakoak lehenak izan ziren, eta beste horrenbeste egin zuten IES Ipintzako gimnastek; infantil mailan, baina.

Bakarka, berriz, lehena izan zen Onintza Legorburu, hirugarrena Jone Larrañaga, laugarrena Jennifer Pineda eta bederatzigarrena Alaitz Urkiola.

**FUTBOLA**

# Bergarak ez du jokatuko asteburuan

**X.U.** > BERGARA

Aratusteak direla-eta, erregional mailan atsedena izango dute oraingo asteburuan. Hala, Bergarakoek atzo iluneran jokatu zuten Amaikak Bat taldearen kontra, baina ezinezkoa izan da partiduaren emaitza ematea, norgehiagoka hori jokatu aurretik amaitu behar izan dugu-eta esku artean duzuen GOIENKARIA. Baina galdu ala irabazi, Bergarak aurreneko postuetan jarraituko du, eta Legazpiko Gaztetxearen kontra jokatuko dute datorren astean, kanpoan. Sailkapenak ez du erakusten talde horrek eman dezakeena.

## labegaraieta

**EMAITZAK**

| | |
|---|---|
| Belengua - Makanaki | 2-17 |
| Komando Pip. - Txakurra | 9-1 |
| Agirrebeña - Paco cia | 5-4 |
| Teatekh - Fit automotion | 8-4 |
| Mongatxurra - Errotagain jat. | 2-3 |
| Agirrebeña - Irubide | 13-2 |
| Niu Tim - Makanaki | 2-5 |
| A ze flaxa - Kalaveras | 3-9 |
| SDTNT - Santana Rivers | 4-4 |
| Alls Blac's - Paco cia | 19-5 |
| Pub Irish - Pirulotarrak | 7-9 |

**PARTIDUAK**

**Otsailak 25, zapatuan (kanpoan)**

| | | |
|---|---|---|
| **10:30** | Mongatxurra - Santana Riv. | **Antolatz.** |
| **16:00** | A ze flaxa - Pirulotarrak | **SDTNT** |
| **17:00** | SDTNT - Kalaveras | **A ze flaxa** |

**Otsailak 26, domeka (barruan)**

| | | |
|---|---|---|
| **09:30** | Teatekh - Errotagain | **Fit automo.** |
| **10:30** | Pub Irish - Fit autmoc. | **Teatekh** |
| **11:30** | All Black's - Irubide Jat. | **Pub Irish** |
| **16:00** | Komando Pip. - Guri guri | **Belengua** |
| **17:00** | Belengua Tab. - Txakurra | **Egurre** |
| **18:00** | Niu Tim - Egurre | **Txakurra** |

**SAILKAPENA**

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| **1.** | Alls Black's | 42 | 15 |
| **2.** | Agirrebeña | 39 | 16 |
| **3.** | Teatekh | 38 | 16 |
| **4.** | Guri guri | 34 | 13 |
| **5.** | Kalaveras | 33 | 15 |
| **6.** | Errotagain | 33 | 15 |
| **7.** | A ze flaxa | 28 | 16 |
| **8.** | Makanaki | 28 | 16 |
| **9.** | Mongatxurra | 25 | 15 |
| **10.** | Niu Tim | 23 | 16 |
| **11.** | Pirulotarrak | 21 | 15 |
| **12.** | Pub Irish | 19 | 16 |
| **13.** | Paco Cia | 18 | 16 |
| **14.** | Egurre | 18 | 14 |
| **15.** | Santana Rivers | 17 | 15 |
| **16.** | K.Piperrak | 16 | 15 |
| **17.** | Belengua Tab | 13 | 15 |
| **18.** | SDTNT | 12 | 16 |
| **19.** | Irubide Jatetxea | 10 | 14 |
| **20.** | Fit Automotion | 3 | 15 |
| **21.** | Txakurrak | 3 | 15 |

### Zigorrez betetako jardunaldia izango da

Antolatzaileek ondorengo zigorren berri eman digute: Paco cia taldeko Paco Santiagok bi partiduko zigorra bete beharko du epaileak txartel urdina erakutsi ziolako. Horrekin batera, hiru txartel izateagatik partidu bateko zigorra dute Juan Carlos Rodrigok (Irubide), Jose Miguel Bermejok (Kalaveras) eta Iker Retesek (Pirulotarrak). Azken jokalari horrek, gainera, beste norgehiagoka bateko zigorra bete beharko du, azkeneko norgehiagokan bi txartel hori jarraian ikustea

AZPEITXI
Jatetxea
Aranerreka 13 behea. Bergara
943 76 55 00

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

SANTOS
TIEN 21
Etxetresna elektrikoak eta argiztapena
Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

HIRU BIDE
JATETXEA-BENTA
Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

nire bidaia hura

## Naiara Bernal
Erromara > 2005eko abenduan

# "Erromako kaleetan aurkitzen den edozein harrik historia du eta inpresioa egiten du"

IRATI AGIRREAZALDEGI > BERGARA

**Panderoa jotzen du Naiara Bernalek, eta Erroman Euskal Astea ospatzen zutela-eta trikitixa jotzera gonbidatu zituzten. Bergarako lau lagun, trikitilari eta dantzariak eta Hendaiako bertsolari bat joan ziren Italiako hiriburura. Hango ibilerak kontatu dizkigu Naiara Bernalek.**


Naiara Bernal.

Nahiko ezohikoa da Naiara Bernalek eta hainbat lagunek Erromara egindako bidaia, edo bai gutxienez bidaiaren aitzakia. Euskal Astea zela-eta trikitixa jotzera gonbidatu zituzten eta soinua eta panderoa hartuta egin zuten bidaia. "Gonbidapena jaso genuen eta Jardun elkarteko trikitixa irakasleak joan ginen; gurekin batera Bergarako bi dantzari eta Hendaiako bertsolari bat ere", dio Naiara Bernalek.

Hegazkinez Santandertik abiatuta egin zuten bidaia, eta modurik merkeena hori dela esan digu Naiarak: "Guk ez genuen bidaia txartela erosi, gonbidatuta joan ginelako, baina Ryanair konpainiaren bitartez bidaia egitea merke ateratzen dela esaten dute". Egonaldia Bergarako Maider Elkororen etxean egin dute.

### OKUPA ETXEAK

Euskal Astea zela-eta egun batean trikitixa saioa eskaini zuten bergararrek, baina gainontzean Erroma ezagutzeko aprobetxatu dute bidaia. Erromako foroa, Koliseoa, Fontana di Trevi... Leku ezagunenak bisitatu zituzten; baina jendearendako oso ohikoak ez diren txokoak ikusteko aukera ere izan zuten: hainbat okupa etxe ikusi dituzte. Esate baterako, aitzinako gotorleku batean dagoen etxe batean izan dira. Barruan zinema aretoa, musika estudioak, liburu denda... dituzte. Hantxe egin zuten entsegua, eta okupek eurek egindako ardoa dastatu zuten.

"Gehienek hemendik joanda betiko lekuak bisitatzen dituzte; eta Koliseoa ikustea merezi duela esango nuke. Baina zerbait ezberdina ezagutu nahi duenari proposatuko nioke okupen etxeetara joatea. Askori, beharbada beldurra emango die, baina etxean bezala sentiarazten dute bertako bizilagunek", esan digu Naiarak.

Erromako monumentuek ere atentzioa eman diete: "Kaletik joan eta edozein harrik inpresioa egiten du, euren historia dutela ikusten da". Hiriaren sarrerako arkuak ere bitxiak iruditu zitzaizkion Naiarari: "Arkuak igarota hiriaren erdian sartu edo bertatik irteten dela diote, baina berez Erroman bertan geunden".

Denbora izan zen bidaia horretako muga nagusia, eta bost lagun joanda denendako plan egokiak egitea ere ez zen oso erraza izan, Naiararen ustez. "Egun gutxi egin genituen, eta Vatikanora, esaterako, ez ginen joan. Domekan ginen joatekoak, baina jende asko egongo zela-eta ez joateko gomendatu ziguten. Museoak ere ez ditugu bisitatu, oso goiz ixten dituzte-eta".

Euskaldunak etxean moduan egoteko beste txoko bat ere aurkitu zuten Erroman Naiarak eta lagunek, Geroa taberna: "Italiarrak dabiltza lanean, baina euskara ikasten ari dira eta euskaraz egiten dute berba. Hasieran arraroa egin zitzaigun, baina baita poztekoa ere".

### EGOKIENA TRANBIA

Erromara itzuliko litzatekeen galdetuta, baietz esan digu Naiarak, baina beste tokiren batera joatea nahiago duela: "Hiri estresagarria iruditu zait. Tranbian, metroan... jende pilaketak aurkitu genituen, eta hori da gutxien gustatu zaidana. Kalean lasai ibil daiteke, baina bestela ez zait oso segurua iruditu, batez ere garraio publikoa". Hala ere, hiri barruan bidaiatzeko modurik onena tranbia da, Naiararen ustez.

**"Erromako etxe okupatuak bisitatzea gomendatuko nioke hemengo jendeari"**

**"Hirian barrena bidaiatzeko modurik erosoenak tranbia eta metroa dira"**


Xabi, Naiara, Miren, Unai eta Aritz, Piazza Veneziako Altare della Patria-ren aurrean.

bere ustez


Iñigo Iñurrategi

## Lagundu, autuan gaitzak jota nago...

Autua erabiltzia arnasia hartzia bezela derrigorrezko bihurtu dogu gutariko askok. Ezin geinke auto barik bizi. Edozer gauzatarako darabilgu lau erruberakua eta azkenian mendian hartu gaittu. Bere eskubidiak gurien aurretik jarri dittugu.

Gehixenoi pentsatzen jaku normala jendia behin eta berriz autuak aparkatzeko leku faltiaz kejatzia.

Normala pentsatzen jaku guk ordaintzen dittugun zergen zatirik haundixenetarikua karreteratan gastatzia.

**"Normala pentsatzen jaku jendia autuak aparkatzeko leku faltiaz kejatzia"**

Normala pentsatzen jaku, gainera, gure herrixa diseinatzerako orduan irizpide erabakiorrenetariko bat autuendako bide eta aparkalekuak eittia izatia.

Eta zelan gare gu? Punto muertuan. Gaixorik gare, ni neu lehenengua: sendatuko gaittuen terapixan bat aldarrikatzen dot. Bestela gaizki bihar dogu. Agur pertsonia.

Behera Osakidetza eta gora ITVa, mekanika tallerrak (publikuak gañera), pneumatiko, zigueñal eta tuboskapiak.

Kendu azera ta parkiok, zabaldu bide, super-bide eta, batez be, super-aparkalekuak.

Eta babes ofizialeko automobilak noizko?

Kontuz ibili errebueltia dator eta...!

Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak
610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA
Pintura-lanak orokorrean
•
Pintura industriala
•
Zoru arinak: sintasolak, moketak...

FRONTOI

TABERNA
Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

JOXAN
ARRAINDEGIA

Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29


Aratusteak
Inauteriak
KOOP. E.
Ondo pasa!
EGUZKiGRAF
inprimategia
Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba ibilbidea
20550 Aretxabaleta
Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941
E-mail: info@eguzkigraf.com


Gora
Aratusteak!
TABERNA-BERRI
JATETXEA
Durana 26 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 20 67



**ETXEBIZITZAK** Iralabarri plazako etxebizitzak izan dira banatu dituzten azkenak; gero, Deba ibai ostekoak eta CVL lantegia zegoen zonakoak etorriko dira. M.A.

**HIRIGINTZA** > ARAU SUBSIDIARIOAK

# Arauen berrikusketa onartu dute herria asko hazi delako

Beste herri batzuetan ez bezala biztanleriak gora egin du: sei urtean ia 400 lagun

Orain sei urte ia 800 etxebizitza aurreikusi zituzten, eta horietatik %70 emanda daude

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Arau subsidiarioak berrikustea onartu zuen udalbatzarrak otsailaren 13an egindako ezohiko osoko bilkuran. Orain, Foru Aldundiari egin dio eskaera, eta onartzen duenean berrikusketa lanak hasiko dituzte.

**BERRIKUSKETA BEHARREZKOA**

Arau subsidiarioek herria zela antolatu arautzen dute: etxebizitzak non egin daitezkeen, industriarako lurrak zeintzuk diren, eta abar. Bada, horiek onartutakoan, arauetatik kanpo ezin da ezer egin, ezta eraiki ere. Aretxabaletako arau subsidiarioak 2000ko maiatzean onartu zituen behin betiko Foru Aldundiak, eta berrikusketa zortzi urte barru egitea zehaztu zuten. Ordutik hona sei urte pasatu dira, baina tarte horretan herria izugarri hazi da, bai biztanle kopuruari dagokionez, bai etxebizitzei dagokienez, bai industria erabilerarako lurrei dagokienez. Hori horrela, Udalak herriaren gaineko txostena egiteko eskatu zion Juan Ramon Lombera arkitektoari, eta, haren aburuz, egokia ez ezik, beharrezkoa da arauok berrikustea.

**ETXEBIZITZA ASKO EMANDA**

Lau arrazoik gomendatzen dute arauak berrikustea. 2000. urtean, Aretxabaletak 6.107 biztanle zituen; aste honetan bertan, ostera, 6.495. Arauek diote 6.300 biztanletik pasatzerakoan berrikusketa egin daitekeela.

Etxebizitzen garapena da beste arrazoi bat. Orain dela sei urte 761 etxebizitza egin zitezkeela herrian aurreikusi zuten arauek; bada, horietatik 661 merkatuan daude dagoeneko eta 532 emanda; hau da, %70 baino gehiago.

Jarduera ekonomikoaren garapenari dagokion datua ere esanguratsua da, eta kontuan hartu dute txostena egiterakoan. 2000. urtean, industriarako aurreikusitako lurrak 56.600 metro koadro ziren, eta dagoeneko erabilita daudenak 51.560 dira. Hortaz, industriarako utzitako lurren %70 erabilita dago.

Laugarren arrazoiak lurraldearen garapenarekin dauka zerikusia, hau da, Maltzaga-Gasteiz autobidearekin. Orain dela sei urteko arauek aipatzen zuten proiektua, baina gaur, gainean daukaguna da eta herriarengan eragin zuzena izango duena.

KONTUAN HARTZEKO

## Berrikusketa gomendatzen duten eragileak

Egokia, aproposa eta beharrezkoa da arauok berrikustea. Egokia da berrikusketarako lau arrazoiak betetzen dituelako: 6.300 biztanletik gora izatea, aurreikusitako etxebizitzen %70 emanda, industria garapenerako lurrak %30 baino gutxiago eta autobidea herritik pasatzea. Aproposa da hainbat ekimen publiko zein pribatu daudelako onartu berri edo onartzeko eta lurralde antolamenduari dagokion hainbat lege bidean; Lurzoruaren Legea, esaterako. Beharrezkoa da, lurzorua agortzekotan dagoelako eta horrek garapen ekonomiko zein soziala zailtzen duelako.

DATUA

# 6.495

**Azken sei urteotan asko egin du gora Aretxabaletako biztanle kopuruak. 2000. urtean 6.107 biztanle zituen, eta sei urte geroago 388 gehiago. Hala, 2006ko otsailean 6.495 biztanle zituen Aretxabaletak.**

ESALDIA

**"2000. urtean onartutako Aretxabaletako arau subsidiarioak berrikustea egokia, aproposa eta beharrezkoa da "**

**Juan Ramon Lombera** > Arkitektoa



GUREA
TABERNA
Ondo pasa Aratusteetan!
Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64

**JAIAK** > ARATUSTEAK

# Herritarrak gertu '23F+3' deiak iragarritako Aratusteak ospatzeko

Gertu dauka egitaraua Kultura Sailak eta gertu daukate mozorroa koadrila eta herritarrek. Has daitezela Aratusteak!

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

Azken orduko gertaketa lanak egiten dabiltza gazte, heldu zein umeak, Aratusteak gainean ditugu-eta. Aurten, gainera, beste batzuetan baino egonezin handiagoarekin datoz; izan ere, aspaldi agertu zitzaizkigun herriko baztertguztietan *23F+3* zioten kartelak. Etzi jakingo dugu estatu kolpea izango dugun herrian edo militarrek girotu behar diguten Aratuste-domeka.

**IA 400 LAGUN BAZKARIRA**

Herriko koadrilek batzar bat baino gehiago egin zuten Udaleko ordezkariekin Aratuste jaiak hobetzeko asmoarekin. Ez zuten lortu gura zuten guztia, baina herri bazkaria egingo da eskatutako moduan. Joan zen domekan bukatu zen txartelak erosteko epea, eta uste baino askoz gehiagok erosi dituzte, 392 lagunek. Gainera, txartel barik geratu dira hainbat herritar, baina gehiagorendako ez dagoela lekurik kirol etxean adierazi dute Kultura Saileko arduradunek. Eguerdi ingurutik ilunkera bitartean jaia hilda geratzen zela zioten koadrilek; zalantza barik, aurten giro aparta sortuko da kirol etxean.

**MARTITZENEAN UMEAK**

Aratuste-martitzena ume eta gaztetxoendako gertatutako jaia izango da. Goiz partean elkartuko dira Herriko Plazan Pausoka Haur Eskolako 2 urteko umeak, Kurtzebarri eskolako, eta Basabeazpi eta Almen guneetako Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleak.

Goizean hasitako jaiak arratsaldean izango du jarraipena, eta Txinoaren Hileta gauean egin beharrean aurten ilunkeran egingo dute, 20:00etan, hain zuzen.

## Aratusteetako egitaraua

**26, domeka**
- 12:00: Koadrilen kalejira Errekabarren kaletik Duranara. Irten aurretik plazan eta Lausitta kalean elkartuko dira.
- 12:30: Txino Dantza aurtengo Santa Ageda neska-mutilen eskutik Durana eta Mitarte kaleetan.
- 14:30: Herri bazkaria kirol etxean.
- 17:30: Koadrilak kirol etxetik Herriko Plazara joango dira txarangaren atzetik.
- 18:30: Mozorro lehiaketaren sari banaketa udaletxean.
- 21:30: Akelarre txaranga herriko kaleetan jaia bukatu arte.

**28, martitzena**
- 10:30: Ikastetxeetako umeak Herriko Plazan elkartuko dira abestu eta dantzan egiteko.
- 11:15: Incansables txarangarekin kalejira.
- 16:30: Incansables txaranga plazan.
- 18:00: Buruhandiak aterako dira txarangarekin.
- 18:30: Euskal disko festa plazan.
- 20:00: Txinoaren Hileta. Lutoz jantzita eta kandelekin joan behar da hilkutxaren atzetik Mitarte kaletik plazaraino, eta han erre egingo dute.

**ANTZERKIA** > IKASTAROA

# Antzerki ikastaroa Trilkimailu taldearen eskutik

16 urtetik gorakoendako antolatu du Loramendi EEk eta martxoko egubakoitzetan egingo dute

**M.A.** > ARETXABALETA

Antzerkiaren gaineko ikastaroa egin ostean sortu zuten Trilkimailu taldea herriko hainbat gaztek, eta orain eurak izango dira ikastaroa emango dutenak.

**JOLASAK ETA ARIKETAK**

Trilkimailu taldeko Beñat Zamalloak izango du ikastaroaren ardura, eta gaztiz praktikoa gertatu du. "Antzerkiarekin lotutako jolasak eta ariketak egingo ditugu", dio Beñatek, eta beste asmo batzuk ere baditu: "Badaukat antzerkigile ezagunek idatzitako gidoiak ikusi eta lantzeko asmoa ere". Hainbat adinetako jendea elkartzea oso interesgarria litzatekeela gaineratu du.

Ikastarorako deia 16 urtetik gorako guztiei egin die Loramendi EEk. Martxoko egubakoitz guztietan emango ditu eskolak Beñatek, 18:00etatik 20:00etara bitartean, udaletxe zaharrean. Ikastarora datozenek maiatzean Euskararen Egunean egingo duten antzerki emanaldian hartuko dute parte.



**TRILKIMAILU** Hainbat antzezlan eskaini ditu Trilkimailu taldeak. BEÑAT ZAMALLOA

> GAZTEAK

### Gaztelekuarendako logotipoa hautatzeko lehiaketa deitu dute

Atxagazte izena jarri zioten gaztelekuari duela hilabete batzuk, eta orain logotipo lehiaketa antolatu dute. Atxagazte izenak agertu beharko du logotipoan eta A-4 formatuan eraman behar dira marrazkiak kartazal handi baten. Kartazal txikian norberaren izena eta datuak sartuko dituzte. Martxoaren 12an bukatuko da aurkezteko epea eta 18an eta 19an erakusketa egingo dute. Saria martxoaren 26an emango dute, urte guztiko irteerak debalde.

> ERRETIRATUAK

### Aingeru Guarda eta hausterre-eguna martxoaren 1ean

Aingeru Guarda eguna ospatuko dute Basotxo Erretiratuen Elkarteko kideek eguaztenean, martxoak 1. Salda beroa eskainiko diete Basotxoko tabernan lehenengo, meza izango dute gero 13:00etan, Agustindarren komentuan, eta ostean, bazkaria Taberna Berri jatetxean. Quintanillaren musikak girotuko die bazkalostea.

Eguaztenean hausterre-eguna ere bada, hau da, Garizumaren hasiera. Hala, bai 13:00etan erretiratuendako esango duten mezan, bai 19:00etan parrokiakoan errautsa ezarriko dute.

> KZGUNEA

### Interneten gainean guztia jakiteko hainbat ikastaro

Gertu ditu martxoko ikastaroak KZgunearen arduradun Aitor Madridek. Interneten gaineko ikastaro bi egingo ditu, bata hilaren 6an hasita eta bestea hilaren 20an. Argazki digitalak zelan erabili, lana aurkitzeko Internetek eskaintzen dituen aukera guztien berri izan edo norberaren bankuko datuekin lan egiten ikasi gura duenak badaki nora hurreratu.

Orly aretxabaleta
Herriko plaza Aretxabaleta
Tel.: 943 79 09 33
Ondo ibili Aratusteetan!

mingainari tiraka

**Leire Pagaldai** > Leire elikadura eta dietetika zentroko arduraduna

# "Kiloak kentzeak asko arduratzen gaitu"

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA

**Abenduan zabaldu zuen zentroa eta harrituta dago aretxabaletarrak zenbat kezkatzen gaituen elikadurak. Hala ere, osasunak baino gehiago, kiloak kentzeak arduratzen gaituela dio.**



**Zertarako zabaldu duzu zentroa?**
Argaltzeko lekua dela bakarrik uste dute askok, baina hori baino askoz gehiago egiten dut: zela elikatu erakutsi, osasun arazoak eta kirola egiteko arazoak dituztenei dietak jarri eta aholkuak eman…

**Hortaz, kiloek kezkatu egiten gaituzte?**
Bai, zalantza barik. Askok badakite zer egin behar den argaltzeko, baina norbait gainean izan gura dute zaintzeko.

**Zelako herritarrak datoz?**
Denetik, emakume zein gizon, eta adin tarte zabala daukat, gaztetxoetatik hasi eta edadetuenetaraino. Menopausia inguruan dabiltzan emakumeak asko kezkatzen dira.

**Eta erretzen utzi duenik?**
Bai, kilotxo batzuk hartu dituztelako.

**Gero eta ume gizenagoak daudela diote.**
Bai, hala diote, baina ezingo nuke esan. Hala ere, uste dut gero eta okerrago jaten dutela, gurasoek baimenduta.

**Noiz hasi behar da zela jan erakusten?**
Ohitura onak txiki-txikitatik erakutsi behar zaizkie. Gainera, umeen ohiturak aldatzeko etxekoenak aldatu behar dira.

**Gero eta ohitura handiagoa dugu aurrez gertatutako janariak hartzeko. Osasunean eragina dute?**
Bai. Gatz, koipe eta kaloria asko izaten dituzte eta ez da askorik jan behar. Hobeak dira izoztutakoak, eta etxean gertatutakoen modukorik ez dago.

**Udarako kiloak kentzeko noiz hasi behar gara lanean?**
Kendu gura diren kiloen arabera, baina azken hilabetean ezin da mirariragain egin.

**Kiloak kendu bai, baina pisua mantendu?**
Sarritan gogorragoa da; horregatik, aldi baten, jarraipena egiten diet bezeroei.

## Autobusa bete herritar izan zen eskiatzen Murrukixorekin


IKER AKIZU

Irteera bi egin ditu Murrukixo Mendizale Elkarteak otsailean. Lehenengoa otsail hasieran egin zuten eta 13 lagun joan ziren. Egun dotoreak tokatu zitzaizkien, elur oso onarekin, eta zeharkaldiko eskia egin zuten 2.000 metrotik gora dituzten Canal Roya eta Cuylaret mendietan.

Bigarrena joan zen astean egin zuten, eta autobusa beteta joan zen Pirinioetara: 57 lagun, hain zuzen. Zapatuan Luz Ardidenen ibili ziren eguraldi ederra lagun, eta domekan Bareges-La Mongie inguruan eskiatu zuten. Gustura itzuli ziren guztiak, inork minik hartu barik.

bere ustez


Irati Pagoaga

## Kontua da: 18/98+, 23F+3

Izen leike geroglifiko bat, izen leike matematika ariketa soil bat, izen leike zenbakixen segida bat… Zoritxarrez, ez die Euskal Herrixan pasiuen dabitzen zenbaki hutsak, edukiz betetako numeruek die. Zifra honein atzien datu eta kontu ugari gordeten die.

18/98+: gure artian azken aldixen ezagun egin dan zifra akabera bakua da hauxe. Buztanien daroien + horrek batu eta batu egiten dau. 18 eta 98 artien dauen barra horrek barriz, ez dau etenik egiten.

**"Buztanien daroien + horrek batu egiten dau. 18 eta 98 artien dauen barrak ez dau etenik egiten"**

Madrilen aldiz, barra horrek marketan dau epaiketa saiotik saiora emuten dabilen etena. Garbi geratu da egin dien mobilizazino desberdinetan, + ikurran ordez – jarri bihar dogula, eta behingoz epaiketa benetan eten; era honetako epaiketak gehiago eman ez daitezen.

23F+3: Aretxabaletatik aspaldi honetan agertu ez zarienok, ez dozue jakingo zer dan hau, baina herrixan bolo-bolo daz karaktere honeaz betetako kartelak. Oin arte behintzat 23F danok dakigu zer dan, eta zer ekarten dauen gogora. +3, hamen dau gakua, zer pasauko ete da 26Fan Aretxabaletan? Erantzunik ez dauket. Hori jakiteko, pasau Karnabal domekan Aretxabaletatik eta enterauko zarie!

LEIBAR
arrandegia

Loramendi 1
Tel.: 943 79 18 33
Mitarte kalea 1
Tel.: 943 77 13 79
Aretxabaleta

ARTZUBI
ELEKTRAGAILUAK
ARTZUBI ETXETRESNA ELEKTRIKOAK
ACTIVA
Iparragirre kalea 4
ARETXABALETA
Tel.: 943 53 31 86

"Ondo ibili Inauterietan!"

**HIRIGINTZA** > 136 ETXEBIZITZA KANPOTIK BERRITZEKO EKIMENA

# Dorleta auzoko 17 ataritako fatxadak berritzeko bat egin dute bizilagunek

136 etxebizitza koordinatu behar izan dituzte, eta une honetan aurrekontuak aztertzen dabiltza

Zokaloak jarri eta paretak margotzeko gutxienez 500.000 euroko aurrekontua beharko dute

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Aspalditik dator Dorleta auzoko etxeetako fatxadak berritzeko asmoa, aurretik auzoan horren gaineko hainbat saiakera egin dituzte-eta. Azkenekoa 2004koa da, eta horrekin jarraitzen dute. 136 etxebizitza ordezkatzen dituzten atarietako arduradunak elkartu egin ziren eta egin beharreko lan guztiak koordinatzen hasi ziren. Sasoi hartan jakin zuten Udalak Dorleta auzoa berriro urbanizatzeko lanak egin gura zituela. Horregatik, Udalaren asmo hori zehaztu arte itxarotea erabaki zuten.

Hasiera baten, auzotarren asmoa zen auzoa urbanizatu behar duen enpresari fatxadak hobetzeko eskaintza egitea, baina azkenean ez da posible izan auzotarren eta Fonorte enpresaren artean adostasunik egitea. Horrenbestez, auzotarrak beste enpresa batzuekin harremanetan jarri dira.

**AURREKONTUAK AZTERTZEN**

Hiru enpresarekin harremanetan dabiltza egunotan: Ramel, Construcciones Iñigo eta Donostia aldeko beste bat, hain zuzen ere. Orain, aparejadore bat dabil hiru enpresa horien aurrekontuak aztertzen. Laster aparejadorea atarietako arduradunekin harremanetan jarriko da, eta horren ostean auzotar guztiei lan horien gaineko zehaztasun guztiak emango dizkiete, azkeneko erabakia har dezaten.

Auzoko 17 atari horien baitan 136 etxebizitza daude, eta adin askotako jendea bizi da: adindunak, gazteak... Horren ondorioz, auzotarren artean lanak egiteko orotariko erritmo motak daude. Horiek guztiak bateratzen saiatuko dira arduradunak.

**MARGOTU ETA BERRITU**

Etxe horietan egin beharreko lan garrantzitsuena honako hau da: lurretik lehenengo solairura artean zokaloa jartzea paretak hartzen duen hezetasuna saihesteko asmotan. Horrez gain, hortik gora pareta guztiak margotu eta konpondu egin beharko dituzte, baita balkoietan antioxidatzailea eman ere.

Dorleta auzoko batzarrak jakinarazi digunez, egin beharreko lanek gutxienez 500.000 euroko aurrekontua izango dute, BEZa kontuan hartu barik.

**BESTE PREMIA BAT: IGOGAILUAK**

Dorleta auzoko etxebizitzak orain dela 40 bat urte eraiki zituzten. Auzo lasaia da eta berdegune asko dauzka, baina badu hobekuntzak egiteko premia. Hain zuzen ere, epe ertainean igogailuak ere egin beharko dituztela jakinarazi digute auzotarrek.




IKER BARANDIARAN

## Jaurlaritzaren kontsumoaren gaineko erakusketa Ibarraundin

Jaurlaritzak kontsumoaren gainean prestatu duen erakusketa ibiltaria Ibarraundi museora heldu da. Eguaztenean inauguratu zuten eta ekitaldian Jaurlaritzako Kontsumo zuzendari Irantzu Arrizabalaga, Eskoriatzako alkate Juan Carlos Bengoa eta Udaleko beste hainbat zinegotzi izan ziren.

Erakusketa horrek herritarrei kontsumoaren gaineko prestakuntza eta informazioa ematea du helburu, haien eskubideak eta betebeharrak zeintzuk diren jakinarazita. Hiru arlotan banatuta dago: *Produktuen etiketak, Telefonia eta Internet,* eta *Bidaiak eta garraioak.* Domekara arte egongo da ikusgai erakusketa.

**AUZOAK**

## Auzo elkartea sortzeko asmoa

Auzo elkartea sortu gura dute San Pedro eta Intxaurtxuetako bizilagunek

**I.B.** > ESKORIATZA

Astelehenean San Pedro eta Intxaurtxuetako atarietako arduradunek batzarra egin zuten. Batzarraren helburua zen Udalaren eta beste erakunde batzuen aurrean bi auzo horiendako hobekuntzak eskatzeko ordezkaritza sortu eta indar handiagoa egitea.

Badakite auzotarrek banan-banan erakundeetara jotzen badute, ez dutela askorik lortuko. Eta elkartea sortuz gero, berriz, indar handiagoa egin dezakete.

**MARTXOAREN 20AN BERBALDIA**

Auzotarren esanetan, bi auzo horietan hainbat premia dituzte. Besteak beste, gazteek eta erretiratuek hurrenez hurren erabiltzeko moduko lokal edo azpiegituren beharra aldarrikatu zuten.

Martxoaren 20an berbaldia egingo dute Ibarraundin, eta horretarako beste herri edo hiri batzuetako auzoelkarteetako ordezkariak gonbidatuko dituzte. Asmoa da beste leku batzuetako auzoelkarteen esperientziak ezagutzea, horren aldeko pausoak emateko.

**ARATUSTEAK** > EGUENETIK MARTITZENERA ARTEKO EGITARAUA

# Eguena ezkero Aratusteak ospatzen

Atzoko (eguena) Urdelardero Egunarekin hasi dituzte ibarreko Aratuste goiztiarrenak

**IKER BARANDIARAN** > ESKORIATZA

Eguen Gizenero Eskoriatzako gaztetxoek Urdelardero Eguna ospatzen dute. Bakarrik Eskoriatzan dute usadio hori, eta Eskoriatza Aratusteak ospatzen dituen herri goiztiarrena da. Hortaz, atzo, eguena, ikastetxeetako umeek kalejira egin eta txistorra jan zuten goizean. Bazkalostean, berriz, Azkona taldearekin jaialdia eta txokolate-jana zuten herriko plazan.

**ZAPATUAN EGITARAU ZABALA**

Bihar, zapatua, gazte eta helduak ere murgilduko dira mozorroen jaian. 13:00etan trikitilariek kalejira egingo dute, eta 14:30ean bazkaria egingo dute Toki-alai tabernan. Txartelak tabernan bertan salgai daude.

18:00etan zezen txikiak eta *poney*-ak eramango dituzte Luis Ezeiza eskolako patiora, eta 19:30etik gau erdira arte Egan taldearekin dantzaldia izango da herriko plazan.

Martitzenean ere ez da egongo aspertzeko astirik. 10:30ean, umeek abesteko eta dantza egiteko aukera izango dute herriko plazan, eta horren ostean, txistorra banatuko dute.

17:00etan, txokolate-jana egingo dute leku berean, eta jarraian Auskalo taldearekin dantzaldia izango da. Egitarauarekin bukatzeko, 19:00etan kukumarroak kultura etxetik irtengo dira.

**AITXORROTXEK LEHIAKETA**

Aurten, berrikuntza moduan, Aitxorrotx kultura elkarteak mozorroen lehiaketa antolatu du. Orain dela hainbat urte Udalak antolatzen zuen, baina denborarekin ohitura hori galdu egin da. Horregatik, Aitxorrotxeko lagunek berreskuratu gura izan dute.

Epaimahaia kalean ibiliko da mozorroak ikusten eta hiru sari banatuko dituzte: koadrila onenari, 200 euro; bakarkako onenari, 100 euro; eta ume edo gaztetxo taldeari, askaria guztiendako. Sariak zapatu gaueko dantzaldian emango dituzte.

**KULTURA**

## Aitxorrotx kultura elkartearen ekimenak

**I.B.** > ESKORIATZA

Aitxorrotx kultura elkartea hainbat ekimen antolatzen dabil aspaldian.

Bihar, zapatua, mozorro lehiaketa egingo dute, eta hiru sari banatuko dituzte. Horrez gain, martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean, txokolate-jana egingo dute Inkernu tabernan. Handik bi egunera, martxoaren 10ean, Bergarako Mahaster River talde akustikoak kontzertua egingo du Inkernu tabernan.

Apirilerako ere beste hainbat ekintza antolatu dituzte: sagardotegira irteera, Itoitz Armendarizen berbaldia, antzerki ikuskizunen bat, eta beste.

**AISIALDIA** > UME ETA GAZTETXOENDAKO ZERBITZUA

# Martxoaren 10ean egingo dute Santa Anako ludoteka berriaren inaugurazioa

Aste gutxi itxaron beharko dute herriko umeek Udalak egin duen ludoteka berria estreinatzeko. Santa Anan egongo da udal zerbitzua



**ALDAKETA** Zerbitzu horren erabiltzaileek, umeek, berria egin bitartean ludoteka zaharrean jarraitzen dute. IKER BARANDIARAN

**I.B.** > ESKORIATZA

Martxoaren 10a da Udaleko Gazteria Sailak jarri duen data. Egun horretan estreinatuko dute ludoteka. Santa Anan jarri dute, lehen anbulatorioa zegoen lokalean. Gaur egungoa baino handiagoa izango da, eta oraingoak baino zerbitzu gehiago eskainiko ditu.

Joan den urteko urrira arte Axtroki elkarteak eman zuen zerbitzu hori, baina Udalak lehiaketa publikoa egin zuen eta Gasteizko Ludolan enpresak hartu zuen hura kudeatzeko ardura. Ordutik hona dabil Ludolan zeregin horretan egoitza zaharrean, berria egingo den esperoan.

Udaleko Gazteria Sailak eman beharreko zerbitzua ahalik eta onena izan dadin ikastetxeetan gurasoei zuzendutako galdetegia banatu du. Galdetegia ludotekako bazkide diren eta ez direnendako da, eta asmoa da ahalik eta ekarpen gehien jasotzea. Are gehiago, esku-hartzaileak saritu egingo dituzte zozketa batekin.

Eguenean, martxoaren 2an, bukatuko da galdetegia erantzuteko epea. Galdetegia Bibliotekara edo ludotekara eraman beharko da, eta horien guztien artean zozketa egingo dute inaugurazio egunean. Honako hauek dira sariak: Arte Ederretako museorako eta antzerki baterako launa sarrera, hain zuzen ere.

> ANIMALIAK

### Jaurlaritzaren txakurren gaineko legedia indarrean

Udaleko taldeak hainbat bider ibili dira txakurren gaineko legediaren gainean hausnarketa egiten. Jaurlaritzak onartutakoa baino lege osatuagoa eraman zuten alderdiek osoko bilkurara, baina konturatu ziren zorrotzegia zela.

Jaurlaritzak onartutakoak zehazten du txakurrek lotuta ibili behar dutela hirigune guztian, eta txakur arriskutsu moduan izendatuta daudenek muturrekoa eraman beharko dutela. Udalak, berriz, txakurrak udalerri osoan lotuta eramatearen aldeko legea onartu gura zuen, baina konturatu zen gehiegizkoa zela.

Egunotan Udalak etxez etxe banatu du Jaurlaritzak egindako txakur arriskutsuen zerrenda. Hortaz, horien jabeek muturrekoa jarri beharko diete txakurrei.

LENIZ
ESKORIATZA
SUZUKI

Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika

Bigarren eskuko autoen salerosketa, inyektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa

Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

**PRESOAK** > ONGIETORRIA VALLADOLIDEN

# Karmen Irizar presoari harrera egitera 80 bat lagun doaz Valladolidera

## Etzi, domeka, lagako dute aske eta lehenengo ongietorria egingo diote; omenaldia eta afaria, berriz, martxoaren 4rako, zapatua, antolatu dute

**AINTZANE IRIZAR** > ANTZUOLA

Ia bost urte igaro eta gero, aske geratuko da Karmen Irizar presoa etzi, domeka. Valladolideko espetxean dago gaur egun, eta haraxe joango dira 80 bat senitarteko eta lagun, autobusez, haren bila. Bueltan, Kanpanzarren bazkaria egingo dute, Karmenen askatasuna ospatzeko.

Goizaldeko bostetan irtengo dira herritik, eta espero dute goizean bertan irtengo dela Karmen espetxetik. Lehenengo besarkadak eta zorionak emanda, Euskal Herrira abiatuko dira guztiak, Karmen alboan dutela.

Iluntzean iritsiko dira Antzuolara, 19:30 aldera; poteoa egingo dute trikitilariekin eta bere argazkiak kenduko ditu Karmenek tabernetatik.

**TXARTELAK SALGAI**

Omenaldia, baina, hurrengo asteburuko antolatu dute Antzuolako Presoen Lagunek. Martxoaren 4an, zapatua, izango da hori. Iluntzean, 19:00etan, omenaldi ekitaldia egingo diote Zurrategi plazan eta ondoren manifestazioa egingo dute herriko kaleetan. Gauerako, berriz, afaria antolatu dute frontoian. Afari horretarako txartelak Larrea eta Arin tabernetan edo Karmenen senitartekoengana jota eskura daitezke. Bergaran ere jarri dituzte salgai txartelok, Pol-Pol eta Arrano tabernetan.

**1998KO SAN JOSE EGUNA**

1998ko martxoaren 19an, San Jose egunez, atxilotu zuen Karmen Guardia Zibilak, Jose Ramon senarrarekin eta Aran alabarekin batera. Debagoienean zortzi lagun atxilotu zituzten, ustez Araba komandoarekin zerikusia zutelako: Antzuolan hiru, Bergaran lau eta Aretxabaletan beste bat.



**MARTUTENE.** Orain dela pare bat urte Martutenen ateratako argazkia. A.ALTZERREKA

DATUA

**66**

1998an lehenengo aldiz atxilotu zutenetik hona, guztira 66 hilabetez eduki dute preso Karmen, bost urte baino gehiago.

Jose Ramon eta Aran aske laga zituzten. Karmen, berriz, 10 hilabetez eduki zuten preso Caranbanchelen eta Soto del Realen. 2000. urte bukaeran epaitu zuten. 2001eko uztailaren 2an berriro kartzelaratu zuten, Martutenen. Azkeneko urteok, berriz, Valladolideko Villanubla espetxean eman ditu.

**GAZTEAK**

# Martxoaren 3an irekiko dute berriz gaztetxea

**A.I.** > ANTZUOLA

Aurreko egubakoitzeko batzar orokorrean erabaki zuen Antzuolako Gazte Asanbladak datorren astean zabaltzea berriro gaztetxea. Oraingoz ez dute ekitaldi berezirik egingo; aurrerago ospatuko dute oraingo irekiera.

Bi gazte koadrila arduratuko dira aurrerantzean gaztetxearen funtzionamenduaz.

Gabonetatik hona hainbat lan egin dituzte gazteek: lokala margotu eta txukundu egin dute.

Jakinarazi digutenez, egunero egongo da zabalik gaztetxea, astegun eta asteburu, 17:00etatik aurrera.

**ARATUSTEAK**

# Ume eta nagusien Aratuste jaiak

**A.I.** > ANTZUOLA

Egubakoitzean Aratuste jaia ospatuko dute umeek, 16:30etik aurrera. Mozorrotuta, frontoian txokolate-jana izango dute, Pausokak antolatuta. Ondoren, Erdi Aroko gotorlekuaz gozatzeko aukera izango dute.

**DOMEKAN, GUZTIENDAKO JAIA**

Goizeko hamarretatik aurrera kalejira egingo dute dantzariek, tximinoarekin, hartzarekin eta domadorearekin batera. 12:00etan, berriz, Aratusteetako dantza jaialdia izango dugu; Sorgin Dantza, artzainak eta inudeak izango ditugu, besteak beste.

**bere ustez**



Fernando Lete

# Haize berriak eta baikortasuna

ETAren azken komunikatua ez zen gehienok espero genuena eta tregua sakon bat kaleratuko zuela zirudien arren, oraingoz ez da horrela izan. Horrelakoetan normala denez lehen erreakzioa itxaropenetik urruntzea izaten da, baina etorkizunari baikortasunez begiratu behar diogu, Bake Prozesuari ateak irekitzeko.

**"ETAren azken komunikatuak baditu esperantzarako seinaleak ere"**

Komunikatuak baditu aipamen kezkagarriak, baina, baita esperantzarako seinaleak ere aipatzen ditu haize eta garai berriak eta azkenaldian badira gure gizartean hainbat gertaera eta seinale positibo: LAB eta UGTren arteko bilerak, alderdi desberdinetako emakume parlamentariek adostu duten bakegintzarako txostena, sindikatu denak adosten ari direna, eztabaida gunearen proposamenak, epe motzean Eginoko Mahaiak aurkeztuko duen Bake Mahairako Metodologia adostua eta garrantzitsuena: badirudi Zapatero eta bere gobernua prest daudela pausoak emateko. Jakina, bakearen aldeko apustua egin nahi duenak jakin behar du epeak mugatuak daudela,etsaiak indartsuak direla, nahi duen denak behar duela tokia Mahaian eta denek zerbait eman edo utzi beharko dutela.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

MUJIKA
HARATEGIA

Berezitasunak:
Etxean hazitako zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

SUKALDEKO ALTZARIAK
Harizki
MUEBLES IGEA
Sukalderako eta bainurako altzariak
Altzari rustikoetan espezializatuak
Zurrategi plaza 4, behea. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

**DANBORRADA** > UZTAILAREN 1EAN IZANGO DA

# Maiatzean hasiko dituzte entseguak

Bi urteko etenaren ostean, aurtengo jaietarako berriz ere danborrada gertatzen dihardute; 250 herritarrek hartuko dute parte

**IRATI AGIRREAZALDEGI** > ELGETA

Danborrada egiten 2000 urtean hasi ziren , baina 2003ko danbor hotsen ostean, isiltasuna etorri zen. Aurten, berriz ere danborren soinua entzungo da herriko kaleetan Azoka Nagusiko jaietan, uztailaren 1ean, hain zuzen ere.

Hiru urteko etenaren ondoren antolatzaileak indarberrituta itzuli dira, eta prestaketa lanetan dihardute. Etenaren zergatiari buruz galdetuta Josu De Vega antolatzaileak zera esan digu: "Udalarekin ez ginen ados jarri eta guretzat entseguekin hasteko beranduegi zen. Horregatik egon gara zenbait urtetan geldi". Izan ere, herritar asko mugitzen ditu danborradak. Ume zein heldu, guztira 250 elgetarrek hartuko dute parte.

Apirilean zabalduko dute izena emateko epea eta entseguak maiatzean hasiko dira. Zapatuetan egingo dituzte; lehenengo umeekin eta helduekin gero.

**ALDAKETAK**

Danborradak aire berriak ekarriko ditu aurten. Zuzendari lanetan orain arte bezala Alex Arantzabalek jardungo du; kapitaina, ordea, aldatu egingo dute. Hala ere, oraindik ez dute aurreratu zeinek beteko duen Sabin Arantzetaren lekua. Beste urte batzuetan bezala, danborradaren aitzakian omenaldia egingo dute, baina erabakitzeke dago zeini.

Josu De Vegak aurreko urteetan danborradak izan duen harrera aurten ere errepikatzea espero du: "Gure nahia da herrian giro polita sortzea".

Danborradaz zein jaietako kontuez berba egiteko hurrengo batzarra martxoaren 1ean izango da, 21:00etan, udaletxean.

## Eibarko Musika Bandaren doinuak

Orain artean Arrasate Musikaleko Bandaren doinuak izan dituzte lagun elgetarren danbor hotsek Azoka Nagusiko jaietan. Aurten, ordea, aldaketa dator. Arrasatekoek data horietan beste emanaldiren bat dutela-eta ezin dira Elgetara etorri.

Beraz, Eibarko Musika Bandak hartuko dio lekukoa Arrasatekoari. Ohiko piezez gain, baliteke aurtengo danborradan doinu berriak ere entzutea. Antolatzaileen esanetan, "zein izango diren zehazteke badago ere, pare bat pieza berriak izango dira, bai gutxienez elgetarren belarriendako".

**AURREKONTUAK** > HIRU MILIOI ETA ERDITIK GORA

# Aldaketen ostean onartu dituzte

EAJ-EAren proposamenari aldaketak egin ostean, euren aldeko eta Aralarren aurkako botoekin onartu zuten udalbatzarrean

**I.A.**> ELGETA

Udalbatzak 3.622.799 euroko aurrekontua onartu du 2006rako. EAJ-EAk 3.619.025 euroko aurrekontu proposamena egin bazuen ere, aldaketa batzuen ondorioz kopurua pixka bat altuagoa izango da. Zenbait gastu gehitu egin dituzte eta beste batzuk murriztu.

Udaletxea berritzeko proiekturako hasieran zehaztutakoak baino 9.000 euro gehiago izango dira; Elgeta 21 SL elkartearendako 20.000 euro gehiago; 3.000 euro gehiago Mizpirualde egoitzarendako; erretiratuen alokairurako 3.800 euro gehiago; Hirugarren Mundurako 4.300 euro gehiago; eta 3.000 euro gehiago Espaloirako.

Horiez gain, zenbait gastu gehitu dituzte aurrekontuan: gazteen ekintzetarako 3.000 euro; lurrak erosteko 6.000 euro; eta *Elgeta* trikitilariaren omenaldirako 9.000 euro.

**PARTIDAK TXIKITU**

Aurreikusitako gastuen artean bada partida bat txikitu egin dutena: kaleak garbitzeko makinaren kostu guztia ez dute aurten ordainduko; beraz, 57.326 euro gutxiago izango dira.

DATUA

**3.774**

euro da aurrekontu proposamenaren eta onartutakoaren arteko aldea. Kopuru horri aurre egin eta aurrekontua parekatzeko, jarduera ekonomikoen gaineko zergetatik aterako dituzte diru sarrerak.



JOSETXO ARANTZABAL

## Gaztetxearen hamargarren urtemuga ospatzen hasi dira

Aurten beteko ditu gaztetxeak hamar urte. Eta urteurreneko ospakizun nagusia martxoaren 18an egingo badute ere, egun horretara bitartean jaia girotzeko ekintzak egingo dituzte. Pasa den asteburuan mozorrotuta ibili ziren gazte asanbladakoak, urteurrena iragartzeko kartelak kaleetan ipintzen (argazkian).

Izan ere, gaur, egubakoitza, hasiko dira ekintzak. Aratusteen aitzakian, 22:30ean Muted eta Bide Bat taldeen kontzertua izango da eta gaztetxea bera eta bertako kideak mozorrotuta egongo dira. Ondoren, martxoan barrena, hitzaldiak, umeen eguna, mahai ingurua eta urteurreneko jaia izango dira gaztetxean.

> ARATUSTEAK

### Dantza eta musika gaur Inauteriak ospatzeko

Aratusteak ospatzeko gaur, barikua, egingo dituzte ekitaldiak herrian. Eskolako neska-mutikoak irakasleekin mozorrotuta irtengo dira 14:30ean, eta herriko kaleetan desfilea egin ostean, talde bakoitzak ikuskizuna egingo du plazan musika eta dantza baliatuz. Mozorrotzeko aukeratu duten gaia *urtaroak* dira. Bestalde, iluntzean plazan dantza saioa izango da. Besteak beste, polkak eta zazpi jauzi dantzatuko dituzte. Ondoren, herriko kaleetan trikitilariak ibiliko dira poteoa girotuz.

> KIROLA

### Mendi irteera antolatu dute datorren asteburuarako

EGOKI kirol elkarteak Aizkorrira mendi irteera bi antolatu ditu datorren domekarako, martxoak 5erako. Irteeretako bat, lau ordu ingurukoa, nagusiendako antolatu dute; eta bestea, berriz, ordu eta erdi ingurukoa, gaztetxoendako. Bidaia autobusean egiteko asmoa dute, baldin eta jende nahikoak ematen badu izena. Horretarako epea martxoaren 2an bukatuko da.



**ZAILTASUNAK** Gaur egun, Aramaioko bi familiak euren autoetan egin behar izaten dute Aita Mennirako joan-etorria, zailtasun handiekin. U.M.

**ONGIZATEA** > EGOKITUTAKO GARRAIOA

# Egokitutako garraio barik segitzen dutela-eta, haserre

Zailtasun handiak dituzten pertsona nagusiek Aita Mennira joan-etorria egiteko zerbitzua dute etenda

Azken bi urteotan zerbitzua onartuta izan arren, Diputazioak ez du abiarazi

**UBANE MADERA** > ARAMAIO

Aramaioko Udala oso haserre dago Arabako Foru Aldundiarekin. Hala adierazi digu alkate Mertxe Mondragonek. Arrasateko Aita Menniren eguneko zentrora joan-etorria egiteko behar duten egokitutako garraioa dela-eta daude haserre. Garraio hori da ezintasun handiak dituzten pertsona nagusiendako.

Alkateak jakinarazi digunez, Arabako Foru Aldundiak orain dela bi urte onartu zuen egokitutako garraioa ipintzea. Are gehiago, Batzar Orokorretan zerbitzu hori abiarazteko Arau Forala onartu zuten 2004ko azaroan. Eta legearen aginduz, urtea bukatu baino lehen sartu behar zen indarrean arau hori. Besteak beste, erabaki zuten egokitutako autoak erosi behar zituztela, zerbitzu hori eskaini ahal izateko.

Baina Diputazioak ez zuen legearen esana bete.

**AUTO PARTIKULARRETAN, EZINEAN**

Hain zuzen ere, bi urtetik hona familiak arduratzen dira senitartekoak Aita Mennira eramateaz. Eta kexu dira horregatik. Batetik, auto partikularretan egin behar dutelako bidaia, eta auto partikularrak ez dituztelako egokituta. Bestetik, egunero senideren bat arduratu behar delako etxekoa eramateaz. "Niri, adibidez, asko kostatzen zait autotik sartu-irtena egitea. Laguntza behar izaten dut. Gainera, lanean libre egon behar duzu senidea Aita Mennira eraman ahal izateko". Hala kontatu digu familietako batek.

**UDALAK KEXUA AURKEZTU DU**

Hori dela eta, Udalak kexu formala aurkeztu dio Arabako Foru Aldundiari. Zerbitzu hori bermatzeko bere gain hartu dituen gastuen berri ere eman dio Udalak Diputazioari. Izan ere, Aita Mennira joan beharra duten familien kilometraje gastuak bere gain hartu ditu Udalak azken urteotan.

**AUTOAK EROSITA, BAINA GELDI**

Diputazioari dagokionez, hango iturriek GOIENKARIAri jakinarazi diotenez, 2005eko aurrekontuan onartu zuten egokitutako automobilak erostea. Erosi zituzten auto haiek eta egokitu ere bai. Joan den astea ezkero Gasteizen daude, zerbitzua abiarazteko zain. Diputazioaren asmoa da zerbitzu hori Gurutze Gorriaren bitartez bideratzea. Hala, esan digutenez, orain Gurutze Gorriarekin berbetan dabiltza, Aramaioko eta inguruko pertsona nagusiak batzeko ibilbide egokiena zein den erabakitzeko. Berba zehatzak izan dira: "Baliabideak egokitzen gabiltza". Edozelan ere, ez digute jakinarazi noiz pentsatzen duten zerbitzua abiaraztea.

**PLAZA GEHIAGOREN ESKAERA**

Eta, horrez guztiaz gainera, Aramaiotik beste eskaera bat ere egin nahi diote Diputazioari. Izan ere, Aramaiok Aita Mennirako bi plaza ditu adjudikatuta. Baina herrian eskaera gehiago dago. Alkateak esan digu behin baino gehiagotan eskatu diotela Diputazioari plaza kopuru hori handitzeko. Baina orain arte ez dute baiezko erantzunik jaso.

DATUA

**2**

Plaza ditu adjudikatuta Aramaiok zailtasunak dituzten pertsona nagusiak Aita Menniren eguneko zentrora joan daitezen; zerbitzua erabiltzen duten bi pertsonetako batek lau urte itxaron behar izan ditu zerbitzua eskuratzeko

ESALDIA

**"Ez bagara fidatzen onartutako legeak beteko dituztela, zela fidatuko gara onartu ez dituzten legeak betearaziko dituztela, bada!"**

**Mertxe Mondragon** > Alkatea

**LITERATURA** > TXIRRITOLA V. IPUIN LEHIAKETA

## Eguaztenean amaituko da Txirritolaren lehiaketarako ipuinak aurkezteko epea

**U.M.** > ARAMAIO

Txirritola Euskara Elkarteak gogora ekarri nahi du datorren martxoaren 2an bukatuko dela ipuin lehiaketarako lanak aurkezteko epea. Hala, parte hartu nahi izanez gero, liburutegira eraman behar dira ipuinak.

Hiru mailatan sailkatuko dituzte lanak Txirritolakoek: Lehenengo Hezkuntzako (LH) bigarren zikloa; LHko hirugarren zikloa eta DBH osoa. Sariak ere hala banatuko dituzte: aurreneko bi mailetan, irabazleari 90 euro emango dizkiote, Gasteizko Arriaga kultur dendan gastatzeko; eta bigarrenari, 60 euro, gauza bererako. DBHkoen mailan, berriz, lehenengoari 140 euro emango dizkiote eta bigarrenari 100 euro.

**PARTE HARTZERA ANIMATU**

Txirritolakoek esan digutenez, iaz jende gutxik parte hartu zuen ipuin lehiaketan. Hala, aurten eskolakoekin berba egin dute, haietako batzuen parte-hartzea, behintzat, bultzatzeko. Eta, oro har, gainontzeko herritarrak ere animatu nahi dituzte honako leloarekin: *Zu zara originalena, konta ezazu zure ipuina*.

> SANTA AGEDA

## Eskolakoek esker ona eman nahi dute eske oparoarengatik

Pozik daude eskolakoak aurtengo Santa Ageda bezperaren emaitzarekin; izan ere, 881 euro batu zituzten. Hala, eskerrik beroena eman nahi dute herritarrek erakutsitako borondate on horregatik. Halaber, jakinarazi dute diru horrekin ikasle guztien ekintzak ordaintzen dituztela (barnetegiak, irteerak…) eta batutako jakiak jolasorduan banatzen dituztela.

> ARATUSTEAK

## Bihar Aratusteak, Udalak antolatuta; martitzenean, berriro

Bihar, zapatua, kalejira egingo dute kiroldegitik plazara, 17:30ean. Plazan, 18:00etan, mozorro lehiaketako sariak banatuko dituzte. Gero, txokolate-jana egingo dute eta ostean, Kiska taldeak antzerki-saioa egingo du. Martitzenean, berriz, eskolakoek ospatuko dituzte Aratusteak. *Loreak eta intsektuak* gaia aukeratu dute mozorroak egiteko. Eskolan egin dituzte.

GARRAIOA > AUTOBUS ZERBITZUAREN GORABEHERAK

# "Arrasateko Institutura heltzeko langileren batekin autoan joatea da aukera bakarra"

Garazi Orobengoak 16 urte ditu eta datorren ikasturtean Arrasateko Institutura joango da ikastera. Zela joan, baina? Zela joan herritik kanpora asteburuetan?

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Galdera horiek eta beste makinatxo bat egin dizkiote euren buruei Gatzagako gazteek azken hilabeteotan. Edadetuak, gurasoak, etxekoandreak... Guztiak daude kezkatuta garraioaren auziarekin, eta gazteak ere bai.

**ARRATSALDEETAN SARRIAGO**

"Datorren ikasturtean Arrasateko Institutura joango naiz ikasketak jarraitzera, baina eskaini diguten garraio zerbitzuarekin ez daukat haraino iristeko aukerarik", dio 16 urte dituen Garazi Orobengoak, "Arrasatera lanera doan langileren batekin joatea da aukera bakarra" gaineratu du.



**GAZTEAK ETA GARRAIOA** Garazik eta lagunek zerbitzu hobea gura dute. EDORTA ARANA

Ez Garazi, ez Gatxiz elkartea osatzen duten gazteak ez daude konforme Aldundiak jarritako zerbitzuarekin: "Ez dituzte izan kontuan herritarron beharrak; jarri duten ordutegiak, esaterako, ez ditu inoren beharrak betetzen" dio Garazik. Aretxabaletako Kurtzebarri eskolatik irten ondoren trikitixa ikastera joaten da, eta 18:00ak inguruan gurako luke autobusa izatea etxera itzultzeko: "Arratsaldean sarriago beharko genuke zerbait herrira bueltatzeko. Orain, amak ekarri behar izaten nau". Ez hori bakarrik: gazteak izanda, asteburuetan Gasteizera edo Arrasatera joan gurako luke lagunekin; zergatik ez, bada? Eta Debagoieneko hainbat herritatik pasatzen den gautxoria bera gustura hartuko luke.

**KONPONBIDEA, LANEAN SEGITZEA**

Hainbat udaletako ordezkariek batzarra izan zuten astelehenean Aldundiko Garraio zuzendari Kote Olaizolarekin. Debagoieneko garraioaren gainean azalpenak ematera etorri zen. Gatzagako arazoa ere izan zuen berbagai: "Uste dut mugikortasuna kontuan hartuta eskaintza ez dela egokiena izan, baina ez dut sinetsi gura txarra izan denik. Egin behar dena da, garraio publikoa erabili, eta ez eskatu bakarrik". Gaineratu zuen Gatzagarekin ez dutela bete-betean asmatu, baina hilabete baino hobeto daudela herritarrak. Lanean dabiltzala eta konponbide bakarra lanean jarraitzea dela ere esan zuen Garraio zuzendariak.

**INAUTERIAK**

## Arratsalde pasa eta gau giro aparta Inauterietan

**M.A.** > LEINTZ GATZAGA

Gatzagarrek ere dagoeneko gertu daukate mozorroa, eta azken ordurako utzi dutenek bizkortu egin beharko dituzte gertatze lanak. Udalak ere gertu dauka Inauteri-zapaturako egitaraua. Arratsaldean umeak izango dira protagonista. 17:00etatik 19:00etara bitartean Arrasateko Txatxilipurdi elkarteko kideak izango dituzte lagun: jolasak eta tailerrak antolatuko dizkiete. Hoztuta geratu direnak berotzeko, ostera, txokolate goxoa eskainiko dute.

**BILDOTSA AFALTZEKO**

Afaria 21:30ean izango da, Garro jauregian. Sarrerako jakiak –txorizoa, urdaiazpikoa eta bestelakoak– eta bildotsa izango dituzte elkartzen direnek, eta afalostea Kuluska taldeak girotuko die. Mozorroa aldean eta jai giroa inguruan, ezin galdu Inauteriak Gatzagan; Otsoa bera ere Poloniatik iritsi da, urtero legez herritarrekin egotera.

IOSU
harategia
taberna

Urdaitegia-gozotegia
•
Kroasantegia
•
Gertatutako janariak



Mitarte 1 Tel.: 943 77 03 08

"Javik eta Juanek Aratuste zoriontsuak opa dizkizue aretxabaletar guztioi!"

**FUTBOLA** > DERBIA PREFERENTEAN

# Behetik gora datorren Mondrak Aloña liderra hartuko du bihar

Gordobil: "Gabon ostean emaitzek ez digute lagundu, baina ez dut uste joko mailan behera egin dugunik"

Orueta: "Taldea fisikoki oso ondo dago, eta hori da gure oinarria; presio barik joango gara Arrasatera"




**AZKOAGAIN** Etxean 1-0 irabazi zuten oñatiarrek, norgehiagoka lehiatsuan. Irudian, Zubikarai Aitor Lopezi presio egiten. GOIENKARIA

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Bihar, 16:30ean, Atxabalpen. Kale egin ezin duten hitzordu hori dute Arrasateko eta Oñatiko futbol-zaleek oraingo asteburuan. Azkeneko partiduetan benetan duen maila erakutsi duen Mondrak denboraldiko sorpresa positiboena eman duen taldea izango du aurrean: Aloña Mendi.

Hala, bi talde horiek zuzentzeko ardura duten Igor Gordobilekin eta Aitor Oruetarekin izan gara berbetan.

**MONDRAREN BEHERAKADA**

Txapelketaren lehenengo zatian maila polita erakutsi duen Mondrak beherakada izan du Gabonetatik hona. Igor Gordobilek esan digu, baina, egin duten joko maila eta emaitzak ez datozela bat: "Gabonetatik hona galdu ditugun norgehiagoketan kontrarioa ez da gu baino gehiago izan. Egia da, baina, emaitzak ez ditugula aldeko izan, eta horrek balio du". Ondo dakigu, gainera, norgehiagoka askotan epaileek eragin zuzena izan dutela emaitzan, eta Atxabalpen ez daudela batere pozik aurten ikusten dabiltzanarekin: "Nik, baina, kontrolpean izan ditzakedan gauzekin egiten dut lan, hori ahalegintzen naiz hobetzen. Eta epaileen lanarekin ezin dut ezer egin".

Horrekin batera, Mondrako entrenatzaileak berba onak izan ditu Oñatiko taldearendako: "Sorpresa izan da niretako, ez nuen esango horren ondo ibiliko direnik; lana ondo egin duten seinale da hori. Guk, baina, gureari heldu behar diogu: irabaztea".

**FISIKOKI INDARTSU**

Hori da oñatiarren bolada onaren gakoetako bat, inor ez dagoela eurak baino indartsuago. Alde horretatik, Aitor Oruetak lehenengo postuan egoteak ematen duen lasaitasuna azpimarratu du: "Kalean jendeak aipatzen du Hirugarren Mailara igotzearen kontua. Hori polita da, baina nik, taldeak eta zuzendaritzak ondo dakigu oraindik asko geratzen dela, eta arriskutsua izan daitekeela horren gainean berbetan hastea. Dagoeneko mailari eutsi diogu, aurrean gaude, eta horrek ematen duen lasaitasunarekin joango gara Arrasatera; ez dugu beste ezer buruan". Biharko kontrarioaren gainean Oruetak esan digu behetik gora datorren taldea dela Mondra: "Azkeneko bi partiduak irabazi egin dituzte, eta aurrean erreferentzia den Murua taldera itzuli da. Dena dela, konfiantza osoa dugu gure jokatzeko moduan".

**Edozein premiatarako:**
• Antzutasuna
• Erditzeak
• Antisorgailuak
• Menopausia
• Ekografiak (4D)
• Titietako gaixotasunak
• Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
• Hezur dentsitometria

**Zure zerbitzura:**
• Antonio Estomba
• Fernando Cristobal
• Alfredo Otalora
• Jose M. Gomez
• Maite Albizu
• Domingo Murgiondo
• Miguel Gabarain
• Maria Jose Ruiz
• Fatima Azkue
• J. Rodriguez
• Mikel Gorostidi

CG
CONSULTORIO GINECOLOGICO

Policlinica Gipuzkoa

**ARRASATE**
**Zerkaosteta 17**
**943 79 20 18**
Donostia: 943 30 82 08
Eibar: 943 12 10 2
Irun: 943 61 78 88



## asteburuko hitzorduak

**FUTBOLA**

**Euskadiko gazteen liga**
Aloña Mendi - Eibar
Zapatua. 16:30. Azkoagain.
Aloña Mendi - Gernika
Eguaztena, hilak 28, 16:30. Azkoagain.

**Preferente maila**
Aretxabaleta - Touring
Zapatua. 17:30. Ibarra.
Mondra - Aloña Mendi
Zapatua. 16:30. Atxabalpe.

**Bigarren erregionala**
Soraluze - Antzuola
Zapatua. 16:30. Ezozia.

**Ohorezko mailako gazteak**
Sto. Tomas Lizeoa - Mondra
Zapatua. 19:15. Berio.
Ostadar - Aretxabaleta
Zapatua. 16:00. Lasarte.
Urola - Bergara
Zapatua. 18:00. Zumarraga.

**Lehen mailako gazteak**
Bergara - Lasarte Oria
Zapatua. 18:00. Ipintza.
Arizmendi Are. - Euskalduna
Zapatua. 15:30. Ibarra.
Antzuola - Ilintxa
Zapatua. 16:00. Antzuola.

**Bigarren mailako gazteak (Igoera fasea)**
Arrasate - Sanpedrotarra
Domeka. 16:30. Atxabalpe.

**Bigarren mailako kadeteak**
Arizmendi Aretx. - Zestoa
Zapatua. 09:45. Ibarra.
Bergara - Intxurre
Zapatua. 11:30. Bergara.

**Ohorezko mailako infantilak**
Arrasate - Herrerako Sport.
Zapatua. 12:00. Atxabalpe.
Bergara - Vasconia.
Domeka. 12:00. Ipintza.

**Infantil txikiak**
Arizmendi Aretx. - Kostkas
Zapatua. 11:45. Ibarra.

**Emakumezkoen Liga, igoera fasea**
Bergara - Intxaurdi
Zapatua. 16:00. Ipintza.
Gasteiz Cup - Mondra
Gaur. 19:30. Sansomendi.

**Emakumezkoak, Kopa**
Ilintxa - Aloña Mendi
Zapatua. 17:30. Bikuña.

**ARETO FUTBOLA**

**Nazional B maila**
Eskoriatza - Ceramicas Nog.
Zapatua. 18:00. Intxaurtxue.

**Gazte mailako liga nazionala**
Castro - Aloña Mendi
Zapatua. 17:00. Castro Urdia.
Aloña Mendi - Artaromo
Zapatua. 16:30. Zubikoa.

**Gipuzkoako liga**
Aloña Mendi - Inter Intxaur.
Gaur. 22:30. Zubikoa.

**Gazte maila**
Eskoriatza - Toletxe
Zapatua. 11:00. Intxaurtxue.

**SASKIBALOIA**

**Lehen maila**
Mugarri Alkesa - UPV Alava
Zapatua. 18:00. Iturripe.

**Bigarren mailako senior maila (emakumezkoak)**
Barakaldo - Eskoriatza
Domeka. 12:30. Barakaldo.

**ESKUBALOIA**

**Euskadiko kadete maila (emakumezkoak)**
Aiala Zarautz - Verkol Aloña
Zapatua. 10:00. Zarautz.

**Lehen maila territoriala**
Arrikrutz Oñati - Bergara
Gaur. 19:45. Zubikoa.
Ford Mugarri - Leizaran
Zapatua. 17:00. Musakola

**Gazte maila**
Gatz Museoa - Bergara
Zapatua. 15:30. Musakola.

**Gazte mailako Udaberri txapelketa (emakumeak)**
Ereintza - Bergara
Zapatua. 11:30. Errenteria.

**Gipuzkoak kadete mailako (azken fasea)**
Aloña Mendi - Elgoibar
Zapatua. 16:00. Zubikoa.

**ERRUGBIA**

**Euskal ligako senior maila**
Arrasate - Kakarraldo
Zapatua. 16:00. Garagartza.

**XAKEA**

**Ohorezko maila**
Arlutz - Abadiño
Zapatua. 16:00. Aretxabalet.

**Euskadiko lehen maila**
Arrasate San An. - Urnieta
Zapatua. 16:00. Altamira.

**Gipuzkoako lehen maila**
Deba - Arrasate San Andres
Zapatua. 16:00. Deba.

**Gipuzkoako big. maila**
Bergara - Arrasate San And.
Zapatua. 16:00. Bergara.

**Gipuzkoako hirug. maila**
Gros H - Atletiko zaleak
Zapatua. 16:00. Donostia.

**PILOTA**

**Aratusteetako pilota jaialdia**
Eskuz binako norgehiagoka:
Unanue eta Errasti / Leiza eta Rai
Buruz buruko norgehiagoka:
Agirre - Esain
Gaur. 22:00. Uarkape.

**Arrasateko San Juan Txapelketa barruan**
Zapatua. 16:00. Uarkape.
Benjamin mailako sei norgehiagoka.
Zapatua 18:00. Uarkape
Alebin mailako hiru norgehiagoka.

**Arrasaten, Udaberri Txapelketa barruan**
Zapatua. 19:00. Uarkape.
Arrasate - Beasain (kadet)
Arrasate - Mundarro (gazt).

**Eskoriatzan, Udaberri Txapelketa barruan**
Gaur. 20:00. Eskoriatza.
Eskoriatza - Elordi (Kadet.)
Gaur. 20:45. Eskoriatza
Euskal Liga barruan:
Oskarbi - Zaramaga

**Bergaran, Udaberri Txapelketa barruan**
Gaur. 21:00. Angiozar.
Bergara - Usurbil (amat.)
Bergara - Zapzi Iturri (amat.)



**Bergarako bikotea Gipuzkoako txapeldun**
Beñat Rezusta eta Iñaki Diez pilotari bergararrak dira erretratukoak. Gipuzkoako txapela lortu berri dute.



**HUHEZI** Intxaurtxuetan egindako areto futboleko kanporaketan Huhezi taldea sailkatu zen, gizonezkoetan. XABIER URTZELAI

**MU-KO TXAPELKETA** > MARTITZENEAN JOKATU ZITUZTEN SAILKAPEN PARTIDUAK

# "MUk kirol guztietan izango du ordezkaritza"

Martxoaren 8an egingo dute Euskadiko unibertsitateen arteko seigarren txapelketa; aurten, MUri egokitu zaio hura antolatzea

**XABIER URTZELAI** > ARRASATE

Martxoaren 8an aurrez aurre izango dira Mondragon Unibertsitateko, Deustuko eta Euskal Herriko Unibertsitateko ikasleak, 350 guztira. Aurtengo txapelketa Mondragon Unibertsitateak antolatu behar du, eta horretan dabiltza buru-belarri kirol zerbitzuko lagunak.

Eta, MUko hainbat fakultatetako taldeek oraingo martitzenean egin dituzte txapelketa horretarako sailkatzeko kanporaketak. Antolatzaile lanetan ibili den Izaskun Uribesalgok egin digu kanporaketa horien balorazioa: "Gustura geratu gara, taldeek ondo erantzun dutelako". Txarrena da martitzenean eguraldiak ez zuela askorik lagundu: "Pilotalekuan edo kantxa barruan jokatu beharreko partiduetan ez zen arazorik izan. Hori bai, Ibarra futbol zelaian egon zirenak... Gaixoak, bota zuenarekin...".

Kanporaketak eginda, martxoaren 8ko txapelketaren gainean egin digu berba Izaskunek: "Pilotalekuan jokatzen diren kiroletan badugu irabazteko aukera, talde onak ditugu. Eta, beste zenbait kiroletan ere sorpresa eman dezakegu. Badakigu, baina, EHUtik oso jende ona etorriko dela. Horrekin batera, garrantzia ematen diogu egongo diren 14 kirol modalitatetan MUk ordezkariak izango dituela, 140 lagun guztira". Alde horretatik, Izaskunek azpimarratu du MUk hasieratik apustu sendoa egin duela kirolaren alde, baina oraindik lan handia dagoela egiteko: "Ikasleek kirola egin dezaten erraztasun guztiak eman behar ditugu".

> ESKIA

## Irteerak Eskoriatzako mendi sailaren eta Pol-Polen eskutik

Eskiatzera joan gura duenak badu non aukeratu, hainbat mendi elkartek dituzte-eta eskaintza bereziak. Eskoriatzako mendi sailekoak ere animatu dira irteera antolatzera. Luz Ardidenera (Frantzia) joango dira, martxoaren 4ko eta 5eko asteburuan. Izenematea, martxoaren 2ra arte, Eskoriatzako Namaste belar dendan. Argibideak 943 71 43 27 telefono zenbakian. Bergaran, Pol-Poleko Eski Sailak Baqueirara irteera iragarri du, martxoaren 3tik 5era. Izenematea, Pol-Poleko egoitzan. Argibideak 943 76 48 51 zenbakian.

> KIROL ZERBITZUAK

## Pilota eta squasha, Debagoieneko Lagunarteko Txapelketan

Debagoieneko Kirol Zerbitzuek gertu dituzte aurtengo Debagoieneko Lagunarteko Txapelketak. Hala, pilota eta squash txapelketetarako deia zabaldu gura dute. Pilota txapelketa lau t'erdi barruan izango da, federatuta ez daudenendako, eta bereiztu egingo dituzte mailak. Aretxabaletan jokatuko dute maila polita duten pilotariek, eta Zubillagan ibiliko dira horren ondo moldatzen ez direnak. Martxoaren 3a baino lehen eman behar da izena, Aretxabaletako kirol etxean (943 71 26 28) edo Zubillagako Boga tabernan.

> SPINNING

## Oñatin egingo dute spinningeko monitore izateko ikastaroa

Oinarrizko titulua eskuratzeko ikastaroa egingo dute martxoaren 11n Zubikoa kiroldegian. Goizez eta arratsaldez egingo dute ikastaro hori eta euskara hutsean emango dute. Hala, ikastaroa egin ahal izateko gutxienez zortzi lagunek eman beharko dute izena. Prezioei dagokienez, ibarreko kirol zerbitzuetako bazkideek 50 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, 60 euro. Ikastaro horren gaineko informazio gehiago gura duenak dei egin dezala 943 77 16 77 telefono zenbakira, eta Iratxerengatik galdetu.

Goienkaria **33.825** irakurle

# GOIENKARIA: askogatik, irakurriena*

El Diario Vasco **17.765** irakurle

Gara **5.060** irakurle

Berria **2.310** irakurle

El Pais **1.430** irakurle

Marca **1.265** irakurle

Mundo Deportivo **715** irakurle

El Correo **605** irakurle

Deia **275** irakurle

- GOIENKARIA da Debagoienean gehien irakurtzen den hedabidea.
- Bigarren hedabidea baino bi bider gehiago irakurtzen da.
- Debagoiendarren %60,5ek astero irakurtzen du GOIENKARIA.

**Eskerrik asko, irakurle.**

*CIES-EK EMANDAKO DATUAK

Goienkaria



**> KIKE TURMIX**
Haren omenezko jaialdia izango da zapatuan Jam aretoan > 45



**> GOLDEN APPLE**
Domekan, *Los Golden en serio* Arrasateko Amaia antzokian > 45

**> MIKEL ERLE**
Atzerrira bizi izatera joateko apustua egin zuen orain dela sei bat urte Mikel Erle oñatiarrak. Londresen eta AEBetan esperientzia aberasgarria bizi izan du > 50





# BIOARKITEKTURA

## ASPALDIKO TEKNIKAK, GAURKOTUTA

Amaia Agirianok hitzaldia egin zuen atzo Aretxabaletan

Pixkanaka-pixkanaka indarra hartzen ari da bioarkitektura gurean ere

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Aretxabaletako Loramendi elkarteak antolatuta, Amaia Agiriano (Aretxabaleta, 1976) arkitektoak bioarkitekturaren gaineko hitzaldia egin zuen atzo. Azken garaietan arkitekturak albo batera lagatako zenbait kontzeptu berreskuratzen ditu bioarkitekturak. Europako hainbat herrialdetan ezagunagoa izan arren, pixkanaka indarra hartzen ari da gurean ere.

Bioarkitekturak lau ardatz nagusi erabiltzen ditu: geobiologia toki egokiak hautatzeko, bezeroa adostutako arkitektura proiektua planteatzeko, bioklimatika eraikinaren diseinua egiteko eta bioeraikuntza ahalik eta sistema eta material naturalenekin eraikitzeko.

Geobiologia toki konkretu batetan lurrak izaki bizidunengan duen eragina aztertzen duen zientzia da. Radioestesia, berriz, nahita eta modu kontzientean lortutako egoera mental baten ondorioz izaki bizidun orok duen irradiazioenganako sentsibilitatea. Iparrorratza, hagatxoak eta penduluak erabilita, beharrezko azterketak egiten dituzte bioarkitekturan eraikitzen hasi aurretik. Ohea eta gainerako elementuak non jarri erabakitzeko ere erabiltzen da.

**OREKA HELBURU**

Arkitekturak lehengo bidea berreskuratzea aldarrikatzen dute. Besteak beste, eraikuntzak kokapen egokia izatea, inguruko baliabideak aprobetxatzea, material naturalenak eta gertukoenak erabiltzea eta etxe barruan kutsatutako airerik ez sortzea dira bioarkitekturaren oinarriak.

Euskal Herrian Iñaki Urkia arkitekto nafarra izan da guzti honen aitzindarietako bat. Esan bezala, poliki-poliki zabaltzen ari da hemen. Gurean, baserriak izango lirateke biklimatika eta bioeraikuntzaren eredu garbiak. Hortik ikasitakoa gaur egungo ezagutzarekin, materialekin eta teknologiarekin janzten da.

Feng Shuiari ere begiratzen zaio, bai tokiak hautatzeko orduan eta baita barne antolaketak egiterakoan ere, energiak ahalik eta ondoen mugitu daitezen. > 44



**ARGIA** Helburuetako bat, argi naturala aprobetxatzea. AMAIA AGIRIANO



**MATERIALAK** Eraikuntzan material naturalak erabiltzen dira. AGIRIANO



**ENERGIA** Bioarkitekturak energia aurreztea defendatzen du. AGIRIANO

**ERAIKINAK** > BIOARKITEKTURA

# Amaia Agiriano: "Baserrietatik asko ikasi beharra daukagu"

Arkitekturaren eta energien arteko lotura aztertzen du bioarkitekturak

Europa iparraldean eta Frantzian garatuago dago bioarkitektura



**ORIENTAZIO EGOKIA** Baserrien orientazioa egokia izaten da gehienetan. Argazkian Amuskibar, Bergaran. AMAIA AGIRIANO

**E.M.** > BERGARA

Arkitektura eta energien arteko lotura aztertzen duen zientzia bezala definitu daiteke bioarkitektura. Amaia Agirianok zehazten duenez, bioarkitektura da berez garai batean arkitektura bera zena. "Arkitektura izan da eraikuntzak proiektatu eta eraikitzeko artea eta zientzia. Kontua da historian zehar asko aldatu dela. Inflexio puntu garrantzitsu bat izan zen industri iraultza; ordura arteko eraikuntzak eta herriak aztertzen baditugu oinarria ingurua ulertzea zen. Industri iraultzatik aurrera, berriz, teknologiak eta pentsamendu ekonomikoak bultzatuta, joan dira poliki-poliki balore sozial, kultural eta naturalak neurri handi batean albora uzten. Zoritxarrez, ingurugiroari eta gure ongizateari ez zaio horrenbeste garrantzia ematen gaur".

Arkitekturak lehengo bidea berreskuratzea aldarrikatzen du Agirianok. "Baserrietatik asko ikasi beharra daukagu. Teknikoki gauza gehiago egiteko gai gara baina funtsezko gauza batzuk ahaztuta utzi ditugu. Ez dira hartzen kontuan inguruko baliabideak, ezta klima ere..."

Europa iparraldean edo Frantzian garatuago dago bioarkitektura. "Gurean gero eta sentsibilitate gehiago dago. Hala ere, beldur naiz ez ote den moda bat. Askotan trabak besterik ez dago instituzioen partetik. Estetika kontuekin larregi itsututa gaude beharbada. Agenda 21 delakoarekin eraikitzeko orduan ingurugiroa gehiago errespetatzea espero dut", dio Amaiak.

**GIRO GOXOA**

Bioarkitektura jarraituta eraikitzea garestiagoa izan arren, inbertitutakoa energia aurrezten eta osasunean irabazten da, Amaiaren hitzetan: "Bioklimatikoki ondo kokatuta egoteak eta material egokiekin eraikitzeak energia aurreztea dakar. Eta osasunean lehen momentutik irabazten da; etxebizitzetan giro goxo bat nabaritzen da".

KONTUAN HARTZEKO

## Eraikuntzak aztertzeko irteerak

Azterketa geobiologikoen GEA elkartea orain dela hamabost urte sortu zuten. Besteak beste, irteerak antolatzen dituzte Espainian zehar eraikuntzak ikusteko eta lursailen prospekzioak egiteko. Joan den zapatuan, esaterako, Artazan, Nafarroan izan ziren. Helbidea honako hau duzue: *www.gea-es.org*. GEAtik sortuta, Euskal Herrian ere bada Bioeraikuntzaren Lagunen Elkartea. Eraikitako etxeak eta bestelako eraikuntzak aztertzeko irteerak antolatzen dituzte baita ere.



### Urrezko arauak

**Amaia Agiriano** > Arkitektua

**> INGURUA**
Ingurua ulertu eta interpretatzen jakin behar da. Benetan baloratu eraikitzea merezi duen eta zein den modurik egokiena.

**> OSASUNGARRI ERAIKI**
Inguruan diren baliabideak ahalik eta ondoen aprobetxatu energia aurrezteko: eguzkia, haizea, ura...

**> GEOBIOLOGIA**
Lur azpiko ur lasterrak, failak edo erradiazio telurikoen gurutzaketak saihestu behar dira.

**> ARKITEKTURA BIOKLIMATIKOA**
Ahalik eta konfort termikorik egokiena lortzea, diseinuari garrantzia emanda. Formaz eta orientazioz ondo egon behar du. Hegoaldera ahalik eta gehien zabalduta, iparraldera itxiagoa... Landareek ere izugarrizko garrantzia daukate tenperatura eta hezetasuna kontrolatzeko.

**> BIOERAIKUNTZA**
Kokapen egokia eta materialen garrantzia. Materialak ahalik eta naturalenak eta gertukoenak izan daitezela. Arnasa hartzen uzten duten materialak erabili.

**> MATERIAL EGOKIAK**
Egurrezko egiturak, adreiluak, zeramikazko blokeak, zementu naturalak, kare hidraulikoa, harria... eta isolamendurako kortxoa, kalamua, paper birziklatu hedatua, artilea, egurrezko zuntzak igeltsu edo zementuarekin, buztin hedatua...

**> ERAIKUNTZA 'GAIXORIK' EZ**
Etxe barruan etxetresna elektrikoen uhinak, produktu kimikoen gasak edo material sintetikoak erabiliz gero, biziatutako edo kutsatutako airea izango dugu. Sintoma arruntenak: alergiak, arnasketa arazoak, begietako hazkura, buruko mina goragalea, urduritasuna... Eraikuntza gaixoaren sindromea saihestu behar da, material egokiak erabilita. Etxeak arnasa har dezala.

Servimasa

Sukaldeko altzariendako akzesorio eta osagarriak

Tel.: 943 76 19 95
Faxa: 943 76 07 49
BERGARA

Ziar-Ola KULTUR ELKARTEA

OHIKO BATZAR NAGUSIRAKO DEIA

**EGUNA:** 2006ko otsailaren 26an.
**ORDUA:** 12:00etan lehen deialdia eta 12:30ean bigarrena.
**TOKIA:** Ziar Ola elkartea.

Arrasaten, 2006ko otsaila.

**MUSIKA** > ZAPATUAN KIKE TURMIXI OMENALDIA JAM ARETOAN

# Turmix omenduko dute gaur egungo eta iraganeko taldeek

Kike Turmixek zeresan handia izan du Espainiako Estatuko punk-rockean, eta hainbat taldek omenaldia egingo diote

**IKER BARANDIARAN**> BERGARA

Iazko urrian hil zen Kike Turmix, gibeleko minbiziak jota, eta hutsune handia utzi zuen rockzaleen artean. Horregatik, omenaldi bana antolatu dute bere jaioterrian, Euskal Herrian, eta hartu zuen hiriburuan, Madrilen. Jasotako dirua alargunari emango diote. Madrilgoa joan den astean egin zuten hango taldeek; Euskal Herrikoa, berriz, zapatuan egingo dute Jam aretoan.



Kike Turmix 2003an. IKER BARANDIARAN

Jaialdia 21:00etan hasiko da eta *All punk must rock, all rock must punk. Kike forever!* lelopean, honako taldeek joko dute: El Inquilino Comunista, Atom Rhumba, Nuevo Catecismo Catolico, Mermaid, Lobo Electrico eta Pleasure Fuckers-ek. Mermaid emanaldi horretarako elkartu da, eta El Inquilino Comunistak ia utzita dauka taldea. Horrez gain, Turmixen Pleasure Fuckers taldea omenaldirako batu da, eta hainbat lagunek hartuko dute *Kike*-ren mikrofonoa.

Izan ere, Enrique Vitoria orain dela 48 urte jaio zen, Bilbon. Debako jatorria zeukan pertsonaia probokatzaile horrek Madrilera jauzi egin zuen 1982an. Madrilgo *mobidan* N-634 punk taldea sortu zuen, eta gerora rock-and-rolla eta punk-rocka zabaltzen jardun zuen Pleasure Fuckers talde arrakastatsuarekin, eta baita Safety Pins diskoetxe eta promotorearekin ere. AEBetako eta Eskandinaviako talde ugari ezagutzera eman zizkigun: Hellacopters, New Bomb Turks, Hydromatics, Zen Gerrilla, Gluecifer...



**NAZIOARTEAN** Turmixek gidatutako Pleasure Fuckers taldeak ospe handia izan zuen atzerrian. BELEN MIJANGOS

**IKUSKIZUNA** > DOMEKAN GOLDEN APPLE QUARTET ARRASATEN

# ‘Los Golden en serio’ ikuskizuna

Donostiako talde beteranoak orain arteko zazpigarren ikuskizuna eskainiko du

**I.B.**> ARRASATE

Aratusteetako programazioaren barruan Arrasateko Udaleko Kultura Sailak Donostiako Golden Apple Quartet eramango du Amaia Udal Antzokira. Etzi, domeka, izango da, 19:30ean. Sarrerak 15 eurotan saltzen dituzte, eta eskuragarri daude Servikutxan eta *www.kutxa.net* zerbitzuen bitartez.

*Los Golden en serio* lana talde beterano horrek (19 urte darama) egin duen zazpigarrena da. Ikuskizun horretan, Donostiako laukoteak ohikoak ez diren bestelako musika estilo eta praktikak probatuko ditu: opera, zirkua, ahotsaren malabarismoak, txotxongiloak... Ohikoa duten moduan, euren buruaz barre egingo dute ikuskizunean.

> LEHIAKETA

**Debaguneren 'Barre barra-barra' lehiaketa zabalik da**

Debagunek, Debagoieneko Euskara Elkarteen Elkargoak, *Barre barra-barra* izeneko bakarrizketa barregarrien lehiaketa antolatu du. Euskal Herri osoko biztanleek esku har dezakete. Inoiz saritu bako euskarazko obra orijinalak aurkeztu beharko dira, eta euskara batuan zein euskalkian onartuko dituzte. Bi sari banatuko dituzte: bat 300 eurokoa eta bestea 150 eurokoa. Lanak aurkezteko epea martitzenean, hilaren 28an, bukatuko da. Bergarako Errotalde jauregira bidali behar dira lanaren hiru kopia. Argibideak 943 76 08 19 zenbakian.

GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA
Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.
Boni Laskurain 3 BERGARA
943 76 35 71
ESTETIKA PROFESIONALEKO KONTSULTA

Azidoek azala zaintzen laguntzen digute (II)

Azido glikolikoa duten kremak aztertzen segituko dugu. Pasa den astean azidoen gaineko aurkezpena egin nuen, eta gaur gai berari eutsiko diot. Gaia ulergarriagoa egiten saiatuko naiz. Ondo iruditzen zaizu, Leire?

AHA (Alfa Hidroxiazidoak) azukrearen kañatik eta fruitu batzuetatik irteten da; mahatsek eta zitrikoek azidoa daukate. Bada, horiek sintetizatzen direnean sortzen dira Alfa Hidroxiazidoak (Beta ere izan daitezke). Adibidez, fruitu garratz bat hartu eta likidoaren tanta bat azalean jarri, eta gero errepikatu prozesua egun batzuetan; zer gertatzen da? Bada, azala gorritu egingo dela eta berehala zarakarra irteten hasiko dela (postilla). Zarakarra jasotzen badugu (ez da sekula egin behar) zauri bat irtengo da; zarakarra ukitzen segitzen badugu, berriz, orbaina geratuko zaigu (zikatriza). Emakume batek eskuko garatxoak aurretik aipatutako moduan kentzen zituen (eskuko azala sendoagoa da eta ez da ezer gertatzen); kontua da besotakoak ere hórrela kentzen zituela, eta orbainak geratu zitzaizkion. Azalari, jasan zezakeena baino dosi handiagoa eman zion.

Esan beharra dago profesionalok erabiltzen ditugun azidoak kontrolatutakoak direla (azalean sartzeko duen ahalmena formulakimikoarekin kontrolatuta dago). Beste azido batzuk neutralizatuak izatea eskatzen dute, bai denboran eta baita egokitzen zaien funtzioan ere. Horretarako, aditua den profesionalak adi egon behar du eta noiz neutralizatu behar duen jakin. Azido salizilikoa zume zuhaitzaren azaletik ateratzen da. Azidoen tratamenduekin hau lor genezake: azalaren PHa aldatu eta sustantzia bat azalean sakonago sartzea.

Hiperseborrea daukan azalarentzat oso emaitza onak



Azala zaintzeko hainbat tratamendu ezberdin daude.

ematen dituen tratamendua daukagu.

Zimurrak tratatu beharra daukagu.

Orban batzuk argitu egin ditzakegu (beste batzuk desagerrarazi ere bai).

Azalaren zahartzea geldiarazteko tratamenduak dauzkagu.

Aknearen arrasto batzuk eta orbainak desagerrarazteko oso emaitza onak ematen dituen tratamendua daukagu.

Aurpegiko obaloa sendotu egin dezakegu.

Eta askoz gehiago...

Leire, %5eko azido glikolikoa duen krema ematean, azala gorriarazi eta azkura baldin baduzu, hainbat arrazoirengatik izan daiteke: azidoak azalean aktibitate handiegia egiten duelako, ematen duzuna gela izatea eta ez krema bat, ez duzula denbora tarte nahikorik utzi krema ematean (batzuetan azalari ohitzeko denbora eman behar zaio), edo besterik barik, zure azalak ez duelako onartzen.

Krema gomendatu dizun profesionalarengana joan behar duzu, eta zure arazoa jakinarazi. Jarraipena egin behar da gauzak ondo doazen ikusteko.



Maria Isabel Hurtado
Dermatizista
e-maila: mi.hs@euskalnet.net

KOROSTI
INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

ETXEBIZITZAK SALGAI
Bergara:
• Duplexa. Masterreka. 180 m².
• Duplexa. Ortuibar. Oso ondo.
• Bidekurutzeta 66 m². Oso ondo.
• Ibargarai 106 m². Oso ondo.
• Espoloia 156 m². Oso ondo.
• Koldo Eleizalde 87 m². Ondo.
• K. Eleizalde 90 m² + teilatu azpia.
• S. Pedro 78 m². Ganbara. Berrituta.
• Zabalotegi 50 m². Oso ondo.
• T. Aranzadi 140 m². Oso ondo.
• Boni Laskurain 90 m². Garajea.
• Bidekurutzeta 65 m². Oso ondo.
• Bidekurutzeta 96 m². Oso ondo.
• Fraiskozuri 104 m². Oso ondo.
• Ortuibar 97 m². Oso ondo.
• Bolu 85 m². Ondo.
• Zubieta 65 m². Terraza.
• Zubiaurre 80 m². Ondo.
• Artekale 74 m². Ondo.
Antzuola:
• Eguzki auzoa 84 m². Eguzkitsua.
• Duplexa. Erdialdea. Oso ondo.

DEBA GARAIA
INMOBILIARIA
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40
BERGARA:
• Bidekurutzeta 55 m². Oso ondo.
• Erdialdean, duplexa 93 m². Berria.
• Erdialdea 110 m². Oso ondo.
• Aranerreka 75 m². Oso ondo.
• Zubiaurre 60 m². Oso ondo.
• Matxiategi 80m². Ondo.
• Martoko 60 m². Berritzeko.
• Ibargarai 106 m². Berria.
• Zubieta 80 m². Oso ondo.
• Artekale 74 m². Ondo.
• Bolu 84 m². Oso ondo.
• Masterreka 87 m². Oso ondo.
• Martoko 45 m². Ondo.
• Boni Laskurain 92 m². Oso ondo.
• Ozaeta 74 m². Ondo.
ELGETA:
• 70 m². Berritzeko.
SORALUZE:
• Gipuzkoa etorb. 80 m². Oso ondo.
ANTZUOLA:
• Duplex berria erdialdean.

# 1/ ETXEBIZITZAK

## 101. SALDU

**Antzuola.** Etxebizitza ia berria (2002ko azarokoa). 89 metro koadro eta 10 metro koadro balkoi. Hiru logela, egongela-jangela, sukaldea jantzita, bi bainugela eta bi balkoi. Erdi jantzita. Eguzkitsua. 655 70 97 14.

Antzuola. Etxebizitza salgai. 659 62 02 72.

**Aretxabaleta.** Etxea salgai. Guztiz jantzita. Egoera onean. Berogailua. Momentuan bizitzera sartzeko. 50 m². 626 60 11 07.

**Aretxabaleta.** Markule kalean etxea salgai. 97 m². Telefonoa: 626 49 52 73.

**Arrasate.** Erguin kalean etxea salgai. 50 m², berrituta. 686 75 79 55.

**Arrasate.** Etxea salgai Agirre kalean. Berritu egin behar da. 649 55 48 10.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Zerrajeran. 110 metro koadro. Hego-mendebaldera begira. Bi garaje plazarekin. 660 70 13 80.

**Arrasate.** Makatzena auzoan etxebizitza salgai. Hiru logela, egongela, jangela, bainugela eta ganbara. 680 77 06 44.

**Arrasate.** Uribarri etorbidean. Hiru logela, bi bainugela, egongela sukaldea eta ganbara. Guztiz jantzita. Berritua. 625 47 61 62.

**Arrasate.** Zerrajera kalean. Hego-mendebaldera begira. 110 metro koadro. 660 70 13 80.

**Bergara.** 50 m²-ko etxebizitza salgai. Oso ondo dago. 635 72 67 11.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Bidekurutzeta 36an; hirugarren solairua da. 667 80 92 89.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Martokon. 93 m². Egongela, hiru logela, sukaldea, komuna eta ganbara. Gela guztiek kanpora ematen dute. 619 28 60 32 edo 943 76 52 86.

**Bergara.** Koldo Eleizalden duplexa salgai. Beheko solairuan dago, bi komun ditu, hiru gela eta berogailua. 943 76 27 68 edo 658 72 65 25.

**Elgeta.** Bi gela, egongela, sukaldea, bainugela eta ganbara. Igogailua ere badu. Prezio ona. 645 71 76 25.

**Oñati.** Duplexa salgai erdigunean. Estreinatu gabea. Terraza dauka. Hiru logela, bi bainugela, sukaldea eta egongela. Etxe agentziok, ez deitu. 627 21 87 49.

## 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta** Mitarte kalean. 626 65 25 85.

Benidorm. Bi logelako apartamentua. Levanteko hondartzaren ondoan. Garajearekin. 666 67 06 94.

**Benidorm.** Etxebizitza emango nuke errentan. Bali hotelaren aldamenean dago. Etxebizitza berria da. 945 44 53 60.

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan. 943 76 44 34.

**Cambrils.** Apartamentua ematen da errentan. Hondartzatik gertu. Igerilekua eta loratergia ditu. 610 79 47 29.

**Conil.** Apartamentua alokagai daukat Bateles hondartzaren ondoan. Guztiz jantzita, eta aire girotuarekin. 680 44 26 68.

**Costa Sancti Petri-Chiclana** (Cadiz). Apartamentua errentan, La Barrosa

hondartzatik oso-oso gertu. Deitu gaueztelefono hauetara: 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

**Peñiscola.** Apartamentua ematen da errentan, hondartzatik 100 metrora, Aste Santurako eta udarako. Zona pribatua. Guztiz jantzia. Parkinga eta igerilekua ere baditu. Deitu telefono honetara: 610 87 83 57.

IRAGARKI SAILKATUAK
943 25 05 01 edo sailkatuak@goiena.com

Debagoieneko Mankomunitatea

TURISMO TEKNIKARIEN LAN POLTSA BAT osatzera doa.
Titulazioa: Erdi mailako titulazioa eta B gidabaimena.

"Equal Mikrogunea" proiektuaren ekintzak garatzeko ENPRESA TEKNIKARI BAT 10 hilabeterako kontratatzera doa.
Titulazioa: Diplomatura bat. B gidabaimena.

DEBAGOIENEKO MANKOMUNITATEA
Eskaerak: Martxoaren 3ko 14:00ak baino lehen aurkeztu behar dira. Mankomunitatearen egoitzan. Bertan dauzkazue oinarriak eta eskaera ereduak.
Arrasate Pasealekua 5 behea ARRASATE 943 79 33 99 www.debagoiena.com

ARRASATE
Denda batek instalatzailea behar du etxetresna elektrikoak muntatzeko.
943 77 00 34

DEBAGOIENA
Taberna-jatetxea ematen da errentan, ezin atenditzeagatik. Bezero propioak ditu.
675 23 30 65

BERGARA
Esperientziadun zerbitzaria behar da egubakoitz gauetarako eta zapatu arratsaldetarako eta gauetarako
943 76 15 59 (Bitxor)

BERGARA
Depor tabernan zerbitzaria edo sukalde laguntzailea behar da
629 26 88 51

ANGIOZAR
Ortzi erretegia alokatzen da
943 78 22 80
665 72 24 46

ARETXABALETA
Esperientziadun zerbitzaria behar da
943 71 43 45

**Salou.** Apartamentua alokagai daukat Jaime I pasealekuan, Novelty eraikinaren ondoan. Guztiz jantzita, aire girotuarekin, igerilekuarekin eta garajearekin. 629 98 98 99 edo 943 81 42 38.

**Vera (Almeria).** Hondartza eta urbanizazio naturistan dagoen etxebizitza ematen da errentan. Guztiz jantzita. Igerilekuarekin. 657 73 94 25.

## 104. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Bergara eta Arrasateko 30 urte inguru dituzten hiru neska langilek etxebizitza hartuko lukete errentan Arrasaten. Maite. 665 73 17 66.

Arrasate. Debagoieneko bi mutil eta neska batek etxebizitza errentan hartuko lukete. Hirurok lagileak. Jabier. Deitu telefono honetara: 685 73 67 54.

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke. 654 07 39 95 edo 943 53 22 11.

**Oñati.** Bi neskak etxebizitza hartuko genuke errentan. 605 70 41 18.

## 105. ETXEAK OSATU

**Aretxabaleta.** Beste lagun batzuk bizi diren etxea osatuko luke neska batek, edo etxe batean gela bat hartuko luke errentan. 686 80 56 59.

# 2/ GARAJEAK

## 201. SALDU

**Arrasate.** Zarugalde kalean garaje itxia salgai. 15 m². 680 77 06 44.

## 203. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Garaje itxia emango nuke errentan. Erdialdean dago. Deitu telefono honetara: 636 73 54 94.

Arrasate. Garajea ematen da errentan Maitena kalean. Deitu 20:00etatik aurrera. 943 77 10 90.

**Arrasate.** Olarte kalean garajea errentan. Itxia. Deitu telefono honetara: 616 70 78 91.

**Bergara.** Ibargarai 33an. 18 metro koadro. Deitu telefono honetara: 943 76 37 09.

## 204. ERRENTAN HARTU

**Antzuola.** Garajea errentan hartuko nuke. Deitu telefono honetara: 943 76 65 38.

# 4/ LANA

## 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Emakumea behar da, umeak zaintzeko eta etxekolanak egiteko. 679 99 33 53.

Debagoiena. Etxe batean goizeko 07:00etan hasi eta hiruzpalau orduz lan egiteko norbait behar da. Euskara jakitea baloratuko da. 943 03 89 23.

## 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu etxeko lanak egiteko edo adinekoak zaintzeko. 686 80 56 59.

Arrasate. Emakume euskalduna gertu umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakume euskalduna prest umeak edo adineko pertsonak zaintzeko. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakumea gertu arratsaldez etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. 600 84 14 37.

**Arrasate.** Emakumea gertu umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Deitu telefono honetara: 615 75 41 44.

**Arrasate.** Neska gaztea gertu umeak zaintzeko. 699 57 12 68.

**Bergara.** Emakumea lan egiteko gertu. Garbiketa lanak egiteko edo umeak edo nagusiak zaintzeko. 605 70 63 82.

**Bergara.** Neska euskalduna arratsaldez umeak zaintzeko gertu. 943 76 25 59.

**Bergara.** Neska prest haurrak zein nagusiak arratsaldeetan zaintzeko. 606 64 22 84.

**Bergara.** Peoi lan egingo nuke. 654 07 39 95 edo 943 53 22 11.

**Debagoiena.** Nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egingo nituzke. 686 16 22 75 edo 943 76 04 18.

**Debagoiena.** Neska euskalduna barran edo jangelako zerbitzari lanetan jarduteko gertu. Esperientziaduna. Txandaka, aste bukaeretan. 676 87 99 48.

**Debagoiena.** Unibertsitate ikasketak dituen profesionala lan bila. Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. 636 02 07 64.

**Hiru** emakume edozein lan egiteko gertu. 606 64 16 09.

**Neska** euskalduna gertu goizez edo arratsaldez lan egiteko, 18:00ak arte. Etxeko lanak, umeak zaindu edo zerbitzari lanak egiteko gertu dago. 665 71 46 26.

# 5/ IRAKASKUNTZA

## 501. JASO

**Arrasate.** 14 urteko mutil bati DBHko eskolak emateko irakaslea behar da. 677 72 36 61.

Arrasate. Eskolak jasoko nituzke: artearen historia, historia garaikidea eta matematika. Batxilergoko 2. mailakoak. 699 57 12 68.

## 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingeles eskolak ematen ditut. 943 79 03 83.

Arrasate. Behar bereziak dituzten haur eta gazteendako eskolak. Antentzio pertsonalizatua. Esperientzia handia. 658 70 67 84.

# 6/ MOTORRA

## 601. SALDU

**Autokarabana.** Turbo Diesel 2500 cm³, Sei toki egunez eta lau gauez, telebistarako antena, ondo zainduta. Dutxa eta berogailua. 945 44 52 67.

Bultaco Serco trialeko motorra salgai. 2003koa. Estra asko ditu. 690 81 64 39.

**Citroen Xsara** autoa salgai. 1.6. Full equipe. 79.000 km. Garajean gordetakoa. Egoera onean. 647 29 93 44.

**Golf TDI** autoa salgai. 1998koa. Oso egoera onean eta prezio interesgarria. 637 50 51 60.

**Honda Pantheon** 150 scooterra salgai. 2000koa. 13.600 km. Berri-berria. Jabi. 943 79 89 82 edo 665 75 05 73.

**Honda** Transalp 600. Oso egoera onean. 2000koa, 32.000 km. 619 10 43 33.

**Opel Corsa TDI.** 30.000 km. Aire girotua, CDa, aire-zakua. 665 74 91 28.

**Opel** Corsa DTI salgai. 30.000 kilometro ditu. 665 74 91 28.

**Renault** Laguna 1.6. RT salgai. 1998koa. 89.000 kilometro ditu. Egoera onean dago, garajean gordeta egon da. Bi pantailadun DVD mugikorra dauka. 685 72 43 59.

**Suzuki Samurai.** 1997koa, zuri kolorekoa. 5.000 euro. 685 75 70 71.

**Volskwagen Polo** autoa salgai. SS-AX. 1.500 euro. Telefonoa: 625 70 84 55.

**Yamaha** Fazer 600. 1998koa. 65.000 km. Egoera onean. 649 17 67 74.

## 603. ALOKATU

**Autokarabana** ematen dut errentan. Guztiz egokituta eta bost lagunendako homologatuta. Deitu telefono hauetara:658 72 11 49 edo 657 79 09 58.

# 8/ DENETARIK

## 801. SALDU

**Bi butaka.** Egoera onean. 200 euro bakoitzak. 675 70 16 07.

Erremolkea. Txakurrak eramateko prestatuta, 250 euro. 678 43 31 07.

**Hagunak (llantak)** salgai, 16koak. Baita ere disko jartzailearendako mahaia, ekipo osoarekin. 667 95 45 15.

**Hozkailu industriala** salgai, motor berriarekin. 943 76 25 28 edo 649 53 61 20.

**Kutxa-izozkailua** salgai. Berria. 150 euro. 943 79 62 05.

**Ordenagailua** salgai. Hiru urte ditu. Pentium 4, 40 GB eta 16 pulgadako monitorea. Kable gabeko sagua eta teklatua ere baditu. 635 74 27 43.

**Pultsometroa.** Polar S610i. Ia erabili gabe. Deitu telefono honetara: 610 36 39 94.

Otsailaren 27a: 077 zozketa

ASTELEHENEKO GOIENKARIA
Harpidedunen txokoa

Sariak astero!
Astelehenean, otsailak 27, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!

076 zozketako saridunak

Bi gonbidapen FLORIDA-GURIDI zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko BOCATTAN bi menu jateko (saridun bakoitzarendako bi).
• Ana M. Kortabarria Bikuña (Oñati)
• Lierni Legorburu Ibarguren (Antzuola)

Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko (Saridun bakoitzari bi).
• Jose Luis Eraña Errasti (Aretxabaleta)
• Eneida Ezenarro Arejolaleiba (Bergara)

077 zozketako sariak

• EIBAR-MALAGA B
futbol partidua ikusteko sei gonbidapen.
(Saridun bakoitzarendako bi)



• Bi gonbidapen Donostiako AQUARIUMa bisitatzeko.
(Saridun bakoitzarendako bi)

Baldintzak

• *Asteleheneko Goienkaria*-ko harpidedun izatea da baldintza bakarra.
• Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

Harpidedun egiteko:
902 36 38 51
09:00etatik 18:30era.

Harpidetza kuota:
36 euro
2006 bukaera arte

ASTELEHENEKO Goienkaria
astelehenean, aste bukaera osoa

## hildakoak

- **Fausto Poza Lobo.** Bergaran, otsailaren 15ean. 69 urte.
- **Maria Begoña Rekalde Zulueta.** Bergaran, otsailaren 15ean. 83 urte.
- **Kandida Uribesalgo Irazola.** Arrasaten, otsailaren 15ean. 82 urte.
- **Hilario Borrego Maria.** Aretxabaletan, otsailaren 16an. 77 urte.
- **Rufino Ugarte Balantzategi.** Arrasaten, otsailaren 17an. 87 urte.
- **Angel Mari Moreno Jauregi.** Bergaran, otsailaren 17an. 43 urte.
- **Maria Angeles Madariaga Epelde.** Bergaran, otsailaren 19an. 60 urte.
- **Felipe Del Teso Sandoval.** Eskoriatzan, otsailaren 19an. 85 urte.
- **Jose Luis Ibarguen Alonso.** Arrasaten, otsailaren 20an. 47 urte.
- **Salome Elkorobarrutia Herrarte.** Arrasaten, otsailaren 20an. 95urte.
- **Abel Rojas Calvo.** Arrasaten, otsailaren 21ean. 57 urte.
- **Juana Arabaolaza Intza.** Oñatin, otsailaren 21ean. 84 urte.

ESKER ONA

## Kandida Uribesalgo Irazola

Arrasaten hil zen 2006ko otsailaren 15ean, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2006ko otsailaren 24an.

ESKER ONA

## Jose Luis Arregi Goitia

Oñatin hil zen 2006ko otsailaren 15ean, 55 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Oñatin, 2006ko otsailaren 24an.

ESKELA

## Jose Luis Ibarguen Alonso

"Txelis"

Mondragon Futbol Klubeko Zuzendaritzako kidea
Iruñean hil zen 2006ko otsailaren 20an, 47 urte zituela.

*Mila esker Txelis*
*eredua izan zarelako.*
*Zure irudiak bizirik*
*jarraituko du*
*Atxabalpeko zelaian.*



Mondragon Futbol Klubeko Zuzendaritza
Arrasaten, 2006ko otsailaren 24an.

ESKELA

## Jose Luis Ibarguen Alonso

"Txelis"

Iruñean hil zen 2006ko otsailaren 20an, 47 urte zituela.

*Adiskideendako adiskide*
*lagunendako lagun*
*oroimen hau gordeko dugu*
*betirako bihotzean.*
*Agur ez*
*beti gure artean biziko haiz Txelis.*



Hire koadrila.
Arrasaten, 2006ko otsailaren 24an.

ESKER ONA

## Rufino Ugarte Balanzategi

Antonia Garairen alarguna

Arrasaten hil zen 2006ko otsailaren 17an, 87 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2006ko otsailaren 24an.

URTEURRENA

## Tomasa Zabaleta Larrañaga

Bigarren urteurreneko meza
zapatuan, otsailaren 25ean,
19:00etan,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

URTEURRENA

## Victor Dueñas Cosme

Bigarren urteurrena.
Zure emazteak, seme-alabek
eta bilobek betiko izango
zaituzte gogoan.



Arrasaten, 2006ko otsailaren 24an.

URTEURRENA

## Vicente Larrañaga Arizaga

Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailaren 26an,
11:30ean, Antzuolako
Errukizko Amaren elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

GOIENKARIA
Astero 18.500 etxetan.
Eskelen prezioa: 85 €.



## bila bila 7





## hitz gezidunak



| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | Amildegia / Beharra | | Armiarma-sare / Letra izena | | Laztana, kuttuna / Idi, hitz elkartetan | |
| | | | | | | | | |
| | | | * Argazkian / Otzantasunez, bare | | | | | |
| Salatari / Esnekia | | Huts, akats / Zergatik | | | | | Tona / Oztopoa | |
| | | | | | Sarrera / Era, molde | | | |
| Legez / Haragi-saltzailea | | | | Gogo, nahi / Norekin atzizkia | | | | |
| | | | | | | | | Ez eme |
| Kirol mota / Samin, oinaze | | | | | | Herri hizk., bada / Boroa | | |
| | | | Arre, gris | | | | | |

LUMA

## umore giroan



Kike Amonarriz

### Ordularia

Hormako ordularia bizkarrean hartuta harrapatu du Marianok Ferminiko:

- To, Fermin! Zer kristo habil erlojua bizkarrean hartuta? Ez al dabil edo?

Eta Ferminikoren erantzuna:

- Balebil, zera eramango nuke nik bizkarrean!

### Aitaren argazkia

Mirentxu familiako argazkiei begira ari da.

- Ama! Zein da zurekin dagoen gizon dotore eta argal hau?
- Hori? Zure aita, neska!
- Kontxo! Eta orduan zein da gurekin bizi den morroi potolo eta burusoila?

## sudoku

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | | | 3 | | | 6 | | 1 |
| 6 | 4 | | | | 7 | | | |
| | | | | 8 | | | 4 | |
| 9 | | | | 1 | 6 | | | 8 |
| 2 | | | | | | | | 7 |
| 1 | | | 5 | 7 | | | | 3 |
| | 7 | | | 5 | | | | |
| | | | 7 | | | | 8 | 6 |
| 4 | | 1 | | | 8 | | | 9 |

## jeroglifikoa

Zer gertatu zaio Sam beltzari?



## hizki salda

Bailarako bost rock talde

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| C | F | K | L | Y | S | D | U | O |
| H | O | S | S | E | R | H | S | K |
| E | S | O | G | A | E | M | C | J |
| D | U | P | L | A | G | O | N | E |
| G | X | F | A | P | N | U | X | J |
| S | E | E | G | M | A | Z | J | O |
| A | D | G | Z | R | T | N | U | E |
| S | E | F | L | Y | S | H | I | T |
| O | R | T | S | G | A | K | E | C |

## soluzioak





| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | ■ | T | ■ | A | ■ | M |
| | | | P | R | E | M | I | A |
| | | | ■ | O | Ñ | A | T | I |
| ■ | S | ■ | O | K | E | R | ■ | T |
| G | A | Z | T | A | ■ | A | T | E |
| ■ | L | E | Z | ■ | G | U | R | A |
| H | A | R | A | K | I | N | A | ■ |
| ■ | T | E | N | I | S | ■ | B | A |
| M | I | N | ■ | N | A | B | A | R |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 5 | 2 | 8 | 3 | 9 | 4 | 6 | 7 | 1 |
| 6 | 4 | 3 | 1 | 2 | 7 | 8 | 9 | 5 |
| 7 | 1 | 9 | 6 | 8 | 5 | 3 | 4 | 2 |
| 9 | 3 | 7 | 4 | 1 | 6 | 2 | 5 | 8 |
| 2 | 6 | 5 | 8 | 3 | 9 | 4 | 1 | 7 |
| 1 | 8 | 4 | 5 | 7 | 2 | 9 | 6 | 3 |
| 8 | 7 | 6 | 9 | 5 | 3 | 1 | 2 | 4 |
| 3 | 9 | 2 | 7 | 4 | 1 | 5 | 8 | 6 |
| 4 | 5 | 1 | 2 | 6 | 8 | 7 | 3 | 9 |

**Jeroglifikoa:** Putzura bota dute Ku-Kux-Klanekoek.

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| C | F | K | L | Y | S | D | U | O |
| H | O | S | S | E | R | H | S | K |
| E | S | O | G | A | E | M | C | J |
| D | U | P | L | A | G | O | N | E |
| G | X | F | A | P | N | U | X | J |
| S | E | E | G | M | A | Z | J | O |
| A | D | G | Z | R | T | N | U | E |
| S | E | F | L | Y | S | H | I | T |
| O | R | T | S | G | A | K | E | C |

## bono fotoa



### Non dago "Euzkadi'-k emen geldi-azi eban etsaiaren jazarraldia" zioen oroitarria?

**Argazkia eta galdera** > Miguel Angel Elkoroberezibar

Super BM

Super BMk emandako **30 euroko erosketa-txartela** zozketatuko du GOIENKARIAk asmatzaileon artean!

**ERANTZUNA** ...............................................

...............................................

IZEN-DEITURAK ...............................................

TELEFONOA...............................................

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO Goienako edozein egoitzara

**Font-Vella ura**

**1,5 litroko botila**

**0,45 €** 35 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

**BERNARDO NUÑEZ**endako (Bergara) eta **KONTXI IBARRA**rendako (Arrasate) izan dira 30 euroko erosketa-txartelak. Zorionak!

**Galderen erantzun zuzena: Jorge Oteiza.**

Mikel Erle > Bidaia-zalea

# "Nork bere burua ondo ezagutzeko garrantzitsua da atzerrian ibiltzea"

Mikel Erle oñatiarrak atzerrira bizi izatera joateko apustua egin zuen orain dela sei bat urte. Horren aurretik, hainbat herrialde bisitatu zituen eta erabaki zuen gazte den bitartean mundua ezagutu gura duela. Denetatik egin behar izan du Londresen eta AEBetan, eta jende asko ezagutu du. Bere aholkua da nor bere kabuz atzerrian bizi izateko proba egin behar dela.

IKER BARANDIARAN > OÑATI

**Erlek asko maite du bere jaioterria, baina abentura-zalea da eta atzerrian bizi izateak asko erakartzen du. Besteak beste, Londresen eta AEBetan hainbat urte egin ditu denetariko lanak egiten. Zoriontsua da, baina aitortu digu nekatzen denean Oñatira bueltatuko dela, lasaiago bizi izatera.**

**Txikitan, zer izan gura zenuen?**

Albaitari. Txikitan animalia artean ibiltzen nintzen eta animaliak oso gustuko nituen. Gero konturatu nintzen asko ikasi beharra zegoela eta iritzia aldatu nuen.

**Aspaldi Txiapasera joan zinen, Oñatin haren alde batutako dirua eramatera...**

Oso esperientzia ona izan zen. Ozeanoa zeharkatu nuen lehenengo aldia izan zen eta hiru hilabete eta erdi egin genituen bidaian. AEB, Mexiko eta Guatemala ezagutu, eta Txiapasera Oñatin batutako dirua eraman genuen. Ordura arteko bidaia luzeena izan zen, eta jende asko ezagutu genuen. Gainera, globalizazioaren kalteen berri izan genuen.

**Zer bultzatzen zaitu sustraiak utzi eta atzerrira joatera?**

Kezka bat nuen: ez nekien Oñatin edo kanpoan bizi gura nuen. Horregatik proba egitea erabaki nuen, eta oso gustura nago. Barruan galdera hori daukanari gomendatzen diot kanpora joateko. Jende guztiak ez dauka galdera eta premia hori, baina gainontzekoei gomendatu egiten diet proba egiteko. Kanpora joateko, eta gustatzen ez bazaie hortik aurrera jakingo dute hori egin gura ez dutela, eta herrian lasai gelditukو dira. Nork bere burua ondo ezagutu behar du, eta horretan asko laguntzen du atzerrian zure kasa ibiltzeak.

**Eta Londresera joan zinenetik ia ez zaituzte herrian ikusi...**

2000ko otsailaren 2an joan nintzen Londresera, eta hura izan zen nire independentziako eguna. Hala ere, eskerrak amari, herrira joaten naizen bakoitzean oso ondo hartzen nauelako. Asmoa zen sei hilabetean ingelesa ikastea, baina Londres oso erakargarria da eta bi urte eta erdi egin nituen. Londres oso kosmopolita da, jende asko ezagutu dut eta bizipen ugari izan ditut: *squat*-etan bizi izaten egon nintzen...

**Eta lanbide asko izan dituzu, ezta?**

Bai. Hasieran lan gogorrak besterik ez dizute eskaintzen, baina ingelesa ikasi ahala lan hobeak eskura daitezke. AEBetan gauza bera gertatzen da. Denetatik egin dut: platerak garbitu, eraikuntzan, basoan, loretegietan lan egin... Horrez gain, bitxia izan zen *The Phantom of the Opera* ikuskizunean lan egitea. Orain dela hamarkada batzuk hasita, Londresko antzoki baten egunero-egunero egiten dute ikuskizun hori, eta nik urtebete pasatxo egin nuen han, taula gaineko dekoratuak mugitzen. Oso azkar lan egin behar zen eta ardura handia zen, baina oso ondo ordaintzen zuten.

**Horren ostean, batez ere Alaskan ibili zara...**

Bai, azkeneko urteotan AEBetan barrena nabil. AEBetan Mexikoko lagun batek esan zidan Alaska oso ondo dagoela, eta hara jo nuen. Hiru bat urte egin ditut han. Han ere lan ugari egin ditut: garbitzaile, egurgile, gaztelania irakasle, sukaldari, arrantzale...

**Zer aurkitu duzu han?**

Ni Alaskako hegoaldean ibili naiz, eta han udaberrian epel dago eta egunak luzeak dira. Neguan, berriz, jende gehienak alde egiten du. Han egiten da lan urtaroaren, sasoiaren, eguraldiaren eta haizearen arabera. Zuhaitzak mozten edo itsaso handian arrantzan ibili naizenean, hori ezinbestekoa zen. Ez zegoen domeka edo jaiegunik, baina eguraldi oso txarra eginez gero, batzuetan atseden hartzen genuen.

Negua gogorregia da. Behin bakarrik gelditu naiz neguan Alaskan. Hotz handiegia eta eguraldi txarregia egiten du ezer egiteko. Jende asko Alaskan apirilletik urrira artean bizi da, eta gero alde egiten du epeltasunera, baita nik ere. Alaskan 800.000 lagun bakarrik bizi dira, eta AEBetako estatu handiena da. Eskimalak egoera txarrean daude, gaur egungo garaietara ez direlako ohitu. Gobernuak pentsioa ematen die, baina askok arazoak dituzte alkoholarekin eta drogekin.

**Atzerrian ibili ostean, zelan ikusten duzu Debagoiena gaur egun?**

Herri langilea eta ekimentsua izan gara, eta bizi maila handia dago hemen. Horrez gain, argiak, kritikoak eta umilak gara, baina beti dago zertan hobetu.









OIHANA ELORTZA

PERTSONALA

**Herria:** Oñati. **Adina:** 33 urte. **Ikasketak:** Enpresazientziak. **Zaletasunak:** Kirola, mendia, eta familia eta lagunekin egotea. **Prentsa, telebista ala Internet?** Internet. Egunero erabiltzen dut, eta lotura garrantzitsua da. **Nola ikusten duzu zure burua 30 urte barru?** Pozik. **Zure bizitzako leloa da...** Aurrera bolie. **Parrandarik onena non egin duzu?** Londresen, baina Oñatikoak ere ez dira makalak. **Nora ez zinateke inoiz bueltatuko?** Inora ere ez. Egon naizen lekuetan beti ondo. **Inoiz ez dituzu ahaztuko?** Lagun onak.

**'NAMING' >** AZK Komunikazioak enpresaren blogean ('yellowing.net') Juan Luis Azkaratek idatzitako artikulua ekarri dugu orrialde honetara; izan ere, izenen garrantzia aztertzen du Azkaratek, gertuko adibideak jarrita.

# Tabernaz taberna, izenen azterketa eginez

Izen on batek ez du arrakasta ziurtatzen, eta, aldiz, arrakasta lor daiteke izen kaxkar batekin. Adibide asko dago. Horregatik, oraindik batzuek diote izenak ez duela inporta. Baina ziur nago zure seme edo alabari sekula ez zeniokeela edozein izen ipiniko, ezta?

Iñigo Fernandezek bere blogean (*http://tinyurl.com/ds3lu*) oso ongi erakusten duenez, izen on batek asko lagun diezaioke enpresa bati dirua irabazten, eta, horregatik, *naming* delakoa parametro zientifikoetan sortu eta aztertzen da gaur, marka definitzerakoan oso lagungarri eta, askotan, erabakigarria baita.

**GERTUKO HAINBAT ADIBIDE**

Adibide batzuekin saiatuko naiz azaltzen zergatik izen batzuk, ene ustez behintzat, oso ondo eta beste batzuk, aldiz, oso gaizki aukeratuta dauden. Gehienontzat oso leku kuttunak diren lokal batzuk erabiliko ditut, tabernak, azterketa txiki honetan. Horretarako ni gehien ibiltzen naizen herrietan, Arrasate, nire bizilekua, eta Aretxabaleta, nire lanlekua, azken hilabeteetan zabaldutako hiru tabernaren izenak hartuko ditut mintzagai.



**Juan Luis Azkarate** > Erredaktorea

**"Naming' delakoa parametro zientifikoetan sortu eta aztertzen da gaur"**

Iaz Aretxabaletan Dagda garagardotegi irlandarra zabaldu zuten, frankizia horietako bat. Ene ustez, oso izen xelebrea, benetan txarra. Ahoskatzeko oso zaila eta gogoratzeko, are zailago. Gainera, ez dakigu zer esan nahi duen; gaelikoz? Totelka ari garela ematen du: dagda, dagda. Laster bere izena galduko du, jendeak *irlandesa* deitzen dio-eta.

Aurten bertan, Errege-egunean Arrasaten Sampry taberna-jatetxe dotorea zabaldu zuten. Ziur asko arrakasta lortuko du, oso lokal ederra delako, baina aukeratutako izenak justu dena eta izan nahi duenaren kontrakoa islatzen du. Leku modernoa da oso, herrietan baino hiriburuetan egoten diren horietako bat, baina izen kaskar honek ez dio inolako mesederik egiten. Izen hau haurrentzako pentsatuta bezala iruditzen zait eta ez da batere modernoa, gainera; kutsu *antiguala* ere ikusten diot izenari. Gainera, Dagda-k zituen ezaugarri txar guztiak ere biltzen ditu: gogoratzeko zaila, eta ahoskatzeko, hiru kontsonante jarraian izanik, are zailago.

Azkenean, Aretxabaletan aurtengo urtarrilean, baita ere, Beroa Kafe ireki berri dute. Honetan bai asmatu dutela. Eta gainera, izena asmatzearen lana oso erraza ipini diete jabeei. Beroa da kafea kokatzen den urbanizazioaren izena, lehenago leku berean izen bereko lantegia egon zelako. Berez, izena ia emanda zegoen. Erraz ahoskatzen da, gogoratzeko erraza, eta konnotazio positiboak ditu. Zer erakargarriagorik kafe bero bat baino?




Beroa Kafe urtarrilean zabaldu zuten, Aretxabaletan. AZK

**teknologia berriak**

> SOFTWAREA EUSKARAZ

## Alianzok blogentzako software libre bat euskarara lokalizatu du

Barakaldon egoitza duen Alianzo enpresak blogak egiteko programa nagusienetakoa den *B2evolution* lokalizatu du euskarara. Horrela, euskara barne hartuz, software hori 17 hizkuntzatara itzuli dute jada.

*B2evolution* euskaraz erabiltzeko aski da programa web ofizialetik hartzea, baina hori ez da posible izango bertsio berria kaleratu arte. Bitartean, Alianzoren webgunetik softwarea eta ondoren *.po* fitxategiak hartu beharko dira. *http://tinyurl.com/eugjh*




*B2evolution:* Vocento, *Blogari.net* eta *Berria*-ko blog plataformek ere erabiltzen dute.

> ESKUKO BIDEOA

## Toshiba etxeko DVD aparailu berriak telebista sintonizadore analogikoa izango du

Nintendo DS eskuko bideokontsolan telebista sintonizadorea jartzeko asmoa daukate eta Toshibak sintonizadorea jarriko du ateratzear duen DVD aparailu berrian. SD-P1700 aparailua sintonizadore analogikoa eta zazpi hazbeteko pantailarekin dator. Horrela, txartel irakurleari esker argazkiak ikusi ahal izango dira, baina kanpo antena beharrezkoa izango da telebista seinalea jaso ahal izateko. *http://tinyurl.com/aoc5c*



SD-P1700 aparailua sintonizadore analogikoa eta zazpi hazbeteko pantailarekin dator.

> INTERNET

## Katalunian '.cat' domeinua aurrera doa, baina itxaropen handirik ez dago '.eus' domeinuetarako

Katalanezko webguneentzat hasi dira *.cat* domeinu izenaren erregistroak. Euskal Herrian nork ez du ezer egin *.eus* domeinu balizko baten alde? Baina saiakera egitekotan ere, aukera gutxi ei daude. Domeinuak Icann erakundeak banatzen ditu. Hizkuntzataldeentzako domeinu erregistroen bidea irekita geratu den arren, milioi bat hiztunetara iristen ez direnek zaila izango dute, Icannek *.cat* onartzeko ezarri dituen irizpide berrien arabera. *http://tinyurl.com/ja4kb*




Katalanezko webguneentzat hasi dira *.cat* domeinu izenaren erregistroak.

**Zure negozioaren erakusleihoa Interneten**

**www.goiena.net-eko blog komertzialak**

- Zure negozioko eskaintzaren berri sarean
- Euskarri merkea
- Emaitza onenak Google eta beste bilatzaileetan
- Erabiltzeko erraza

**Prezioen eta ikastaroen gaineko informazioa:**
**www.goiena.net/blogak ·**
**azabarte@goiena.com ·**
**943 76 92 70**

Goiena.net
Debagoieneko ataria Interneten

www.goiena.net/blogak
/4quattro4 /argi-plastik /arregi /blogak/atai /azkarate
/joseba /BZ-sistemas /dragon-oriental /ezkutuorly
/gallastegi /garaia /guztizeder /irudisport /korozabaleta
/merkeopari /multiopticas /ohiak /okipark /vitoria
/pando /udalatx /udalaitz /gorkataxi /ehmff
/elejalde /maulanda /mayte /aretxargi

Eta baita ere:
www.aizue.com
www.lilura.com
www.baster-alde.com



## berriak

> BERRIKUNTZAK

### Goiena Telebistaren ikus-entzunezkoa sarean ikusgai

*Goiena.com*-en dago ikusgai Goiena Telebistaren gaineko ikus-entzunezkoa. Gaur egun GOITBk ekoizten dituen saioak, ETBtik jasotzen dituenak eta TOKIKOko telebistek egiten dituzten saioen berri eskaintzen du aipatu bideoak. Era berean, *goiena.com* webguneko informazioa eguneratu egin dute.

2005-2006 ikasturteko programa guztien informazioa duzue aukeran sarean.

> GOIENA TELEBISTA

### Bergarako Mujika jantzi dendaren eskaintza telebistan

Udaberrian hasi eta udazkena bitartean ezkontza asko izaten da gure ibarrean. Eta ezkontzetara joateko dotore jantzi beharra izaten da. Hori dela eta, datorren astetik aurrera Bergarako Mujika jantzi dendaren ezkontza eskaintza ikusteko aukera izango da Goiena Telebistan.

Gizonezkoen jantziak erakutsiko dizkigute Mujika jantzi dendakoek hiru minutuko erreportaje berezian.

> ARRASATE IRRATIA

### Amaia Doyague arraunlariari elkarrizketa zapatuan

Bihar, zapatua, Asteko gainbegiratua izango da Arrasate Irratian, 10:00etan. Amaia Doyague Arrasateko arraunlariari egindako elkarrizketa eskainiko dute. Doyague Ibarran bizi da eta Tolosako Arraun Taldeko kidea da.

Horrez gain, *Sua* filma egiten dabil Amaia. Eneko Ariza Kultur Taldeak filmatzen ari den lan horri buruzko azalpenak emango dizkigu arrasatearrak.

> 'ILUNPEAN'

### Iñigo Lamarca Arartekoa, Oihana Elortzarekin

Hurrengo egubakoitzean, martxoaren 3an, Iñigo Lamarca Arartekoa izango da gonbidatua Oihana Elortza kazetari oñatiarrak aurkezten duen *Ilunpean* saioan.

Iñigo Lamarkak bere egitekoaren berri emango digu eta, era berean, bere zaletasunen eta bestelako kontuen gaineko galderak egingo dizkio Oihana Elortzak. Beraz, badakizue, hurrengo egubakoitzean, 22:15ean, hitzordua duzue Goiena Telebistarekin.

**'ILUNPEAN' >** OSTIRALA, 22:15

# Angel Mari Peñagarikano bertsolaria 'Ilunpean' saioan

Bertsolaria izateaz gain, ehiztaria, perretxiko-zalea eta sukaldari ona ere bada Peñagarikano

**GOIENKARIA** > BERGARA

Nahiz eta gaur egun Anoetan bizi den, Angel Mari Peñagarikano Albizturren jaio zen orain 43 urte. Albizturko ostatua zuten gurasoek, eta han ikusi zituen aurrenekoz bertsolariak.

Umetan txorien habiak apurtzea zuen gustuko; gaur egun, berriz, ehiztaria, perretxiko-zalea eta sukaldari ona dela dio. Soldadutzan ezer gutxi ikasi zuela dio eta militarren oroitzapen onik ez du. Bada, horren guztiaren gainean jardungo da Angel Mari Peñagarikano bertsolariak *Ilunpean* saioan Oihana Elortzarekin.



**PEÑAGARIKANO** ETBn zenbait saio egin ditu bertsolariak. GOIENKARIA

**ARATUSTEEN GAINEKO SAIO BEREZIA >** EGUAZTENEAN, 22:15

# Aretxabaletako Aratusteez gozatzeko aukera eskainiko du Goiena Telebistak

**GOIENKARIA** > BERGARA

Beñat Zamalloa eta Kattalin Antxia aretxabaletar gazteek aurkeztuko dute Aratusteen gaineko saio berezia.

Aratusteetako domeka ikusgarria izaten da Aretxabaletan, eta jaiegunaren gaineko kontu guztiak entzuteko eta ikusteko aukera izango da. Mozorro deigarrienak, herri bazkaria, sari banaketa eta Aretxabaletan egingo dituzten ospakizun guztiak eskainiko ditu GOITBk. Egun horretan herri guztia irteten da kalera mozorrotuta eta aurten aurreneko aldiz egingo da herri bazkaria. Saio berezia eguaztenean izango da, 22:15ean.

Era berean, oraingo astebururuan, azken urteotako Aratusteetako irudirik esanguratsuenak eskainiko ditu telebistak. Zapatu arratsaldean izango da saio hori. 2003, 2004 eta 2005 urteetako Aratusteetako saioak eskainiko ditu telebistak. Ibarreko herrietan grabatutako saioak dira guztiak ere, eta, hain zuzen ere, aste bukaera girotzeko balioko dute.

## telebegi

**Unai Moraza** > www.eibar.org/blogak/telezaborra

### 'Humor amarillo'

Cuatrokoak *Humor amarillo*-rekin tronpatu direlakoan nago. Ez, ez nago erotuta, *Humor amarillo* atsegin nuen. Baina orduan 14 urte nituen. Amonak horiek txorradak zirela zioen, berak udaro *Gran Prix*-a iresten duen arren. TeleCincori *TeleCirco* esaten zioten, edo *TetaCinco*. Programazioa horrelako programekin osatzen zuten: *Pressing catch*, *La 5ª marcha*, albistegirik ere ez zegoen... *Pantalla amiga*-ren urrezko aroa.

Horregatik ez dut ulertzen zergatik berreskuratu duen Cuatrok *Humor amarillo*. Ez dator bat kateak zabaldu nahi duen irudiarekin. Hau ez da telebista kate moderno eta berritzaile baterako saioa. Berritzailetik ezer gutxi dauka. Modernotik are gutxiago. TeleCincoren garaietan ez ginen konturatzen, baina saioaren kalitatea oso apala da. Irudiaren definizioa txarra da, iluminazioa ez dakigu existitzen ote den... Lehiaketaren funtzionamendua ezagutu gabe jarraitzen dugu. Hau guztia gutxi ez, eta programak zuen onena aldatu dute, aurkezle bikotea. *Humor amarillo* ondo zegoen oroimenean gordeta.

## arrasate irratia

**FM 107,7**

**Zapatua**
**10:00** Asteko gainbegiratua.
Amaia Doyague arraunlaria; Igor Elordui AEKko Komunikazio arduraduna; Ibili munduan geltokian, Iñaki Araiz; Manu Romano Golden Apple Quartet taldeko kidea; lorategiaren geltokian kaktusen gainen egingo dute berba...

**Domeka**
**10:00** Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**
**10:00-12:00** Igo autobusera!
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ibili Munduan geltokia
Elkarrizketak
Lorategiaren gelltokia
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 71 17 31)
**12:05** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**12:20** Izarren ordua: abesti ezagunak
**13:00** Euskadi Irratiko albistegia.
**14:00** Igo autobusera! (errep.)
**17:00, 19:00, 21:00, 23:00** Arrasate Irratiko albistegi laburra.
**17:15** Zorion agurren tartea (errep.)

## GOITBko programazioa

**Egubakoitza, 24**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Berbaire. **14:15** Musika saioa. **14:30** M1: Eguraldia eta zerbitzuak. **14:35** Gezi-bideak. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Iparrorratza. **15:30** M1. **15:35** Sendabelarrak. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Didjeridu **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:35** Gezi-bideak **16:45** Albisteak **17:00** Berbaire **17:30** Eltze beroa **17:45** Gaurkoak. **17:47** Ilunpean. **18:15** Teknopolis. **18:45** Albisteak. **19:00** Klipak. **19:15** Jazz mintegia. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak **20:45** Albisteak **21:15** Behazulo **21:45** Berriak **22:15** Ilunpean: Angel Mari Peñagarikano **22:45** Albisteak **23:15** 16 mm. **23:45** Berriak **00:15** Amaiera.

**Zapatua, 25**
**08:00** Emisio hasiera **08:05** Marrazki bizidunak bilduma **11:00** Behazulo. **11:30** Ilunpean **12:00** Eltze beroa: Usoa onddoekin eta gaztaina purearekin **12:15** 16 mm **12:45** Jaun ta jabe **13:45** Didjeridu. **14:15** Klip@. Musika taldeen bideoklipak **14:45** Jazz mintegia **15:15** MKT. **15:45** Ikuskizuna: Aratusteetako saio berezia **17:45** Marrazki bizidunak. Bilduma **19:15** Eltze beroa. **19:30** 16 mm. **20:00** Behazulo **20:30** Zera dio eta Motzean **20:45** Ilunpean **21:15** Teknopolis. **21:45** Berbaire: Mahai ingurua. **22:15** Elkartasun bideak. **22:45** 16 mm. **23:15** Erreportajea: Artzuzelai harrobia **23:45** Emisio amaiera.

**Domeka, 26**
**08:00** Emisio hasiera. **08:05** Marrazki bizidunak bilduma. **11:00** Klip bilduma. **11:30** Iparrorratza. Transeuropa. **12:00** Didjeridu. **12:30** Eltze beroa. **12:45** Erreportajea. **13:15** Elkartasun bideak. **13:45** Klip@. **14:15** Marrazki bizidunak. **15:15** MKT. **15:45** Ilunpean **16:15** Behazulo. **16:45** 16mm. **17:15** Ikuskizuna: Aratusteetako saio bereziak **19:15** Iparrorratza: **19:45** Behazulo. **20:15** Zera dio eta Motzean. **20:30** Ilunpean **21:00** Didjeridu. **21:30** 16 mm. **22:00** Berbaire. Marijo Deograciasek aurkeztutako mahai ingurua. **22:30** Didjeridu. **22:30** Teknopolis: erreportaje saioa. **23:00** Emisio Amaiera.

**Astelehena, 27**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Behazulo. **14:15** Eltze beroa. **14:30** M1. **14:35** Gezi-bideak **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Munduari bueltaka:Bolivia. **15:30** M1. Eguraldia eta burtsa tartea. **15:35** Sendabelarrak. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Ilunpean. **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:35** Gezi-bideak **16:45** Albiste aurrerapena. **17:00** Didjeridu. **17:30** Motzean. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Berbaire. **18:15** Jaun ta jabe. **18:45** Albiste aurrerapena. **19:00** Klipak. **19:15** 16 mm. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Albisteak. **21:15** Harmailatik: Mondra-Aloña Mendi derbiaren gaineko laburpen berezia. **21:45** Berriak. **22:15** Harmailatik. **22:45** Albisteak. **23:15** Jazz zikloa. **23:45** Berriak. **00:15** Emisio amaiera.

**Martitzena, 28**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Jazz mintegia: **14:15** Zera dio. **14:30** M1. **14:35** Gezi-bideak. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Elkartasun bideak. **15:30** M1. **15:35** Sendabelarrak. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Harmailatik. **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:35** Gezi-bideak. **16:45** Albisteak. **17:00** Jazz. **17:30** Danbaka. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Erreportajea: Antzuzelai harrobia. **18:15** Munduari bueltaka: Bolivia. **18:45** Albisteak **19:00** Klipak. **19:15** Harmailatik. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Albisteak. **21:15** Ilunpean. **21:45** Berriak. **22:15** Berbaire. **22:45** Albisteak. **23:15** Behazulo. **23:45** Berriak. **00:15** Emisio amaiera.

**Eguaztena, 1**
**13:15** Emisio hasiera **13:20** Marrazki bizidunak **13:45** Gaurkoak. **13:47** Berbaire **14:15** Musika saioa **14:30** M1 **14:35** Gezi-bideak **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Teknopolis. **15:30** M1 **15:35** Sendabelarrak **15:45** Gaurkoak **15:47** Behazulo **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:45** Albiste aurrerapena **17:00** Berbaire. **17:30** Zera dio eta Motzean: Alberto Iñurrategi. **17:45** Gaurkoak. **17:47** 16 mm **18:15** Teknopolis **18:45** Albiste aurrerapena **19:00** Klipak **19:15** Didjeridu **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Albisteak. **21:15** Teknopolis. **21:45** Berriak. **22:15** Aretxabaletako Aratusteak **22:45** Albisteak **23:15** Erreportajea **23:45** Berriak. **00:15** Amaiera.

**Eguena, 2**
**13:15** Emisio hasiera. **13:20** Marrazki bizidunak. **13:45** Gaurkoak. **13:47** Erreportajea. **14:15** Motzean. **14:30** M1. **14:35** Gezi-bideak: Urkulu eta Mendiola. **14:45** Albiste aurrerapena. **15:00** Jaun ta Jabe. **15:30** M1. **15:35** Sendabelarrak. **15:45** Gaurkoak. **15:47** Jazz mintegia.Elgetako gauak **16:15** Klipak. **16:30** M1. **16:35** Gezi-bideak. **16:45** Albiste aurrerapena. **17:00** Aretxabaletako Aratusteak. **17:30** MKT musika. **17:45** Gaurkoak. **17:47** Elkartasun bideak. **18:15** Iparrorratza: Ina Ruforekin transeuropa. **18:45** Albiste aurrerapena. **19:00** Klipak. **19:15** Erreportajea. **19:45** Berriak. **20:15** Marrazki bizidunak. **20:45** Albisteak. **21:15** Jaun ta jabe. **21:45** Berriak. **22:15** Didjeridu: Angel Ezkurra. **22:45** Albisteak. **23:00** Berbaire. **23:45** Berriak **00:15** Amaiera.

# GOIENKARIA e-posta berriak

Aldatu egin ditugu posta elektronikoak. Hauek dira berriak:

| | |
|---|---|
| **Goienkaria** | goienkaria@goiena.com |
| **Asteleheneko Goienkaria** | astelehena@goiena.com |
| **Kultura** | kultura@goiena.com |
| **Kirolak** | kirola@goiena.com |
| **Arrasate** | arrasate@goiena.com |
| **Bergara** | bergara@goiena.com |
| **Oñati** | oinati@goiena.com |
| **Aretxabaleta** | aretxabaleta@goiena.com |
| **Eskoriatza** | eskoriatza@goiena.com |
| **Antzuola** | antzuola@goiena.com |
| **Aramaio** | aramaio@goiena.com |
| **Elgeta** | elgeta@goiena.com |

**Hartu kontuan!**

# Ots. 24-Mar. 3

**Leire Kortabarria** / Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguaztenenko eguerdiko 12:00ak baino lehenago
Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 25 05 01** • Faxa: **943 25 05 13**

## Sorkun bakarlaria Arrasaten



ARRASATE

**> Sorkun eta Tribute to Queens of the Stone Age, 3.60 aretoko eskaintza**

Sorkun bakarlariak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza. Batez ere, *Duna* bere disko berrieneko abestiak joko ditu. Bestetik, Tribute to Queens of the Stone Age-k joko du, Dirties taldeko kide batzuek sortutako omenezko taldea.

## Aratusteetako ospakizunak



DEBAGOIENA

**> Herri guztietan izango dira ekintzak; Aretxabaletan domeka da egun handia**

Aretxabaletako Aratuste ospakizunak nabarmenak dira gure ibarrean, batez ere domekako ekintzak: besteak beste, koadrilen desfilea eta bazkaria, Txino Dantza… izango dira. Beste herri guztietan ere izango da zerekin gozatu, ordea.

## 'Todos nacemos vascos' lana



OÑATI

**> 'Todos nacemos vascos' antzezlana gaur Oñatin, eta laster Bergaran**

*Todos nacemos vascos* antzezlanaren 20:00etako emanaldirako sarrerak badaude oraindik. Gaur, egubakoitza, egingo du saioa Glu Glu taldeak Santa Ana antzokian. Bergaran martxoaren 31n egingo du, eta sarrerak salgai daude.

## Jaiak

OÑATI

**> Aratuste jaialdia izango dute Txantxiku ikastolan**

Aratusteak ospatzeko, mozorrotu egingo dira Txantxiku ikastolako Haur eta Lehen hezkuntzetako ikasleak. Jolasak, dantza emanaldia eta erromeria izango dituzte.

Gaur, otsailaren 24an, egubakoitza. Jolaslekuko ekintzak 14:30ean, ikasleen dantza saioa plazan 16:00etan eta erromeria 16:30ean.

BERGARA

**> Saharako Errepublikaren 30. urteurrena ospatuko dute**

Saharako Errepublikak 30 urte betetzen dituela ospatuko dute. Ekitaldi politikoa, tailerrak, musika, henna tatuajeak, haima bat eta bazkaria antolatu dituzte.

Otsailaren 25ean, zapatua, Labegaraietako kiroldegian. Egun osoan ekintzak.

ARETXABALETA

**> Santa Ageda mutilek dantzan egingo dute etzi, domeka**

Santa Agedako ospakizunekin bukatzeko, aurtengo azken dantzaldia egingo dute mutilek.

Etzi, otsailaren 26an, domeka, Herriko Plazan, 19:00etan.

OÑATI

**> Aratusteak ospatuko dituzte Elkar Heziko ikasleek**

Elkar Heziko Haur eta Lehen hezkuntzetako ospakizuna izango dute Aratuste-martitzenean. Besteak beste, Aretxabaletako Txino Dantza egingo dute kalejiran.

Hilaren 28an, Aratuste-martitzena. Herriko kaleetan ospatuko dute.

ARETXABALETA

**> Aingeru Guarda eguna ospatuko dute erretiratuek**

Basotxo erretiratuen elkarteko zaindaria da Aingeru Guarda, eta egun hori ospatuko dute. Lehenengo, salda beroa hartuko dute Basotxo tabernan (12:00); meza entzungo dute Agustindarren komentuan (13:00); gero, bazkaria (14:15) eta dantzaldia izango dituzte.

Martxoaren 1ean, eguaztena.

## Musika

ARRASATE

**> Arrasate Musikaleko ikasleek kontzertua egingo dute**

Aratusteetako kontzertua egingo dute musika ikasleek gaur, egubakoitza. Mozorrotuta joko dute, eta giro aparta sortzen da urtero.

Gaur, otsailaren 24an, egubakoitza, Arrasate Musikalen, 18:30ean.

ARRASATE

**> Skacha, Plan B eta Apunta! taldeek kontzertua egingo dute**

Vigoko Skacha punk taldeak *A Ferro e Lume* diskoa aurkeztuko du gaztetxean. Plan B eta Apunta! taldeek ere joko dute.

Gaur, otsailaren 24an, egubakoitza, gaztetxean, 22:00etan.

ELGETA

**> Muted eta Bide Bat taldeek emanaldia egingo dute**

Muted eta Bide Bat taldeen kontzertua izango da gaur, egubakoitza, gaztetxean, 22:30ean. Gaztetxea Aratusteetarako apainduko dute, eta jendea mozorrotuta joango da.

Gaztetxearen 10. urteurrena ospatzeko egitarauaren barnean dago.

BERGARA

**> Aby Kem, Gose eta Lor taldeen kontzertua izango da**

Aby Kem eta Gose Debagoieneko taldeek kontzertua egingo dute bihar, zapatua; lagun izango dute Lor taldea, Elorriotik.

Bihar, otsailaren 25ean, zapatua, San Martin Agirre plazan, 23:00etan.

BERGARA

**> Aratusteetako jaialdia izango da Ziripot tabernan**

DJ Ene! (kogollo party krew) disko jartzaileak emanaldia egingo du gaur, egubakoitza; eta bihar, zapatua, Golf-o Festa girotuko dute DJ Balza (KPK) eta DJ KRC (samu) disko jartzaileek.

DJ Ene!-ren emanaldia hilaren 24an; Golf-o Festa, hilaren 25ean; biak 23:00etan.

## Antzerkia

ARRASATE

**> 'Nananiana' antzezlana egingo du Torpedolevel taldeak**

*Nananiana* antzezlana egingo du Torpedolevel taldeak bihar, zapatua, Aterpe kafetegian. Estreinaldia da.

Bihar, otsailaren 25ean, zapatua, Aterpe kafetegian, 23:00etan. Sarrera, doan.

BERGARA

**> Pirritx eta Porrotx pailazoek ikuskizuna egingo dute**

*Maite zaitut* ikuskizuna egingo dute Pirritx eta Porrotx pailazoek bihar, zapatua, pilotalekuan, 16:30ean.

Sarrerak agortuta daudenez, ez dute txarteldegia zabalduko.

BERGARA

**> Antzerki musikala egingo dute etzi, otsailak 26, domeka**

*Amama Pantxikaren altxor ezkutua* antzerki musikala egingo du Ane Monna, Oskola eta Karramarroi taldeak etzi, domeka, pilotalekuan, 18:00etan.

Sarrerak salgai daude 2 eurotan kultura etxean eta Elkar liburu dendan.

OÑATI

**> 'Hiru txerritxoak' antzezlana egingo du Glu Glu taldeak**

*Hiru txerritxoak* antzezlana egingo du Glu Glu taldeak. Izen bereko ipuin klasikoan oinarritzen da, eta *Xurrut, Kurrin* eta *Korrok* txerritxoei gertatzen zaizkien abentura xelebreak kontatzen ditu. 3-9 urte bitarteko umeendako antzezlana da.

Otsailaren 25ean, zapatua, Santa Ana antzokian, 17:00etan.

## Ikuskizunak

ARRASATE

**> Ikuskizuna egingo du Golden Apple Quartet taldeak**

*Los Golden en serio* delako musika ikuskizuna egingo du Golden Apple Quartet taldeak. Flamenkoa, opera, gargarak, zirkua… Denetarik egongo da.

Etzi, otsailaren 26an, domeka, Amaia Udal Antzokian, 19:30ean.

ARRASATE

**> 'Barrebira' delako umeendako ikuskizuna egingo dute**

Txan magoak, Elvi sabeliztunak eta bere panpinek, eta Gari, Montxo eta Joselontxo pailazoek umeei zuzendutako *Barrebira* ikuskizuna egingo dute.

Otsailaren 28an, martitzena, Amaia Udal Antzokian, 17:00etan.

## Erakusketak

ARRASATE

**> Aratusteetako kartelen lehiaketa ipini dute**

Aratusteetako kartel lehiaketara inoiz baino lan gehiago aurkeztu dira, 58. Hala, aspaldiko partez, erakusketa ipini du Udalak. Hilaren 28ra arte izango da, Monterronen.

Erakusketa aretoaren ordutegia: 17:00-20:00.

PROPOSAMENA

BERGARA, ARRASATE

**> 'Grease' eta 'Saturday night fever' filmen ikuskizunak**

Bi film zein baino zein ezagunago izango dira Aratusteetako emanaldi banaren ardatz. Hala, gaur, egubakoitza, Bergarako Udal Bandak eta Orkestra Sinfonikoak *Saturday night fever* filmaren gaineko ikuskizuna egingo du pilotalekuan.

Bestetik, Aratuste-martitzenean, Arrasate Musikaleko bandak eta baletak *Grease* filmean oinarritutako ikuskizuna egingo dute kalejiran.

Bergarako ikuskizuna, 22:30ean; Arrasatekoa, 19:00etan.



## nire aukera



Maite Ortiz de Zarate
Haurreskolako hezitzailea
Aretxabaleta

## Iraupen eskia Frantzia aldean

Neguko asteburuetan iraupen eskia egitera joaten naiz. Euskal Herrian horretarako bi pista bakarrik dago, Nafarroan; gehienetan, ni Frantziara joaten naiz, aukera gehiago dagoelako. Asteburuero ez naiz joaten, baina bai gehienetan. Esaterako, Plateau de Belle pistara joaten naiz; handik irteerak egiten ditut Kataluniaa aldera.

Iraupen eskia ez da oso ezaguna Debagoienean, baina ez da zaila, eta alpetar eskia baino merkeagoa da: sarrera askoz gutxiago ordaindu behar da, eta arropa askorik ez da behar.

**Neguan, eskiatzera; eta udan?**
Udako asteburuetan bizikletan ibiltzen naiz asko.

**Bizikletan ibiltzeko, zelan dago Debagoiena?**
Frantzian, Danimarkan, Holandan... azpiegitura bikainak daude, eta lo egiteko leku on asko. Horren ondoan, hemengoa oso eskasa da. Han bizikleta garraiobidea da; hemen, kirola bakarrik.

**Kirol-zalea zara, orduan?**
Ez naiz zale amorratua, baina ahal dudana egiten dut, eta ni iristen naizen neurrira iritsita, gustura geratzen naiz.

**Paisaia eder asko ikusiko zenituen. Ederrena?**
Pont d'Espagneko eski pistak oso politak dira.

**Debagoieneko paisaia bat?**
Gaztelu Haitzetik ikusten den paisaia ikusgarria da.

**Aisialdian ere ume artean ibiltzen zara?**
Ez, ez (barre); lanetik deskonektatu egiten dut.

# Zinema

### ARAMAIO
**KULTURA ETXEA**

**Una vida por delante**
Egubakoitza: 22:00.

**El regreso de la momia**
Domeka: 17:00.

### ARRASATE
**AMAIA ANTZOKIA**

**Manuale d'amore**
Egubakoitza: 22:00.
Zapatua: 19:30.
Astelehena: 20:30.

**Kiriku eta basapiztiak**
Domeka: 17:00.

**Bordadoras**
Eguena: 20:30.

### ELGETA
**ESPALOIA ANTZOKIA**

**Dragon Hill**
Domeka: 17:30.

**Bridget Jones: sobreviviré**
Eguaztena: 21:30.

### OÑATI
**KULTURA ETXEA**

**La joya de la familia**
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

**El tiovivo mágico**
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

**Fugitivos**
Eguena: 20:00.

### EIBAR
**UNZAGA**

**La pantera rosa**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

### RIALTO

**En la cuerda floja**
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

### GASTEIZ
**GURIDI**

**Memorias de una geisha**
17:00, 19:45, 22:30.

**La pantera rosa**
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 17:00, 18:45, 20:30, 22:30.

**Sophie Scholl**
17:00, 19:45, 22:30.

**Sky high**
17:30, 20:00, 22:30.

**Brokeback mountain**
17:30, 20:30, 22:30.

**Reeker**
17:00.

**El nuevo mundo**
17:00, 19:45, 22:30.

**Casanova**
19:45, 22:30.

### FLORIDA-GURIDI

**Capote**
17:00, 19:45, 22:30.

**Buenas noches y buena suerte**
16:50, 18:40, 20:30, 22:30.

**Orgullo y prejuicio**
17:30, 20:00, 22:30.

**Los tres entierros de Melquiades Estrada**
17:30, 20:00, 22:30.

**Transamérica**
17:30, 20:00, 22:30.

**Sólo amigos**
16:50, 18:40.

**Dicen por ahí**
20:30, 22:45.

**Crash**
17:00, 19:45, 22:30.

### ÁBACO-LAKUA
**ZINEMAK**

**Underworld evolution**
20:00, 22:15, 00:30.

**Sólo amigos**
19:00, 22:00, 00:30.

**La joya de la familia**
22:00, 22:15, 00:30.

**Esta abuela es un peligro 2**
16:00, 18:00.

**Terror en la niebla**
20:00, 22:15, 00:30.

**Dick y Jane, ladrones de risa**
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

**Animales heridos**
16:00, 18:00.

**La pantera rosa**
16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:30.

**Las Fieras Fútbol Club**
17:00.

**Doce fuera de casa**
16:00, 18:00.

**Apostando al límite**
16:30, 19:00, 22:00, 00:30.

**Melissa P.**
16:00, 18:00, 20:00, 22:15, 00:30.

**Las crónicas de Narnia**
17:00.

**Secretos compartidos**
20:00, 22:15, 00:30.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

### YELMO
**CINEPLEX-GORBEIA**

**Underworld evolution**
12:15, 16:05, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

**En la cuerda floja**
12:15, 16:20.

**Bambi 2**
12:15, 16:10, 18:10.

**La pantera rosa**
12:15, 16:00, 18:00, 20:00, 22:00, 00:00.

**Buenas noches y buena suerte**
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

**Brokeback mountain**
19:45, 22:15, 00:45.

**Munich**
12:15, 17:30, 20:45, 00:05.

**Memorias de una geisha**
18:45, 21:30, 00:25.

**Crash**
20:00, 22:10, 00:35.

**Esta abuela es un peligro 2**
12:15, 15:40, 17:45.

**Dicen por ahí**
19:15, 22:20, 00:40.

**Dick y Jane, ladrones de risa**
12:15, 16:25, 18:25, 20:25, 22:25, 00:25.

**El nuevo mundo**
12:15, 15:30, 18:30, 21:15, 00:15.

**El jardinero fiel**
12:15, 16:45.

**Sky high**
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

**Sin control**
12:15, 15:55, 18:05.

**Casanova**
12:15, 15:45, 18:00, 20:15, 22:30, 00:45.

**Match point**
21:50, 00:20.

**Orgullo y prejuicio**
20:15, 22:40, 00:50.

**Sólo amigos**
12:15, 15:50, 17:50, 19:50.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

### ÁBACO
**BOULEVARD**

**La pantera rosa**
12:10, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:30.

**Bambi 2**
12:15, 16:30.

**Buenas noches y buena suerte**
12:00, 16:30, 18:25, 20:20, 22:20, 00:30.

**En la cuerda floja**
12:00, 17:00.

**Esta abuela es un peligro 2**
12:00, 17:00.

**Munich**
12:00, 16:00, 19:00, 22:00, 01:05.

**Sky high**
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:30.

**Brokeback mountain**
19:40, 22:20, 01:00.

**Memorias de una geisha**
12:00, 16:25, 19:20, 22:15, 01:00.

**Crash**
22:00, 00:30.

**Dick y Jane, ladrones de risa**
12:15, 16:25, 18:20, 20:15, 22:15, 00:30.

**Sin control**
12:00, 17:00, 19:45.

**Dicen por ahí**
18:15, 20:25, 22:30, 00:45.

**El nuevo mundo**
12:00, 17:00, 19:40, 22:25, 01:00.

**Casanova**
12:00, 17:00, 20:00, 22:25, 01:00.

**Los tres entierros de Melquiades Estrada**
19:30, 22:05, 00:45.

Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

Eskasa:* Balekoa:** Ona: *** Oso ona:**** Bikaina:*****

**Brokeback mountain** ****
AEB, 2005. Zuzendaria: Ang Lee. Aktoreak: Jake Gyllenhaal, Heath Ledger.
134 min. Drama.
AEBetako mendebaldeko bi abeltzain gazteren arteko amodiozko istorioa kontatzen du, homosexualitatea isilpean bizi behar izaten duten garai eta gizarte baten. Oskarretarako zortzi izendapen ditu film honek.

**Manderlay** ***
Danimarka-Suedia-Erresuma Batua-Frantzia-Alemania-Herbehereak, 2005. Zuzendaria: Lars von Trier. Aktoreak: Bryce Dallas Howard, Danny Glover.
139 min. Drama.
Manderlay delako landara iristen dira *Grace* (Dallas Howard) eta aita, Dogville herritik irtenda. Esklabutzako baldintzetan bizi den jende talde bat dagoela konturatzen da Grace.

**Manuale d'amore** **
Italia, 2005. Zuzendaria: Giovanni Veronese Aktoreak: Carlo Verdone, Silvio Muccino.
116 min. Komedia.
Lau bikoteren istorioaren bidez, maitasunaren lau aldiak kontatzen ditu filmak: maitemintzea, krisia, traizioa eta bikotekidea uztea.

**Una vida por delante**
AEB, 2005. Zuzendaria: Lasse Hallström. Aktoreak: Robert Redford, Jennifer Lopez, Morgan Freeman.
107 min. Drama.
Bi lagun taldek topo egiten dute: batetik, *Einar Gilkyson* (Redford) eta bere lagun onena, *Mitch Bradley* (Freeman), etxalde baten bizi eta lan egiten dutenak; bestetik, *Jean* (Lopez), *Einar*-en erraina, senargaiaren tratu txarretatik ihesi, eta 11 urteko alabatxoa.

**Casanova**
AEB, 2005. Zuzendaria: Lasse Hallström. Aktoreak: Heath Ledger, Sienna Miller.
108 min. Komedia, drama.
Venezia, 1700. Giacomo Casanova (Ledger) abenturazalea eta amorantea da. Francesca Bruni (Miller) ezagutzen duenean, ordea, benetan maitemindu egingo da.

**Bridget Jones: sobreviviré**
Erresuma Batua, 2004. Zuzendaria: Beeban Kidron. Aktoreak: Renée Zellweger, Hugh Grant.
108 min. Komedia.
*Bridget Jones*-ek, azkenean, bikotekidea topatu du, eta abokatu baten emaztegaia da. Baina kezkatuta eta segurtasun gabe jarraitzen du: zer egin bere bizitzako gizona ez galtzeko? Gauzak okertu egiten dira senargaiari lankide eder bat ipintzen diotenean.

**Sophie Scholl**
Alemania, 2005. Zuzendaria: Marc Rothemund. Aktoreak: Julia Jentsch, Fabian Hinrichs.
117 min. Drama.
Munich, 1943. Hitler Europa suntsitzen ari dela, unibertsitateko ikasle batzuek Arrosa Zuria erresistentzia mugimendua sortzen dute. *Sophie Scholl* da taldeko emakume bakarra. Halako baten, atxilotu egingo dute.

**Dick y Jane, ladrones de risa**
AEB, 2005. Zuzendaria: Dean Parisot. Aktoreak: Jim Carrey, Tea Leoni.
90 min. Komedia.
*Dick Harper*-ren(Carrey) enpresak hondoa jotzen du eskandalu baten ondoren. Harper-rek ez du behar adina aurreztu, eta emazteak eta biek daukaten guztia galtzen dute. Halako baten, iruzur egin dietenengan mendekua hartzeko modua dagoela konturatzen dira.

**Los tres entierros de Melquiades Estrada**
AEB-Frantzia, 2005. Zuzendaria: tommy Lee Jones. Aktoreak: Tommy Lee Jones, Barry Pepper.
116 min. Drama.
*Melquiades Estrada*-ren gorpua Mexikoko basamortu erdian agertzen da. Agintariek hilerri publikoan ehorzten dute. *Melquiades*-en lagun *Perkins*-ek (Lee Jones) hilketa argituko du.

**Dicen por ahí**
AEB, 2005. Zuzendaria: Rob Reiner. Aktoreak: Jennifer Aniston, Kevin Costner, Shirley MacLaine.
96 min. Komedia erromantikoa.
*Sarah* (Aniston) ezkontzera doa. Familiarekin topaketa baten, horren harira, amaren iraganeko sekretu batzuen berri jasoko du...



## Buenas noches y buena suerte ****

**Zuzendaria:** George Clooney.
**Aktoreak:** David Strathairn, George Clooney, Patricia Clarkson.
AEB, 2005.
93 min. Thriller politikoa.

*Buenas noches y buena suerte* filmak AEBetako 50eko hamarkadan izandako sorgin ehizari buruz hitz egiten du. George Clooneyk garai hartan E. R. Murrow kazetariak eta McCarthy senadoreak izan zuten gatazka erabiltzen du orduko giroa azaltzeko, baina horrez gain, zuzendariak urrutiago iritsi nahi du, eta gaur egungo komunikabideen eta, batez ere, telebista kateen egoera kezkagarriari buruzko hausnarketa egiten du: istorioa Murrow sari bat jasotzerakoan egiten ari den hitzaldi baten hasierako partearekin martxan jartzen da; horren ondoren, *flash-back* luze bat dago; eta filmaren azken eszenetan, hitzaldiaren bukaera daukagu. Hitzaldi horretan dago filma egitearen zergatia eta mezua, eta erdian dagoena eredutzat hartu beharko genukeen portaera zuzena eta askea dugu, Murrow-k eta bere kazetari taldeak izandakoa.

*Buenas noches y buena suerte* telebista sortu zen garaian kokatzen da, eta oso ondo islatzen du garai hartan lan egiteko modua eta platoan sortutako giro elektrikoa. Clooney taldearen garrantzia aipatzen ahalegintzen da: hori oso garbi ikusten da zuzenean egindako saioetan; nahiz Murrow-ren presentziak eta haren lehen planoak indar handia izan, hark berba egiten duen momentu batzuetan kamera bere taldekideen aurpegietara eta platoan sortzen den giro magikora hurbiltzen da. Kazetaritzaren alderdi indibiduala eta alderdi kolektiboa ederki islatzen dira film zehatz eta eder honetan.

**Antonio Zabala**



Goienkaria

EGOITZA NAGUSIA **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
ORDEZKARITZAK **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: arrasate@goiena.com
**Aretxabaleta** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: aretxabaleta@goiena.com
HARPIDETZA **943 79 21 00** • Posta-e: harpidetza@goiena.com

2006-02-24

# Aratusteetan, Txino Dantza eta Sorgin Dantza Aretxabaletan eta Antzuolan

1975ean berreskuratu zuten Txino Dantza; 1998a ezkero neskek ere hartzen dute parte

Antzuolan gizakumeek egiten dute Sorgin Dantza, neska eta gizon jantzita

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Santa Ageda batzen ibilitako gazteek Txino Dantza egingo dute Aretxabaletan domeka eguerdian. 1975. urtean berreskuratutako ohitura da, Francoren sasoian debekatuta egon ondoren. Aspaldiko doinuak eta jantziak errespetatuz, dozena bat lagunek hartzen dute parte. Ikatzez zikindutako lihozko alkandora jantzita, txapel zahar puskatua buruan eta kolorezko galtzerdiekin ateratzen dira kalera. Aurpegia ere ikatzarekin zikintzen dute, garai batean Aratusteetan etortzen ziren ikazkinak imitatu nahian. Batzuek gizonen papera egiten dute, eta besteek emakumearena. Ibilbidean zehar intsinuazioak eta gona altxatzeak ez dira falta izaten, ikusleen gozamenerako. Txistularien laguntzarekin, udaletxe aurrean ekingo diote ohiko ibilbideari. 1998a ezkero Aretxabaletako neska gazteek ere hartzen dute parte Txino Dantzan. Martitzen gauean, berriz, Txinoaren Hileta egingo dute Aratusteak agurtzeko. Lutozko jantziekin eta kandelekin lagunduta eramango dute zerraldoa plazaraino. Zerraldoa erretzen ari dela, kandelak zerraldora jaurtitzeko ohitura dago.



**TXINO DANTZA** Olagizonen antzera jantzita, ibilaldian zehar abesti bat kantatu eta antzezten dute Aretxabaletan. GOIENKARIA

**SORGIN DANTZA ANTZUOLAN**

Antzuolan, berriz, 30-45 urte bitarteko gizakumeek egiten dute Sorgin Dantza. Elkar igurtzika i ibiltzen dira, neska eta gizon jantzita. Gervasio Legorburu (75 urte) urtetan parte hartu du, txistulari. Zera esan digu Gervasiok: "Bergaran ere egiten zen sasoi baten, eta, antza, ehungintzan ibilitako Bergarako edo Antzuolako jendea Lasarte aldean ibili zen hemengo lan metodoak erakusten, eta dantza hori eraman zuten hara, gaur egun han ere egiten da-eta. Antzuolan duela 20 bat urte berreskuratu zen, urte dezentetan lagata egon ondoren".

Domekako ikuskizuna osatzeko, Antzuolako emakume talde batek Inudeak eta Artzainak izeneko dantza egingo du eta dantzan ari diren neska-mutilek ere hainbat dantza eskainiko dituzte plazan, eguerdiko mezaren ostean. Artza, tximinoa eta *domadorea* ere ateratzen dira Antzuolan, umeei beldurra eragin eta bestelako xelebrekeriak eginda.

## ahobero

### "Ama mozkorrek edo seme-alabenganako arreta eskasak ekartzen du anorexia"

**Angel Schlesser** > Diseinugilea

Nahikoa gogorra izan behar du horrelako egoera bat jasan behar izateak, artean horrelako adierazpen merkeak entzuteko. Cibeles Pasarelako diseinugileei gustu ona izatea suposatzen zaie. Antza, inteligentzia eta sentsibilitate eskasa dute batzuek.

## iturri onetik

### Maiatzerako, Bergaran erromeriak antolatzeko aukera aztertzen dihardute

Dantza taldeetako ordezkariekin, Trikiti Eskolarekin eta Bertso Eskolarekin batetera maiatzean erromeriak antolatzeko aukera aztertzen ari da Bergarako Udala.

Oraindik guztiz zehaztuta ez dagoen arren, Munibe plazan egingo lirateke erromeriok, maiatzeko lehen hiru egubakoitzetan. Giroa alaitzeko Bergarako taldeak zein kanpokoak ekartzea da antolatzaileen asmoa.

## piperrautsa

**Mikel Irizar** > www.goiena.net/blogak/piperrautsa

### Shakespeare gogoan

Bat. Iturri onetik dakit ibarreko udal handi baten ez dagoela inongo berririk AHTri buruz, nahiz tren azkarrak bete-betean harrapatzen duen herria. Eta sailburuari irakurria diot, ez aspaldi, joan dela eztabaidarako garaia, bilera nahikoa egin dela ibilbideko udalekin, azalpenak emanaz. Egiteko ordua omen, kaltetuek proiektua ezagutzen ez badute ere.

Bi. Bilboko portu berriko arduradunaren arabera, merkantzien garraioak ez omen du abiadura handirik behar, eta oraindik ez ei dakite nola lotuko den portua tren azkarrarekin; aukeran kasik tren zaharra nahiago luke merkantziak garraiatzeko. Sailburuak, berriz, trafiko arazo guztien konponbidea dauka AHTrekin.

Hiru. Esadak, William, zerbaiti ustel usaina zeriok… Danimarkan?

## ai, ene!



### Lanetik ziztu bizian atera behar duzunerako

Hainbat egoeratarako, Mini autoa eta laneko bulegoa uztartzen dituen modelo original hau aproposa izan daiteke.

http://tinyurl.com/97atg

TOYOTA

Orain Bergaran.




EuskoAuto
Olabarrena z/g BERGARA
943 76 23 85
BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI